goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2010-11-12
EGUBAKOITZA
442 ZENBAKIA
10. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET

TOKIKOM

Sexualitatea umeei azaltzen laguntzeko ipuinak

'Kili kontuak' izeneko ipuin bilduma egin du Arrasateko Sexologia Zerbitzuak | 2-3

Iñaki Esparza UNEDeko zuzendari berriarekin jardun dugu | 8

Azoka etzi Leintz Gatzagan San Milixanen barruan | 11

Euskaldunok japoniera ikasteko liburua egin du Jon Goikoleak | 56

Zorionak!

Lagunez inguratuta ospatu zuen atzo Goienak 10. urtemuga. Kultura, euskara, politika, herrigintza, kirol eta beste hainbat esparrutako ordezkariek bete egin zuten Amaia antzokia kooperatiba elkarteak iluntzean egindako jaialdian. Urteurrena ospatzearekin batera, kolaboratzaileak omendu zituzten eta irudi berria eta komunikabide berrituak aurkeztu. | 31-33

Tavex ehungintza lantegia itxi egingo dute | 4

ASTEKO GAIA 2-3 | DEBAGOIENA 4-5 | IRITZIA 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11-27 | KIROLA 28-29 | KULTURA 56-57 | ZURE IRAGARKIAK 59 | TELEBISTA-IRRATIA 60 | ESKELAK 60-61 | EZKONTZAK 61 | NON-ZER 62-63

+25 urte Toyotaren kontzesionario sarea

Toyotaren kontzesionario sarean urteurrena ospatzen gabiltza.

TOYOTA

5 urteko finantzaketa-garantia

Orain duzu aukera, Toyota auto berri bat prezio ezin hobean.

MODELOA	EKIPAMENDUA	LEHEN	ORAIN
Toyota AYGO 1.0 68 ZP 5 ate Blue	• Aire girotua, 4 aire-poltsa, irratia, 6 CD, bozgorailuak+USB, iPod, Bluetooth konexioa.	11.100 €	8.700 €
Toyota Yaris 1.0 69 ZP 5 ate TS	• Aire girotua, llantak, 7 aire-poltsa, lainotako argiak, irratia, CDa, MP3, 6 bozgorailu	14.050 €	10.500 €
Toyota iQ 1.3 99 ZP iQ	• Aire-girogailua, llantak, 9 aire-poltsa, lainotako argiak, egonkortasuna kontrolatzeko sistema, irratia, Cda, MP3, 6 bozgorailu, euri eta argi sentsorea, autoan sartzea eta martxan jartzea giltzarik gabe, larruzko edo telazko eserlekua berogailuarekin, Stop&Start, 6 abiadura.	15.900 €	13.020 €
Toyota Auris 2.0 Diesela 126 ZP 5 ate TS.	• Aire girotua, llantak, 7 aire-poltsa, lainotako argiak, 6 abiadura, irratia, CDa, MP3, USB, 6 bozgorailu.	20.650 €	15.900 €
Toyota Verso 2.0 Diesela 126 ZP- 7 eserleku Active	• Bi-zona aire-girogailua, llantak, 7 aire-poltsa, gurutzaldi-abiadura, lainotako argiak, 6 abiadura, egonkortasuna kontrolatzeko sistema, irratia, CDa, MP3, 6 bozgorailu, Bluetootha.	25.350 €	20.850 €

Zatoz gu bisitatzera, auto gehiago ditugu prezio berezian.

3 urteko GARANTIA BIDAIAKO LAGUNTZAN

EuskoAuto

BERGARA Olabarrena, z/g Tel.: 943 76 23 85
ELGOIBAR Olaso industrialdea Olaso Kalea 23 - Tel.: 943 74 74 17
PASAIA ANTXO San Markos bidea 32 Tel.: 902 34 52 45
OLABERRIA Karobi Industrialdea Tel.: 943 80 59 26

BEZa, garraioa, matrikulazio zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne. Eskaintza baliagarria hil bukaera arte penintsulan eta Balear uharteetan, biltegian dauden autoentzat. Kontsumo konbinatua (l/km): 3,9tik 14,4ra. CO2 emisio konbinatuak (g/km): 89tik 340ra).

'Kili kontuak', edo sexualitateaz seme-alabei zelan hitz egin

- Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuak 'Kili kontuak' izeneko ipuin bilduma aurkeztu du, eta salgai dago
- Helburua da gurasoendako eta hezitzaileendako lagungarri izatea umeekin sexualitate kontuez errazago eta naturalago berba egiteko
- Etzi, domeka, ipuinetan oinarritutako antzezlana egingo dute Jon Zubiaga eta Sonia Villamorrek

Arrasateko Udaleko ordezkariak eta ipuinaren egileak, aurkezpenean. | AMAIA TXINTXURRETA

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Umeak nondik datozen, gaur egungo askotariko familia motak zeintzuk diren, umeak bere gorputzarekin jolasten hasten denean izan ditzakeen galderak... Gai eta jakin-min horiek buruhausteak sortzen dizkiete hainbat aita-amari. Bada, aurrerantzean, sexualitatearekin lotutako gai horiek eta beste hainbat seme-alabekin lantzen hasteko laguntza bat izango dute debagoiendarrok: Arrasateko Udal Sexologia Zerbitzuak martitzenean aurkeztu zuen *Kili Kontuak* izeneko bost ipuinen sorta.

Sexologia Zerbitzuko arduradunek umeekin sexualitatea lantzearen garrantzia azpimarratu nahi izan dute, eta sexualitatea bere osotasunean hartzen dute gaitzat ipuin horiek; helburua da sexualitatea modu zabal eta integralean lantzea. Hala, sexualitateari hainbat ikuspuntutatik begiratzen diote ipuinok: emozioak eta horiek identifikatzen ikastea, autoestimulazioa, gorputzarekin jolastea, ugalketa eta askotariko familia ereduak dira ardatz nagusiak. Kontuan hartu behar da, izan ere, sexualitatea eta sexua ez direla gauza bera, nahiz eta askotan nahastu egiten diren. Hala, sexualitate kontzeptuak hartzen ditu pertsona baten dimentsio soziala, afektiboa eta fisikoa beste pertsona batekiko intimitate eta plazer harremanean, eta sentimenduen, pentsamenduen, fantasien, sinismenen, jarreren, arauen, balioen, ekintzen...bitartez adierazten da. Sexuarekin, aitzitik, esan nahi dira gizonezkoa eta emakumezkoa desberdintzen dituen ezaugarri fisikoak eta gorputzarenak.

Ipuinak 4 eta 7 urte arteko umeendako dira –dena den, ume txikiagoendako edo nagusitxoagoendako moldatu egin daitezke–, eta umeek eurek bakarrik edo guraso, zaintzaile eta irakasleekin irakur eta konta ditzakete.

Hain zuzen, helduokin pentsatuta, lehenengo ipuina guraso edo hezitzaileendako da, eta hor, hainbat gomendio ematen dizkiete helduei, sexualitate edukiak dituzten ipuinak konta ditzaten. Gida-liburuxka hori euskaraz eta gaztelaniaz dago. Horrez gain, ipuin bakoitzaren hasieran gako edo azalpen gehiago daude.

Ipuin bildumatxoa salgai dago: arrasatearrendako, 18 eurotan, Sexologia Zerbitzuan eta Gazte Bulegoan; eta gainerako herrietan, 22 eurotan Elkar Megadendan. Ipuin guztiak euskara hutsean daude, gida-liburuxka izan ezik.

Zikoinari adio esan

Larraitz Arando da Sexologia Zerbitzuko arduraduna, eta hark azaltzen digu nondik sortu zen ideia: "Hainbat guraso eta profesionalek esaten ziguten hutsunea ikusten zutela; ez zegoela umeekin sexualitate gaiak lantzeko materialik, eta euskaraz sortutakorik ere ez. Euskarara itzulitako material askok ez zuela sexualitatea bere osotasunean lantzen esan ziguten. Adibidez, umeak anai-arrebatxoak nondik datozen galdetuta, oraindik zikoinaren kontua erabiltzen zela eta ea oraindik horrela jarraitu behar genuen galdetu ziguten".

Hortik abiatuta, Larraitz Arando, Amaia Mondragon eta Mirari Arando lanean hasi ziren eta askotariko adituekin lantaldea osatu zuten: sexologoak, psikologoak, psikopedagogoak, diseinatzaileak, marrazkilariak eta irakasleak.

Emaitza da eskuragarri dagoen ipuin bildumatxoa.

Gurasoak, pozik

Gida-liburuxka horretako gomendioak edo jarraibideak laburtzeko eskatu diogu Larraitz Arandori, eta hauxe esan digu: "Gomendioak nahiko sinpleak dira. Funtsean, umeak zerbait galdetzen digunean, erantzun sinpleena da onena eta eragingarriena. Erantzun teknikoak ematen hasteak esan nahi du gure ezintasun bat dagoela hor, eta hori estaltzeko erabiltzen ditugula hitz horiek. Baina horrek umea nahastu besterik ez du egiten".

Era berean, Arandok aholkatzen du gauza bakoitzaren izena erabiltzea eta diren moduan azaltzea, betiere umeek ulertzeko moduan; izan ere, haren hitzetan, giza-ugalketa "ez da loreen, azen, erleen... kontua". Beste ohiko akats bat da, haren esanetan, "gorputzarekin azaltzea" umeari azaldu nahi dioguna, hitzekin esplikatu beharrean, eta horrek "mezu kontraesankorrak" ematen dizkie umeei.

Edozelan ere, gomendio orokor horiez gain, ipuin bakoitzaren hasieran topatuko dituzte gurasoek eta hezitzaileek ipuin horren edukiei dagozkien azalpen eta aholku zehatzagoak.

Gurasoek izan dute lehenengoko kontaktua ipuin berriekin. Izan ere, martitzenean aurkezpena egin eta gero, ipuinak kontatu zituzten Okendoko ludotekan, eta liburuxkak eurak ere ikusi ahal izan zituzten bertara joan ziren herritarrek. Bada, arduradunek "gustura" ikusi zituzten gurasoak hezkuntza produktu berri horrekin.

Izan ere, Sexologia Zerbitzuko arduradunaren iritziz, "umeekin sexualitate gaiak lantzeak

Umeentzat egokiak, helduentzat ere bai

Kili kontuak **ipuinak elkarrekin irakurrita, helduek ikas dezakete sexualitatearen gainean umeek egiten dituzten galderak hobeto erantzuten. Horretarako gomendioak batzen ditu ipuin sortak. Oro har, honela labur daitezke: naturaltasunez erantzun, egia esanaz –betiere, umearen adinera eta ulermen-mailara egokituta– eta beti hitz berberak erabilita. Komeni da hitz samurrak erabiltzea eta hitz teknikoak ez ematea, ezta galderak behar duen erantzunetik haratago joatea ere, horrek umea nahas dezake-eta.**

Bi neskatxo, *Kili kontuak* sortako ipuin batekin. | AMAIA TXINTXURRETA

garrantzia dauka, eta txikitatik landu daitekeen gai bat da".

Gai horrek larritasun pixka bat sortzen die oraindik aita-amei. Hain zuzen, larritasun hori gainditzeko "baliabide" gisa eskaini nahi dute bilduma.

Estreinaldia, domekan

Proiektuaren bigarren emaitza ikusteko, domekara arte itxoin beharko da. Izan ere, ipuinetan oinarritutako antzezlan bat prestatu dute bi aktorek, Jon Zubiaga arrasatearrak eta Sonia Villamor bilbotarrak. Antzezlana Kulturateko areto nagusian izango da, 17:30ean.

ESANAK

"Dagozkion hitzak erabili behar dira; giza-ugalketan ez dago lorerik"

LARRAITZ ARANDO | SEXOLOGOA

"Sentimenduak kudeatzen ikasi behar dugu; eurekin bizi behar dugu"

SONIA VILLAMOR | AKTOREA

Sonia Villamor aktoreak esan digu "gogotsu" daudela domekako estreinaldirako. Izan ere, ekarpena aktoreena ere izan da: hasieran ipuin kontaketa bat egiteko eskatu zieten, baina bi aktoreek ikusi zuten antzezlantxo bat egiteko modukoa bazela material hura.

Antzezleek eurek "sinistu" egiten dute antzezlanaren bidez plazaratuko dituzten ideietan; honela dio Villamorrek: "Naturaltasuna da gakoa; umeekin hitz berberak erabiltzea momentu guztietan: adibidez, zakila zakila da, eta alua alua da... horiek dira euren izenak. Prozesuak ere izen berarekin izendatzea ere oso garrantzitsua da. Prozesu horiek naturalak dira".

Bestalde, gaur egungo errealitateaz ere erakusten diete: askotariko familia mota eta eredu daudela, alegia.

Sentimenduetaz eta emozioetaz ere jardungo dute, eta asko jardun ere: "Sentimendu positiboak eta negatiboak izango ditugu gure bizitzan zehar, eta horiek kudeatzen ikasi behar dugu; izan ere, askotan ukatu egiten dizkiegu umeei emozio horiek, edo gu txarto gaudenean, ez diegu esaten. Baina sentimendu horiekin guztiekin bizi behar dugu", esaten du aktoreak.

Ipuinen eta antzezlanaren bidez, gurasoak eta, oro har, familiak animatzen dituzte umeei erakustera emozio horiek identifikatzen, izendatzen, eta horien aurrean jokatzen.

Kili kontuak ipuinak. | SEXOLOGIA ZERBITZUA

Antzezlana, Durangoko azokara

Kili kontuak da ipuin bilduma baten izena, eta baita hortik abiatuta Jon Zubiaga eta Sonia Villamor aktoreek sortu duten antzezlana. Bi pertsonaiaren bidez, ipuin sortaren ideia garrantzitsuenak helaraziko dizkiete seme-alabei zein aita-amei.

Estreinaldia da etzi, domeka, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean. Durangoko azokara eramango dute antzezlana abenduaren 8an; eta urtarrilean, Arrasatera berriz, Okendoko ludotekaren urteurrenean.

Familia osoa joatera gonbidatzen dute arduradunek. Sonia Villamorrek hauxe diosku: "Gure nahia da gurasoendako lagungarri izatea umeei sexualitateaz hitz egiterakoan. Ea asmatu dugun!"

Tavex enpresak ateak itxiko ditu. | LANDER MUÑAGORRI

Bergarako Tavex ehungintza enpresa itxi egingo dute arrazoi ekonomikoak direla eta

ELA sindikatuaren arabera, negoziazio prozesua abiarazi dute ugazabek

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Bergarako Tavex enpresa itxi egingo dute arrazoi ekonomikoak direla eta. Enpresako zuzendaritzak ez du adierazpenik egin gura izan, baina ELA sindikatuak helarazitako informazioaren arabera, itxiera negoziatua bilatu nahiko lukete enpresako ugazabek. Hori dela eta, negoziazio prozesua abiarazi berri dute Tavex-en.

Zuzendaritzak joan den astean jakinarazi zien langileei lantegia ixteko asmoa. Jasotako informazioaren arabera, enpresak ez du prozesua bizpahiru hilabete baino gehiago luzatu nahi. Horrek ez du esan nahi lantegia epe horretan itxiko dutenik, baizik eta, beharbada, lantegiaren jarduna pixkanaka txikitzen joango dela.

ELA sindikatuaren ustez, orain enpresak eskaintza bat egin beharko die langileei. Orotara, 64 langile daude beharrean Tavex enpresan, eta horietatik erdiek 53 urtetik gora dauzkate. ELAko iturriek zihurtatu digutenaren arabera, aurre erretiroaren tipologian sartzen dira langile horiek guztiak. Baina, hasieran adierazi bezala, oraindik ez dago ezer mahai gainean adostuta. Adosten diren emaitzak jakiteko, negoziazio prozesuari itxaron beharko zaio.

Tavex enpresa mutlinazionala da egun, 2006an Santista Textil enpresa brasildarrarekin elkartu zenetik geroztik. Ez zuten Enplegu Erregulazio Espedienterik aurkeztu, ezta beste ezer ere, eta, langileek esan dutenaren arabera, lana askotxo gutxitu zen azkenaldian.

DATUA

64

LANGILE

Tavex-ek egun duen langile kopurua. Erdiek 53 urtetik gora dauzkate.

2006an Santista Textil brasildarrarekin elkartu zenetik lan gutxiago egon da

Urte hobeak

Bergarak betidanik izan du harreman zuzena ehungintzaren sektorearekin, baina azken urteetan beherako joera darama jardun horrek. Sektore horretako azkenetariko oinordekoa da Tavex.

1846an zabaldu zituen ateak lantegi bergararrak, eta XX. mendeko lehen hamarkadetan ezaguna zen lanerako telak egiteagatik. 70eko hamarkadan denim tela egiteko apostua egin zuten, eta sektore horretan erreferentzia bihurtu. 2006an Santista Textil -ekin elkartu zen, eta sektorean lider bihurtu.

Garairik onenetan, 500 langiletik gora izatera iritsi zen.

Debagoieneko enpresen gida digitala aurkeztu dute

Enpresen kokapena, datuak eta jardueren inguruko informazioa emango dituzte web bidez

L.M. | BERGARA

Debagoieneko Mankomunitateak eskualdeko enpresen kokapena, datu eta jarduerak zehazten dituen gida atera du. Gida hori, gainera, digitala izango da, eta, beraz, Internet bidez kontsultatu ahal izango da. Gauzak horrela, tresna baliagarria izango da enpresentzat eta erabiltzaileentzat.

Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentziaren Valora proiektuaren barruan sortu dute gida hori. Finantzazioari dagokionez, Europako Gizarte Fondoak jarri du diruaren erdia eta gainerakoa bailarako udalen eskutik etorri da.

Gida horretan, ibarrean dauden 900 enpresa industrial agertzen dira. Egileen hitzetan, enpresei zuzendutako doako zerbitzua da, eta parte hartu nahi duen orok bete dezake alta emateko eskaera orria. Horretaz guztiaz gain, enpresentzako publizitate tresna oso baliagarria ere izan daitekeela azpimarratu zuten.

Enpresez gain, erabiltzaileei zuzendutako zerbitzua ere bada. "Webgunea oso baliagarria izan daiteke kanpotik datorren komertzial edo garraiolariarentzako, nahiz langabezian daudenentzako", egileen hitzetan.

Oraingoz, enpresa industrialetara mugatu dute gida, baina, hala ere, ideia sektore gehiagotara zabaltzea da. Gida *www.debagoienekoenpresengida.net* webgunean dago.

GOIENA

Bikain ziurtagiria hiru enpresari

Bikain euskararen kalitate ziurtagiria jaso dute Debagoieneko hiru erakundek. 2010. urteari dagokionez Bergarako Aranzadi ikastolak (argazkian) goi mailako saria jasot du. Iaz sari banaketarik egin ez zela eta, iazko sariak eguaztenean eman ziren. Mondragon Unibertsitateko Eteok eta Huhezik 2009ko goi mailako Bikain saria jaso dute.

SAN MILIXANAK 2010

XVIII. Eskulangintza feria.
Azaroak 14, Igandea.
Ordutegia 10:00etatik 14:30era.

Zatoz Gatzagara! Etxean bezalaxe!

1. Egurrezko jostailuak
2. Serigrafia
3. Beira
4. Harriak
5. Xaboi Naturala
6. Zeramika eta grabatuak
7. Zeramika
8. Egur taila
9. Bitxiak
10. Larrua
11. Zapatak
12. Fundizioa
13. Bitxigintza polimerikoa
14. Papera
15. Pilotak

Eskoriatzatik Gatzagara etengabe autobus zerbitzua

Tailer Herrikoia:
E-mendi artelanak, Larrua

Kultur etxean erakusketak:
Euskal oihalak

Erakustaldia:
Idiarekin museotik irtenda irameta, lehengo erara

LAGUNTZAILEAK:
LEINTZ GATZAGAKO UDALA
SORGINAK Gatzaga
Gatz museoa
ESKUZ
gizarte kutxa zugandik zugana

Enpresagintza fakultatearen ibilbidea, liburu baten jasota

Jose Antonio Azpiazu historialari eta irakasle ohiak idatzi du 'Historiatik etorkizunera begira'

MIRIAN BITERI | OÑATI

Historiatik etorkizunera begira. Horixe da Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak idatzi duen liburuaren izenburua, eta horretan, Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza Fakultatearen 50 urteko historiaren nondik norakoak jaso nahi izan ditu.

1960ko hamarkadatik gaur arte ETEO izena izan zuen fakultatearen hastapenak berrikusten dira bertan; ibilbidean paper esanguratsua izan dutenen elkarrizketak ere badaude. Eguaztenean Oñatiko udaletxean egindako aurkezpenean, Azpiazuk nabarmendu zuen liburua proiektu horren "sustatzaile guztiei" egindako omenaldia dela: "Askoren liburua dela esan daiteke, nik haria baino ez dut eraman". Horren harira, gogorarazi behar da Azpiazuk ondo baino hobeto ezagutzen duela fakultatea, 12 urtez irakasle izan zen-eta.

Eskola ibiltaria

Historialariak gogorarazi zuen urte zailetan sortu zela eskola, Jose Maria Arizmendiarrietaren eskutik: "Arrasateko Lanbide Heziketako Zentroa osatzeko eta administrazio arloko prestakuntza hedatzeko sortu zuen. Frankismo barruan sartuta geunden, askatasun txikiko garaiak ziren, eta akademia moduan sortu zen, Eskola Tekniko Administratiboa izenekoa. San Lorentzon zegoen lokala aita agustindarrei alokatu arte, hemendik hara ibili zen, eskola ibiltaria zen".

73-74 ikasturtean, Enpresagintza Eskola Teknikoaren onespena lortu zuen, eta Jose Antonio Mendikute zuzendari berria iritsi zenean ETEO izena hartu zuen: Oñatiko Enpresagintza Eskola Teknikoa. Harrezkero, eskola apurka hazi zen eskualdeko enpresei begira. Aldaketa adierazgarriena 97-98ko ikasturtetik aurrera izan zen, Mondragon Unibertsitatearekin. Hura sortzean irakaskuntza-ikaskuntza eredu berria ezarri zela gogorarazten da liburuan. Horrez gain, fakultateak inauguratu berri duen eraikin berriaz ere badihardu.

Eunate Elio, Lander Beloki, Lourdes Idoiaga eta Jose Antonio Azpiazu. | M.B.

Idoiaga: "Iraultza ekarriko du"

Aurkezpenean, Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga eta Enpresagintza Fakultateko dekano Lander Beloki izan zituen ondoan Azpiazuk. Idoiagak oñatiar eta fakultateko ikasle ohi moduan hitz egin zuen. Haren esanetan, "ETEOk hezkuntza eskubidea sozializatzea ekarri zuen; eta, etorkizunari begira, iraultza ekarriko duen proiektu bezala ikusten dut". Eta Belokik, berriz, gerora begirako "ale oso egokitzat" jo zuen Jose Antonio Azpiazuk idatzitako liburua.

ESANAK

"Askoren liburua da; nik haria baino ez dut eraman"

JOSE ANTONIO AZPIAZU | IDAZLEA

Kursaalean banatuko dituzte liburuak

Eguazteneko aurkezpenean, Enpresagintza Fakultateko dekano Lander Belokik azaldu zuen liburua ez dela salgai jarriko, eta azaroaren 18an, fakultatearen sorreraren 50. urteurrenaren harira, Donostiako Kursaalean egingo den ekitaldian banatuko dela. Hara joaten diren guztiek jasoko dute; guztira, 1.000 liburu atera dituzte. Ekitaldira joaterik ez dutenek eta Jose Antonio Azpiazuk Mondragon Unibertsitatearendako idatzitako argitalpena jasotzeko interesa dutenek Enpresagintza Fakultatearekin harremanetan jar daitezkeela ere aipatu du Belokik.

Diputazioak milioi bat euro bideratuko ditu Garaiara

M.B. | BERGARA

Berrikuntzako Departamentuak eskatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak Garaia Berrikuntza Gunearen sozietatearen kapitalari 1.011.111 euroko ekarpena egitea onartu zuen eguaztenean. Diputazioak 2012ko abenduaren 31 baino lehen ordaindu behar du ekarpena. Hain justu, Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuak proposaturik, honela bideratuko da dirua: 114.174 euro, aurten; 450.000 euro, 2011n; eta 446.937 euro, 2012an.

Ekarpena ordainduta, Aldundiak kooperatiban izango duen partaidetza 8.011.111 euro izango da.

Bada, Diputazioaren ekarpenaz gain, Garaiaren Ohiko Batzar Nagusiak erabaki zuen kapitalean beste hainbat ekarpen onartzea; guztira, 3.653.749 euro. Bazkide erabiltzaile sustatzaileek egingo dituzte: Mondragon Korporazio Kooperatibo Fundazioak 1,3 milioiko ekarpena egingo du; Sprilurrek, 1.011.111 eurokoa; eta Arrasateko Udalak, 331.527 eurokoa.

ZABALIK

MIKEL LEZAMIZ
'http://berria.goiena.net/iritzia/'

Krisi ekonomikoa & gazteak

Gaur krisiak gogor jotzen ari gaitu askori eta batez ere gazteei. Gazte gehienak lanean ari ziren, baina lan bazkidea edota lan kontratu finkoa ez zutenez jadanik, enpresetatik kanpora irteten lehenak izan dira.

%40 arteko langabezia omen dago gazteen artean eta badirudi urte luzez joango dela egoera txakal hau.

Eta oraindik gure gazteak ez dira altxatzen borrokan guk helduok egin dugun gizarte honen aurka.

Ondo prestatuak dira ikasketa handiekin eta nahiz eta sarritan entzun zaharrongandik indibidualistak, hedonistak eta bizizaleak direla, ez nago batere ados: gure gazteak prest daude lan egiteko eta konprometitzeko uzten dizkiegun gizarte honetako parte-hartze apurrekin.

"Gizarte bizi, aktibo eta aurrerakoia egin behar dugu"

Hor dago datu argi bat: inoiz ez da izan Euskal Herrian orain beste bolondres hirugarren munduko lagunei laguntzeko. Gazte jende sanoa daukagu eta gizarte kohesinatua mantentzen ari gara.

Baina berandu baino lehen, gizarte bizi, aktibo eta aurrerakoia egin behar dugu, gazteentzat ere atraktiboa izan dadin, eta helduok hori ahalbidetzen lagundu behar dugu.

Nola? Ez da erraza, baina, adibidez, lana erdibitu egin behar dugu. Lanordu gutxiago eginez (5-6 ordu egunero) eta, noski, zerbait gutxiago kobratuz, gazteei ere aukera emanez.

Errelebo kontratua den bezala, lanordu erdiko kontratua sortuz 50-55 urtetik gorakoekin, eta berarekin batera gazte bat lanean jarriz.

Heldua jubilatzerakoan, gaztea egun osoko lanpostuan jarriko litzateke.

Ni neu prest nago sistema horrekin hasteko.

Ziur badaudela beste aukera batzuk, eta konprometituak eta berritzaileak izan behar dugu gizartea hobetzerakoan.

Denon ardura da.

USTEAK USTE

LARRAITZ ZEBERIO | Kazetaria | 'izeberio@goiena.com'

Ipini duzu txertoa?

Gaixotasun berria zen eta zuhurtziaz jokatu beharra zegoen, baina azkenean eszeptikoenek arrazoi! Iaz udazkenean A gripearen harira eragindako beldurrak gehiegizkoak ziren. Gogoan dituzue ikasturte hasieran ikastetxeetan zein lantokietan propio ezarritako protokoloak eta banatutako eskuorriak? Dominstikua egiten genuen bakoitzean eskuak garbitzera deituak izan ginen, eta ume bakoitzak bere paperezko mukizapien zorroa eraman behar izan zuen eskolara astelehenero. Pasa da neurosia, eta aurten Osakidetzak hilabete luzatu du gripearen aurkako txertatze-kanpaina. Jende gutxik ipini du, antza.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | Marrazkilaria | 'http://berria.goiena.net/iritzia/'

PLAZARA

ESTEPAN PLAZAOLA | Goienako lehendakaria

22 eta 10

Hogeita bi urte beteko dira abenduaren 2an *Arrasate Press*-en lehenengo alea Arrasateko buzoietara heldu zenetik. Hogeita bi urte ekintzaile taldetxo batek AED euskara elkartearen eskutik, herriko udalaren laguntzaz eta herriko dendarien babesaz, ekimen berritzaile bat abian jarri zuenetik.

Mugarri nagusia izan zen hura hedabideen arloan. Ordura arte oso gutxi ziren tokiko hedabideak eta apur horiek gaztelaniazkoak edo ele bietakoak ziren. 6-7 urteren buruan 50 aldizkari inguru sortu ziren euskal herrietan zehar. Eta aurretiko urteetan ez bezala, euskaraz sortu ziren urte horietako ia aldizkari guztiak. Lehenengo aldiz, euskara aurrendari izan zen hizkuntzaren garapenerako oinarri-oinarrizkoa den arlo batean.

Debagoienean ere, ia herri guztietan jarri ziren abian maiztasun txikiagoko edo handiagoko aldizkariak. Telebista eta irratiak ere bai zenbaitetan. Hazkunde handia izan zuten urte gutxian, bai irakurle edo ikus-entzule kopuruaren aldetik, bai langile eta kolaboratzaileen aldetik eta bai publizitatetik zein laguntzetatik lortzen ziren baliabide ekonomikoen aldetik ere. Eta, hazkundea izan zuten, batez ere, herrietan lortu zuten atxikimendu eta sinesgarritasunaren aldetik.

Lur horretan erne zen Goiena, orain dela 10 urte. Hazten jarraitzeko asmoz, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko gogoz, euskara aitzindari izan zen eremu batean aitzindari izaten jarraitzeko ilusioz.

"Hamar urteotan ekarpen garrantzitsuak egin ditu Goienak"

Hamar urteotan ekarpen garrantzitsuak egin ditu Goienak. Azpimarratzekoa da komunikazio eta zerbitzu eskaintzan ekarri duen jauzia: prentsa astean bi egunetan herri guztietan banatzea, telebista orduak gehitu eta herri guztietara zabaltzea, Internet abian jarri eta hainbat produktu bideratzea... Baina, aldi berean, ezin da ahaztu jauzi hori bideratu dela autofinantzazioan gora eginaz, inbertsio garrantzitsuei aurre eginaz, profesional-talde konprometitu eta goi-mailako baten egoera laborala egonkortuaz, azken batean, tokiko hedabideen jarduna bideragarriago bihurtuaz...

Lagun nekagaitzak izan dituzte euskarazko hedabideek beren ibilian, 20 urtez astero-astero musutruk jardun duen kolaboratzailetik hasi, Goienako hedabideengan konfiantza osoa jarri duen dendaritik segi eta gure proiektua bultzatzeko beti alboan izan ditugun euskara elkarte eta herri-agintarienganaino.

Horiei gure eskerrak luzatzeko unea da, baina baita, aldi berean, lankidetzan jarraitzeko gonbita egiteko ere. 22 eta 10 goaz, baina hemen ez da partidua bukatzen. Partidu honek ez du amaierarik. Orain 22 eta orain 10 urte bezala, gaur ere, helburu bat dugu: komunika komunikatzea, komunika komunitatea. Euskaratik eta euskaraz.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.000 ale.
Difusioa: 19.724 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Ibarra 6, 20570 Bergara | goienkaria@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Debagoienean aurrera egiteko, batu gaitezen

Lourdes Idoiaga eta Mikel Lete
(Batu Gaitezen Debagoienean)
Oñati

"Abertzaleak gara, eta ezkerrekoak. Zuek eskuinekoak eta moderatuak". Halakoak entzuten ditugu aspaldiko denboretan. Ez dugu lotsarik zer garen aitortzeko: Euzko Alderdi Jeltzalekoak gara, abertzaleak. Herri honetan errotuak bizi gara, gure aurrekoen lekukoa eskuan, herri hau etorkizunerako prestatzen. Kontserbadoreak gara, jaso ditugun balioak gordetzearen aldekoak garelako; eta aurrerakoiak gara, biharko belaunaldiei transmititu nahi diegulako herritar eta herrialde hobea izatera eramango gaituen ondarea. Bi oinarri horien gainean eraiki nahi dugu, beraz, Debagoiena: kontserbatuz eta aurreratuz, zainduz eta berrituz. Eta gure nortasunarekin egin nahi dugu hori, jeltzale izanez.

61.000 bizilagun baino gehiago gara bailarako zortzi herrietan. Horra gure ondasuna. Batera eta batuta jardun behar dugu udalek eta Foru Aldundiak, nahiz Jaurlaritzak eta elkarrekin herri-erakundeok eta bailarako industria-sareek, unibertsitateek eta gizarte eragileek. Gobernantza berrian funtsezkoa izango da herritarren esku-hartzea herrigintzan. Batera eta batuta aritzeko, gure arteko batasuna eragingo duten balioak behar ditugu.

Guk, euskaldunok, abertzaleok, ezin dugu indarkeriarik onartu, ez ETArenik ez Estatuaren bidegabekeriarik. Giza eskubide guztiak pertsona guztientzat dira, bizitzarako eskubidetik hasita. Balio hau zaindu, sendotu eta zindotu beharra daukagu gutako bakoitzaren baitan, eta baita ere gure elkarte eta herrietan. Ez baita libre bakea urratzea eta sufrimendua ereitea inoren bizitzan eta inongo herritan. Batu gaitezen printzipio honen inguruan.

Aldi berean, giza duintasunak badu beste alderdi bat ere: justizia sozialarena. Krisi ekonomikoak astintzen gaituen honetan, Debagoienean badugu bide bat berezi-berezia, enpresan eta lanean aritzeko molde propio bat, hemen sortu eta garatua: kooperatiben moldea; sortzez dute kooperatibek ahulenari eta zailtasunean dabilenari laguntzeko betebeharra. Gizakia eta gizartea bera ulertzeko modu bat da hori, ekonomiaren esparrura eramana. Kontua da gizakia jartzea erdigunean.

Baina aurreraxeago aipatu dugu beste gauza bat: gizakiak ez gara izaki isolatuak. Gizartekoak gara, izaki sozialak. Guk ere lur bat behar dugu bizitzeko eta hazteko, elkarte bat eta herri bat. Hemen aurkitzen dugu beste printzipio bat: ezin ditugu banatu norbanakoaren giza eskubideak eta eskubide kolektiboak, azken hauen baitan garatzen baitira aurrenekoak. 171 urteko gatazka politikoa konpontzeko giltza izateaz gain, Euskal Herria arlo guztietan eraikitzen jarraitzeko motorra da erabakitzeko eskubidea.

Motor horrek iturri batetik hartzen du indarra: euskal nortasunetik, bakarra eta berezia nahiz dinamikoa eta bizia. Gure identitatea ez da ezerezetik eratu. Mendez mendeko demokraziaren eta burujabetzaren ariketan ondutako identitatea da gurea. Gure erabakien jabe izateak arrastoa utzi du Euskal Herriaren nortasunean eta Euskadiren egitasmo politikoan. Gure historiaren eta eskubideen oroimen bizia da. Demokrazia da gure etorkizuna erabakitzeko eskubidearen taupada eta taupada hori herrian sendotzen ahaleginduko gara Batu Gaitezen ekimeneko gizon-emakumeok Arrasatetik hasi eta Oñatiraino, Bergaran barrena eta Antzuola, Aretxabaleta, Elgeta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga alderik alde igaroz.

Ez gaitzala inork engaina: Euskadik bere herri-eskubideen eta askatasunaren alde urrats bat egin nahi izan duen aldioro, bat egin dute indar espainolistek. 1930eko hamarkadan hala egin zuten eta orduan ez zen ETArik. Eta hala egingo dute hurrengoan ere, ETAk su-etena emango balu ere, Euskadi Estatu auzia baita Alderdi Sozialistarentzat eta Alderdi Popularrarentzat, menperatu beharreko herria. Bada, abertzaleontzat, nazio auzia da eta aurre egin behar diogu gure herria ukatzera eta gure aurrerapena gelditzera datorren orori.

Guk jarrita daukagu gure GPSaren norabidea: Debagoienarekiko konpromisoa eta Gipuzkoaren aurrerapena da gure ibilbidea eta gure helmuga, Euskadi bere buruaren jabe izatera eramatea. Horretarako, Debagoienean ere batu gaitezen.

Aretxabaletako Udalaren adierazpen instituzionala

Inaxio Garro, Lore Martinez, Arritxu Oliden, Tomas Fernandez eta Ainhoa Sagarribai
(Aralar, EA, EAJ, Ezker Batua-Berdeak eta PSE-EE alderdien izenean)
Aretxabaleta

Egunotan Aaiunetik heldu zaizkigun zoritxarreko berrien eraginez, Aretxabaletako Udalak ondoko adierazpen instituzionala adostu du:

1-Aretxabaletako Udalak kondenatu egiten ditu Marokoko Gobernuak saharar populazioaren kontra egindako indarkeria-ekintzak, eta elkartasuna eta babesa adierazten die saharar errei. Marokoko Armadak Aaiuneko zibilen kanpalekuen kontrako eraso militar bortitzak eragindako saharar zibilen hilketa gaitzetsi egiten du eta elkartasuna adierazten die eraso horren biktimei eta beren senideei.

2-Saharako Gdein Izik kanpalekuan bizi den egoera ezagutzeko asmoz Aaiunera bidaia solidarioa egiteko asmoa zuen Aretxabaletako herritar Olaia Sagredo eta beste hiru euskal herritar Casablancako aireportuan erretenitu izana salatzen du, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Espainiako Gobernuari azalpenak eska diezazkiola.

3-Era berean, Espainiako Estatuari exijitzen dio har dezala behingoz nazioarteko legediak bere gain jarrita duen erantzukizuna, eta Saharako herriaren eskaera zilegiei babesa eman diezaiela, Fronte Polisarioaren onarpenetik hasita.

4-Nazio Batuen Elkarteari eskatzen dio hartutako konpromisoa bete dezala eta antola dezala Saharako herriaren autodeterminaziorako erreferenduma berehala. Halaber, Marokok Mendebaldeko Saharan autodeterminazio-erreferenduma egitea oztopatzen jarraitzen badu, NBEri eskatzen dio neurri ekonomiko eta diplomatikoak har ditzala Marokoren kontra, harik eta erreferenduma gauzatzen den arte.

5-Aretxabaletako Udalak, Saharako herriari gure elkartasuna adierazteko eta Marokoko erreinuaren jarreraren kontrako jarrera adierazteko, Saharako bandera jarriko du udaletxeko balkoian eta Marokok Gdein Izik kanpamentuaren kontra egindako erasoan izandako hildakoei, zaurituei eta euren senideei elkartasuna adierazteko, xingola beltza jarriko dio Saharako banderari.

Gaitzespen gogorrena Bergarako San Joxepe elkarteko zuzendaritzari

Itziar Usandizaga, Izaskun Jimeno eta Isabel Egibar
Bergara

Euskal Herriko jubilatu eta pentsiodunek eta adin nagusiko beste hainbat taldek plataforma bat sortu dute Pentsio Erreformari EZ esateko. Gobernu Espainolak pobrezia gorrira bultzatzen gaitu. Estatistikek diote 300.000 pentsiodun txirotasunean bizi direla eta beste hainbeste hilaren azkenera iritsi ezinik dabiltzala. Eta orain, 2011rako pentsioak izoztu, zerbitzu sozialak murriztu, egoitzak pribatizatu, etab. Egoera honen aurrean plataformak honako aldarrikapenak egiten ditu: soldata duinak, kopagoari ez, zahar-etxe publiko gehiago, alarguntasun pentsioa %70ekoa (Toledoko itunean onartuta), osasungintza integralaren eskubidea, etab. Laburbilduta, zahartzaroan baldintza duinetan bizitzeko eskubidea.

Pentsioen Erreformari aurre egiteko urriaren 29ko manifarako deia zabaldu nahi zen elkarteko tableroan jarriaz bertakoek ikusi zezaten. Baina batzordekoek ezeko borobila eman ziguten.

Hemen dator gure harridura, ez dugu ulertzen nola debekatu daitekeen txosten informatiboak ipintzea hainbat murrizketa datozela ikusirik eta zuek ordezkatzen duzuen kolektibo osoari zuzenean eragingo diola.

Samin handiz hartu dugu zuen ezezko erabakia, zuen sentsibilitaterik ezak, jakinda gu ere bertako bazkide garela, eta oso jarrera insolidarioarekin aurkitu gara.

Aurrerantzean tokitxo bat egingo diozuelakoan adierazpen askatasunari agurtzen gara.

IV. Truke Programa

Iñigo Iñurrategi eta Jon Lezeta
(Garabide elkartea)
Eskoriatza

Abian da hizkuntza eta herrien arteko IV. Truke Programa. Berriz ere gurean, Debagoienean, harrera egingo diegu Hego eta Ertamerikako zenbait hizkuntz komunitate indigenatako ordezkariei. Aymara, kitxua, maya popti eta maya pogomchi hizkuntzen oihartzuna entzun ahal izango dugu bailaran. Eta Euskal Herri osoan. Gurean euskararen berreskurapenean egindako eta egiteko dagoen lana erakutsiko diegu hurrengo 15 egunetan. Bertatik bertara Euskal Herriko errealitate soziolingusitikoa, euskalgintzak sortutako egitura eta erakundeak, hizkuntz normalkuntzarako garatutako eduki, erreminta eta abarrak erakutsiko dizkiegu. Eta beraiek beraien errealitatea hizkuntza komunitate gisa eta herri gisa erakutsiko digute. Asko baitaukagu elkarri erakusteko.

Gai zehatz bat lantzeko asmoa daukagu: hizkuntza gutxituen estandarizazioa eta hizkuntza akademien eta corpusaren garapena. Izan ere, hizkuntza indigenen erronka nagusietako bat, bizirik iraun behar badute, egun dituzten komunikazio beharretara egokitzea da, eta horretarako ezinbestekoa dute hizkuntza estandarizatu eta beharrezkoa den corpusa garatzea. Aymarak, kitxuak, maputxeak, mayak… milioika hiztun dituzten hizkuntzak, eta euskara orain 40 egon zitekeen egoera antzerakoan daude. Bide bat egin dugu 40 urtetan eta horixe erakuts geniezaieke: bide horren esperientzia. Beraiek beraien bidea asmatzeko eredu lagungarria. Aukera ezin hobea izango dute garai bateko protagonista zuzenekin eta egungo adituekin hitz egiteko eta hobeto ulertzeko zein izan den euskarak bere estandarizazio prozesuan jarraitu duen bidea, zeintzuk oztopoak, eta nola ari garen erronka berriei aurre egin nahian.

Horretan ari da azken lau urteotan Eskoriatzan kokatuta dagoen Garabide Elkartea, euskararen esperientzia munduko herri indigenekin konpartitzen. Horretan dihardugu lanean eta horretan dugu ilusioa. Eta hori posible egiten duzuelako, mezu honen bitartez eskerrak eman nahi dizkizuegu bereziki bailaran gure proiektuetan laguntzen diguzuen udal erakunde, unibertsitate, kooperatiba, ikastola, euskalgintzako erakunde eta herritarroi. Eta herri indigenei, euskarari beste garabide bat eskaintzen diozuelako.

Iñaki Esparza, Bergarako UNEDen egoitza den Errege Mintegiaren aurrealdean. | ENEKO AZKARATE

Iñaki Esparza | Bergarako UNEDeko zuzendaria

"Jakingura, kultura edo formazio nahia asetzeko datoz gehienbat UNEDera ikastera"

- Urria ezkero da UNEDeko zuzendaria, 14 urte egon den Juanjo Alvarezen ordez
- Azaroaren 26an irekiko du ikasturtea ofizialki Pedro Miguel Etxenike fisikariak

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Iñaki Esparza (Bilbo, 48 urte) da urria ezkero Bergarako UNEDeko zuzendaria, 14 urtez karguan egon den Juanjo Alvarezen ordez. Iruñean hezi eta hazitakoa, gaur egun Donostian bizi da. Zuzenbide Fakultatean ere badihardu, EHUn, Donostian.

14 urte eman ditu karguan Juanjo Alvarezek. Beste horrenbeste egoteko asmoarekin zatoz?

Izendapenak lau urterako dira eta agintaldia amaitzeko gogotsu nago. Epe hori beteta ostean, ikusi egin behar...

Ze ezaugarri dute gaur egungo UNEDeko ikasleek?

Presentziazko unibertsitateekin alderatuta, adin handiagokoak dira: 25 eta 55 urte bitartekoak. Bestalde, sexua eta jatorria aztertuz gero, oreka azpimarratuko nuke. Emakumezko zein gizonezkoak proportzio antzekoan dabiltza eta lurraldeen artean ere oreka ematen da. Izan ere, Arabako edo Bizkaiko mugako herrietatik gehiago datoz, Bergaratik gertuago daudelako. Bestalde, UNEDera datoz, sarritan, bizitza antolatua dutenak. Lana edo ardura nagusi bat badutenak. Hau da, ikasketak ez dituzte egiten lan bat bilatzeko. Gure ikasleen profila ezberdina da. Jakingura, kultura edo formazio nahia asetzeko datoz gehienbat UNEDera ikastera.

Urrutiko unibertsitateengatik izango ez balitz, UNEDeko ikasleek ezingo lukete unibertsitateko ikasketarik egin?

Ez daukat zalantzarik. Baliabide telematikoak izan arren eta gaur egun ikasteko beste aukera batzuk egon arren, ikasteak denbora eskatzen du, eta, ez balego UNEDek ematen duen aukera, asko geratuko lirateke bizitza proiektua bukatzeke.

Aukera ona da unibertsitateko ikasketak egiteko.

Bai, eta matrikulazioaren aldetik ikusten da joera hori; izan ere, eutsi egin diogu azkeneko urteotan matrikulazio kopuruari. Azpimarratzekoa da, gainera, azken urtean UNEDen hazi egin dela matrikulazio kopurua %20-24. Argi geratzen da hor badagoela premia bat eta beharrezkoa dela UNED edo antzeko zerbait.

"Izendapena lau urterako da eta oso gogotsu nago proiektu honekin"

"UNEDera datoz, sarritan, lanbide bat eta bizitza antolatua dutenak"

Hezkuntza metodo edo eskaintzaren egokitzapena behar-beharrezkoa da?

Bai, hezkuntza eta unibertsitate sare osoak duen premia da. Erronka berbera daukagu unibertsitate guztiok. Europara egokitu beharra daukagu. Horrek eskatzen du lana, etengabeko hobekuntza.

UNEDek noiz amaituko du egokitzapen hori?

Unitate akademikoak hartu behar dira aintzat, eta, graduak lau urtekoak direla kontuan izanda, lau urte igaro ostean, lehenengo belaunaldiak egingo du, gutxienez, Europarako egokitzapena. Orduan aterako ditugu ondorioak.

Espazio eta ekipamenduak hobetzen zabiltzate Errege Mintegian.

Bai. Udan hasi genituen lanak eta aurreikusitako moduan doaz, epeak betetzen ari dira. Teilatu eta teilatupe berria egin dugu, fatxada nagusiak berriztatu egin ditugu, leihoak aldatu... Kanpotik, eraikinaren itxura asko hobetu da eta barrutik bagabiltza egokitzapen eta berriztatze lanak egiten. Urte askoan ez da honen moduko inbertsiorik egin. Beharrezkoa zuen.

Noizko amaituko dituzue?

Abendurako. Espazio komunak, gutxi gorabehera, eginda daude eta orain falta zaigu jartzea igogailua eta komun guztiak egokitzea. Horrekin bukatuko genituzke lanak. Baina, obrekin, espazio berriak sortu dira; esate baterako, teilatupean ehunka metro koadro, argi onarekin... Horri ere eman beharko diogu irtenbidea eta erabilpena, baina aurrerago.

Bergaran gori-gori dago permutaren kontua: UNED Arrizuriagara eroateko asmo hori zertan da?

Erabaki bat hartu zuen Patronatuak joan den apirilean: urtebetez luzatzea behin betiko erabakia. Erabakia hartu bitartean gauzak ez dira aldatuko eta itxoin egin beharko dugu. Hartzen den erabakia gustura hartuko dut. Bestalde, esan behar dut Arrizuriagako proiektua ikusi dudala, paperean, eta oso polita iruditu zaidala. Ikusi nuenena liluratuta geratu nintzen. Eta, era berean, esan behar dut obra hauekin Bergarako Errege Mintegia oso dotore geratu dela. Bi aukerak, espazioaren aldetik, aukera onak dira.

"UNEDen hazi egin da matrikulazio kopurua %20-24 inguru"

"Urte askoan ez da honen moduko inbertsiorik egin; beharrezkoa zen"

Zein da Bergarako UNEDen eskaintza?

Eskaintza oso zabala daukagu. Presentziazko unibertsitateak eskaintza klasikoa edo ohikoa du. UNED ezberdina da tokiz toki eta Bergarako zentroak badauka berezitasunik. Bere eskaintza propioa. Gauza asko eta oso ezberdinak. Esaterako, Kutxak daukan Gizartekintzak bultzatuta egiten dira *Kutxazabal* eta *Aulas Kutxa* programak. Askotarikoak. Jende askok hartzen du parte hor. Bestalde, *Cuid* programa ere badaukagu, hizkuntzak ikasteko aukera ematen duena.

Urriaren 22an amaitu zen matrikulazio epea. Ze datu dituzue?

Bergarako zentroan gora egin du apur bat matrikulazioak eta oso modu orekatuan, gainera; hau da, ikasgai guztietan gertatu da igoera, oso handia ez izan arren. 3.000 ikasle inguru dauzkagu.

Azaroaren 26an egingo duzue ikasturte hasiera ekitaldia, ezta?

Bergarako udaletxean izango da, 19:00etan hasita. Pedro Miguel Etxenike fisikaria etorriko da inaugurazio berbaldia egitera; hori guretako ohore handia da.

10 GOIENA

10 urte zuen hitzekin asetzen
komunikazioan
egindako bideagatik



zorionak!
goiena

GIPUZKOA
zurekin, aurrera

DUELA 10 URTE

2000-10-05

New Yorkeko maratoian

Hiru bergararrek hartu zuten parte New Yorkeko maratoian azaroaren 5ean. Hain justu ere, Mikel Larrañagak, Julen Narbaitzak eta Aitor Erañak. 32.000 lagun aritu iren eta hiru bergararrek lasterketa amaitu zuten, eragozpen barik. Aitor Eraña 865. tokian heldu zen helmugara (3 ordu, 4 minutu eta 47 segundo), Julen Narbaitza 9.137. postuan (03:58:40) eta Mikel Larrañaga 9.996. postuan (04:01:27).

Maratoiko hiru bergararrak. | ARTXIBOA

2000-10-08

Bainuetxeko lehen harria

Egokitzapen lanak egin ostean, azaroan jarri zuten Aretxabaletako bainuetxeko lehen harria. Euskal erakundeetako hainbat ordezkari izan ziren inaugurazio ekitaldian; Sprilurkoak eta bailarakoak, esaterako. 2001erako aurreikusi zuten amaituta egotea lanak. Guztira, 15.000 metro koadroko lursaila. Bainuetxeko Industrialdeak jarraipena eman zion 1982. urtean sortutako Basabekoari. 2000. urtean, 70 enpresa eta 700 lanpostu zituen.

DUELA 5 URTE

2005-10-07

Aldaketak kultura etxean

Arrasateko kultura etxea egiteko lanei berriro ekin zieten, geldialdi baten ostean. Udaleko osoko bilkurak onartu zuen proiektuaren bigarren aldaketa: argizuloa egitea eta komentuaren beste zati bat erostea. EAJ, EA, EB eta Aralarren botoekin atera zen aurrera. Oposizioak "irregulartasunak" salatu zituen.

HERRITARRAK

Patxi Montero | Dantza irakaslea

"Ez da berdina tolosar batek senti dezakeena edo guk senti dezakeguna"

Mila saltsatan ibilia da Patxi Montero: kazetaritzan, nekazaritzan, irakaskuntzan, pertsonak dinamizatzen... Orain, dantzetan

Patxi Montero, Elgetan, oraingo astean. | JULIO CALLEJA

ENEKO AZKARATE | ELGETA

Patxi Montero (Irun, 1966) sei urte zituela etorri zen familiarekin batera Arrasatera bizi izatera, aita Mondragon Taldera lanera etorrita. Haurtzaro, nerabezaro eta gaztaroa Arrasaten eman zituen. 14 urte daroatza Elgetan bizitzen. Atarrabian egin zituen Peritu Agronomo ikasketak.

Irundarra, arrasatearra, elgetarra?

Galdera zeinek, noiz eta non egiten didan, horren arabera erantzuten dut bata edo bestea. Argi dagoena da gipuzkoarra ni naizela.

Mugan bizitzeak markatzen du?

Bai. Perspektiba ematen du. Irunen, esaterako, oso ohituta gaude Iparraldekoekin, Hendaiakoekin-eta, harremanak izaten, elkarren artean nahasten. Berdin Arrasaten, Arabakoekin eta Elgetan Bizkaikoekin. Ez da berdina tolosar batek senti dezakeena edo guk senti dezakeguna.

Elgetan bizi zara eta bertan diharduzu lanean.

Bai. Herritarren parte-hartzea bultzatzeko ekimena da *Elgeta danon artian* eta hori dinamizatzen dihardut azkeneko hilabeteotan.

Euskal Herriko nekazaritza ekologikoaren elkartean jardun duzu...

8 urte eman nituen. Gustura. Nire lanik luzeena izan da. 2004an erabaki nuen hura uztea eta neure proiektuetan ibili naiz urte batzuk. Irungo familia-etxea berritzen ibili nintzen eta, gero, Extremaduran egon nintzen urte eta erdi, beste proiektu baten; gizatasun, giza balio, elkarbizitza eta horrelakoetan diharduen fundazio baten. Oso une gozagarri eta intentsuak bizi izan nituen han, baina 2008ko neguan itzultzeko herrimin atake gogorrarekin.

Eta ondoren etorri ziren dantzak. Bat-batean?

Ez. Dantzekin aspaldian nenbilen. Izan ere, Irunen eta Extremaduran egon nintzen aroan, hilero etortzen nintzen dantza eskolak ematera. Egubakoitzetik zapatura bitartean. Eta astelehenean buelta.

Zer eman dizu dantzak?

Dena. Nire zaletasunik garrantzitsuenetakoa izan da urte askoan, eta, azkenaldian, ofizio ere bihurtu da.

Nondik datorkizu dantzarekiko zaletasun hori?

Heldutan hasi naiz dantzetan, nahiz eta txikitatik gustatu izan zaizkidan. Amak musika eskolan apuntatu ninduen, baina lagunak nituen Arrasateko Lore Gazteak taldean.

"Jendea, herritarrak, plazetan dantzan jartzea gura dut"

"Makrobiotikari esker, askoz ere indartsuago nago, ez dut gaixotasunik izan azkenaldian"

Zelan hasi zinen?

Dantza ikastaroetan: saltsa, funka, klaketa... Geroago deskubritu nituen dantza tradizionalak eta beste estilo guztiak alde batera utzi nituen.

Europako dantza tradizionaletatik hemengoetara.

Dantzan Ikasi programan dihardut; Bilbo Musikan ikasten dut Patxi Labordarekin; Laguntasuna Kultura Elkarteak antolatutako haur folklore ikastaroan ere dihardut...

Ikasi eta erakutsi.

Euskal Herriko plazako dantza tradizionalak erakusten ditut Arrasaten, Bergaran, Zaldibarren, Eskoriatzan, Eibarren, Elgetan... Jendea, herritarrak, dantzan jartzea gura dut. Errekuperatzen dihardut Euskal Herriko folkloreko edo tradizioko dantzak, musikak lortzen ditut... Baina Europako beste dantza batzuk ere erakusten ditut, Europako 500 bat dantza dakizkit-eta.

Elikaduraz arduratu izan zara beti.

Nekazaritza ikasketak egiteak horrekin dauka lotura. 20 urterekin ere barazkijale bihurtzea.

Makrobiotikoa ere bazara.

Bai. Askoz ere indartsuago nago, ez dut gaixotasunik izan, ez dakit gripea zer den azkeneko urteotan.

Kazetaritza?

Interesatzen zait, gustuko dut, baina...

Baina?

Ofizio polita da, baina egin beharrak, obligazioak, orri bat, saio bat betetzearen premiak, bihurtzen du oso bortitz, errespetu bako, presazko... Eta hori ez dut gustuko.

NIRE HERRIAN

HERRI TXIKIAREN LASAITASUNA

"Elgetan bizi naiz eta ez dut faltan sumatzen Arrasate. Aramaio edo Leintz Gatzagara begira nengoen Arrasaten bizi nintzenean, baina Elgetan hasi nintzen bizitzen herri txikia zelako eta aurkitu nuen etxea polita. Herri txikiak gustatzen zaizkit. Pertsonaren neurrikoagoak dira. Akaso, Elgeta handi samarra da niretako".

AZKARREGI IBILTZEA

"Arrasatera edo Bergarara jaisten naizen bakoitzean, ikusten dut hango erritmoa eta esaten diot neure buruari: "Zoratuta daude!". Elgetako erritmoa gurago dut, lasaiagoa da. Herri handi edo hiriak gogorrak dira. Harremanak alineatu egiten dira. Ez dut gustuko azkarregi bizitze hori: autoan hara eta hona, oinez ere azkar...".

HERRIAK

Bisitariek artisauen lana gertutik ikusteko aukera daukate, iazko San Milixan ferian ateratako argazki horretan ikusten denez. | JOSETXO ARANTZABAL

DATUA

15

ESKULANGILE

Euskal Herriko 15 eskulangile, nor bere postuarekin, izango dira aurtengo erakusketan.

LEINTZ GATZAGA

San Milixanak, ate joka

- Eskulangileen eta gatzaren festa eguna ospatuko dute Gatzagan
- Eskoriatza–Gatzaga autobusa ibiliko da etengabe, eta Udalak dei egiten du autoa Eskoriatzan utzi eta autobusez igotzeko
- Irameta bat egingo dute lau herritarrek plazan, antzinako erara

LEIRE KORTABARRIA | LEINTZ GATZAGA

San Milixanak, beste behin, artisautzaren, gatzaren eta lanbide tradizionalen ospakizuna izango dira etzi, domeka, Leintz Gatzagan. Eskulangintza feriak 18. aldia du aurten, eta Euskal Herriko 15 artisau etorriko dira, nork bere lana erakustera. Pilotalekuan egingo dute, hura obretan egon arren; ingurua txukun utzi dute eta ohiko artisau kopurua izango da.

Bisitariak ere urtero adina espero dituzte Gatzagan; horrekin pentsatuta, dei egiten du Udalak jendeak autoa Eskoriatzan utzi eta handik autobusa har dezan. Etengabe ibiliko da autobusa Eskoriatza eta Gatzaga artean, 10:00etatik 14:00etara. Eskoriatzan, erdialdean eta goian geldituko da, eta Gatzagan, geltokian.

Arrasateko eskulangile bat

Domekan, hiru motatako eskaintza egongo da Gatzagan: batetik, eskulangintza feria izango da, honako postuekin: egurrezko jostailuak (Gasteiz), serigrafia (Tolosa), beira (Pasai Antxo), harriak (Aduna), xaboi naturala (Zegama), zeramika eta grabatuak (Arrasateko Imanol Aranbururena; bailarako bakarra), zeramika (Gasteiz), egur taila (Deba), bitxiak (Donostia), larrua (Agurain), zapatak (Iruñea), fundizioa (Gasteiz), bitxigintza polimerikoa (Hernani), papera (Errenteria) eta pilotak (Azkoitia).

Hori osatzeko, herri-tailerra izango da Pilar kalean. Aurten, Angiozarko Elexamendi etxeko Igor Hertzek larrua lantzeko tailertxo bat gidatuko du umeendako. "Samur lantzeko gauzak erakutsiko dizkiet: eskumuturreko trokelatuak, euren izenarekin edo marrazki polit batzuekin", esaten du Hertzek.

Eta, ohi bezala ere, kultura etxean erakusketa bat egongo da: aurten, Durangoko Zamua tailerrekoek euskal oihalen erakusketa ipiniko dute.

Hiru gurdikada ira

Egun horretarako erakustaldi bat antolatzen dute gatzagarrek, urtero gai bat hartuta. Bada, aurten, irameta egingo dute, lehengo erara. Irak Eugenio Otsoa gatz museoko lokal ondoan pilatu dituzte, eta idiek tiratutako gurdi baten joango dira haien bila; gero, Herriko Plazara eramango dituzte eta hantxe egingo dute irameta. Ibon Oñederra zinegotziak eman digu azalpen gehiago: "Uste dugu hiru bidaia edo jornada egin beharko dugula ira guztiak plazaraino eramateko. Lau lagun ibiliko gara, bi joan -etorrian eta beste bi metagintzan".

Lan horretan azoka ireki eta gutxira hasiko dira. Lehengo erara lan egin eta lehengo erara jantzita joango dira laurok.

Asmoa da irameta Gabonak arte uztea dagoenetan, Herriko Plazan. Oñederraren esanetan, meta errespetatuz gero, "ondo" eusten dio zutik, eguraldi txarra eginda ere.

Zezinaren gaineko erakusketa

Gatza izango da beste erakarpena. Gatz museoko arduradun Aitziber Gorosabelek hainbat ekintza antolatu ditu; besteak beste, gatzartua edo zezina zelan egiten den, horretarako sasoi onena zein den eta beste gauza batzuk azalduko ditu. Arruntena ardi-gatzartua da, baina beste jateko batzuk gatzunetan zelan ipintzen ziren ikusteko modua izango dute bisitariek: zezina, urdaiazpikoak, txerri hankak, belarriak, sardina zaharrak, antxoatxoak...

Eta aparteko bisitariak izango dituzte museoan: Gesaltza Añanako gatzagetako ordezkariak. Gatzagarrak dagoeneko izan dira Araban eta orain bisita itzuliko diete. Gatz larrainen gaineko argibideak eman eta gatza jarriko dute salgai.

Gatz museoan dorla erabiliko dute. | JOSETXO ARANTZABAL

Gatza zelan egiten zen erakutsiko dute

Gatz museoak doako sarrera izango du domeka osoan. Han, Aitziber Gorosabelek erakutsiko du sasoi baten gatza nola egiten zen, kobrezko dorlan. Sua piztuko dute, eta bisitariak pilatzen direnean hasiko dira prozesua azaltzen.

Gatza eta elikagaien kontserbazioaren gaia ere jorratuko da, eta hainbat jateko gatzunetan nola ipintzen ziren ikusteko aukera izango da.

Bien bitartean, umeek gatzarekin esperimentuak eta hainbat jolas egiteko tartea izango dute.

"Ulertarazi behar da ez dagoela etorkinendako araudi berezirik"

Geroago eta zabalduago dago etorkinei bertakoei baino errazago ematen dizkietela Gizarte Zerbitzuetako laguntzak, eta ez da horrela

UBANE MADERA | ARRASATE

"Babestutako etxebizitza gehienak etorkinei ematen dizkiete"; "Udalaren laguntzak ere etorkinendako izaten dira gehienak eta, gainera, errazago eskuratzen dituzte"; "Gutxieneko soldata lau paper beteta ematen diete"; "Urte mordoan lanean ibili dena langabezian geratuz gero, etorkinek baino laguntza gutxiago izango luke". Gero eta sarriago entzuten dira halakoak kalean, eta komentatzen dira gure etxeetan; orain, akaso, gehiago, krisiaren eraginez.

Bada, hori ez da horrela. "Hasteko, Udalak ez du etxebizitzarik ematen, etxebizitzarik ez dauka -eta. Egiten duena da alokairurako edo erosi izan bada, etxebizitza gastuen zati bat ordaintzeko laguntzak kudeatu. Eta laguntza horiek eskuratzeko eskubidea du EAEko edozein herritarrek, berdin da Arrasaten jaiotakoa edo beste lurralde batean jaiotakoa izan. Baldintzak betetzen baditu, laguntza ekonomiko horiek jasotzeko eskubidea du", azaldu du Iñigo Garitanok, Arrasateko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako teknikari-buruak.

Etxeak Etxebizitza Sailetik

"Etxebizitza gastuetarako, oinarrizko errenta jasotzen duten pertsonek eta aldi berean etxeko alokairuko gastua dutenek Aldunditik jasotzen dituzte laguntzak, Udalek kudeatuta. Laguntza ordaindu behar den edo ez eta ordainketa Aldunditik bideratzen da. Udaletik bideratzen diren laguntzak gizarte larrialdietarakoak dira. Eta, esandako moduan, Udalak ez du etxebizitzarik ematen. Horretarako dago Etxebizitza Saila, Etxebide, eta zozketa bidez ematen dituzte etxeok. Udalek arlo horretan ez dugu konpetentziarik", gaineratu du.

Edozeinek eska ditzake

"Gizarte Zerbitzuetan egiten dena da araututako dirulaguntzak kudeatu, eta 2010etik aurrera, gizarte larrialdietarako laguntzak (AES-ak) dira kudeatzen ditugunak. Kasu horretan, edozein pertsonak, bizikidetzako edo konbibentzia unitate batean bizi denetik eta beste betebehar guztiak betetzen baditu, eskubidea dauka eskatzeko, nahiz eta, adibidez, haren familia osoa Arrasaten bizi izan. Etxebizitzekin lotuta, berriz, Udalak duena da larrialdi egoeretarako etxebizitza. Tarte jakin baterako ostatua ematen zaie larrialdi egoera jakin batzuetan daudenei. Gehienez, sei hilabeterako gela ematen zaie. Lagapen probisionala da.Arrasaten egoera horretan dauden sei pertsonarendako plazak daude", azaldu du Garitanok.

Etorkin bi autobusaren zain, Otalora Lizentziaduna kalean. | UBANE MADERA

Araudi berezirik ez

Bukatzeko, Gizarte Zerbitzuetako arduradunak hauxe ere gaineratu du: "Ulertarazi behar da ez dagoela araudi berezirik etorkinendako, ez dago haiendako programa berezirik. Arrasaten iaz erroldatutakoen %3,4 dira etorkinak; gerta daiteke %3,4 horien artean zati handi batek eskatzea laguntzak, bertakoak baino pobreago direlako... Baina bertako bat etorriz gero egoera ekonomiko berean, karga familiar berarekin, laguntza berak jasoko ditu. Azkenaldian ikusten da orain arte etorri ez den bertako jendea etorri dela: gazteak, helduak eta pentsiodunak.

Eta esan beharra dago, baita ere, atzerritar gehienak lanera datozela, ez laguntza publikoen kontura bizi izatera. Euren helburua lan egitea da. Eta prest daude, gainera, ordutegirik txarrenak hartzeko eta lanean ordu piloa sartzeko. Egon daitezke datu faltsuak-eta ematen dituztenak, baina hemengoak ere bai, eta esango nuke hori ez dela esanguratsua".

Laguntzak eskatzeko baldintzak

Sei baldintza bete behar dira gizarte larrialdietarako laguntzak eskatzeko: bizikidetza unitatea osatzea; laguntzak eskatzen diren udalerrian erroldatuta izatea eskaera aurkeztu baino urtebete lehenago gutxienez; nahiko baliabide ez izatea (oinarrizko errenta baino sarrera gutxiago izatea hilean); 23 urte baino gehiago izatea (18 urtetik gora dituztenak eta behar bereziak dituztenak ere onartzen dituzte); fondo publikoekin finantzatutako bestelako prestaziorik ez jasotzea; eta lanagatik diru sarrerak izanez gero, ez egotea lan jardun erdira (edo antzerako egoeran), salbuespenak salbuespen.

NIRE USTEZ

ANDER ETXEBERRIA

Txiletik Arrasatera

Hasita daude Txileko 33 meatzariak munduan zehar hitzaldiak ematen. Atakamako zuloan bizitako gorabeherek emango diete lidergoaz, fisiologiaz, fedeaz edo teknologiaz jarduteko aukera.

Andeetan 1972an gertatutako hegazkin istripuan bizirik irtendakoak ere hemendik hara dabiltza, oraindik ere, beraien esperientzia kontatzen. Gurean ere izan zen haietako bat, Gustavo Zerbino, 2007ko azaroan Arizmendi Topaketetan.

Ezaguna da Andeetako tragedia hura: hegazkin batek mendikatearen kontra jo zuen eta onik irtendako lagunak hilabete bi geratu ziren, zero azpiko tenperaturez, fuselaje artean. Azkenean haietako batzuk laguntza bilatzera abiatu ziren eta lortu zuten erreskatea. Jakina da ere zer egin zuten goseak ez akabatzeko, baina Zerbinok esandakotik ondokoa iruditu zitzaidan altxorra: bizimodu gorri hartan debekatu egin zuten ezinezko desioak aipatzea ("ai, berogailu bat izango bagenu...", "ai, beste leku batean erori izan bagina..."). Hara, estualdietan kontuan hartzeko formula bat.

Aurtengo Topaketetan Alberto Iñurrategi mendizaleak eman behar du hitzaldia *Elurpean daude erantzunak* izenburupean. Eta egunen batean, seguruenik urte asko itxaron gabe, jardunaldiren batera hurbilduko dira ere meatzariak eta izango dute perlarik gu guztiokin konpartitzeko.

"Txiletarrak ere etorriko dira egunen batean gurera"

Herriko erakundeetan, euskaraz lehen berba hamarretik seitan

2008ko euskarazko eskaintzaren emaitzak ezagutarazi ditu Klusterrak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Soziolinguistika Klusterrak Arrasateko euskarazko eskaintzaren gaineko neurketaren emaitzak jakinarazi ditu. Datuak 2008an jasotakoak dira eta datuon gaineko ondorioak ateratzeko orduan "kontu handia" izan behar dela adierazi zuen Pablo Suberbiola Klusterreko ordezkariak martitzeneko aurkezpenean. Izan ere, herriko 832 erakundetara –administrazio, enpresa, elkarte...– jo duten arren, neurtzeko metodologiak mugak ditu errealitatea bere horretan islatzeko orduan. Hala ere, zenbait datu esanguratsu eman zituzten. Honako datua, esaterako: Arrasateko edozein erakundetara jotzen duen arrasatearrak, oro har, hamarretik seitan lehen berba euskaraz jasotzen du. Hau da, indizea 0,61 zen 2008an –indizeak 0tik 1erako eskala hartzen du–. Bost urte lehenago, 2003an, 0,55 zen. Igoera txiki bat egon da, beraz.

Gainera, erakundeotan 0'58 zen eskaintza 2008an eta 0'54 2003an. Beraz, esan daiteke azken bost urteotan euskara eskaintzak igoera txiki bat izan duela. Erabilera neurtzeko eskaintza neurte behar dela azaldu zuten.



Pablo Suberbiola eta Nerea Zubia, neurketa aurkezten. | JOKIN BEREZIARTUA

Elgoibar eta Hernaniren parera

Beste herri batzuekin alderatuz, euskararen ezagutza, erabilera eta eskaintza kontuan hartuta, Arrasate Hernani eta Elgoibarren parera dago. Ezagutza %55ean, erabilera %30ean eta eskaintza 0,55eko indizean mugitzen da hiru herriotan –indizea eta ehunekoak batera daitezke, ideia bat egiteko–. Azpeitian, adibidez, ezagutza (%95) eta erabilera (%86) handiagoak dira; baina ez eskaintza, ordea (0,70eko indizea).

Jostailu truke merkaturako bilketa hilaren 24an hasiko dute; azoka abenduaren 19an izango da

J.B. | ARRASATE

Azaroaren 24an hasiko da Txatxilipurdi jostailu truke merkaturako jostailuak batzen. Arimazubin hasiko dute bilketa eta abenduaren 15era arte herriko auzoetan batuko dituzte erabilitako jostailuak, 17:30etik 19:00etara. Jostailu bakoitzeko txartel bana emango dute eta txartel hori erabili beharko da jostailu berriak jasotzeko.

Truke azokan parte hartu gura duenak egoera onean dauden jostailuak eraman beharko ditu, baina, hori bai, ez dituzte onartuko sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrerak erakusten dituzten jostailuak. Bestalde, panpinak eta garraioak, kopurua edozein izanda ere, txartel bakar baten truke aldatuko dituzte. Zazpigarrenez antolatu dute azoka eta aurten abenduaren 19an izango da, Okendoko ludotekan, 10:00etatik 14:00etara.

Jostailuak batzeko egunak

Lehen hitzordua da azaroaren 24an Arimazubin, beraz. Hurrengoak honakoak dira: azaroaren 25ean, Santa Marinako ludotekan; azaroaren 26an, Biterin; azaroaren 30ean, Okendoko ludotekan; abenduaren 1ean, Santa Marinako plazan; abenduaren 2an eta 13an Arimazubin; abenduaren 14an, Santa Marinako ludotekan eta abenduaren 15ean, Okendon. Ordutegia: 17:30etik 19:00etara.

OHARRAK

1957KO KINTOEN BAZKARIA

Arrasaten 1957an jaiotakoek bazkaria egingo dute bihar. Kajoi tabernan batuko dira, 13:30ean. 14:15ean autobusa hartuko dute Garibain, eta Santa Ana hotelean bazkaldu. Izena emateko Euskadiko Kutxako 0471068086 kontu korrontean sartu behar da dirua (60 euro). Kontaktua: 636 173 501.

INTXORTA 1937: ZUZENKETA

Azaroaren 8ko zenbakian, 36ko gerrako bi ekitalditan asteko eguna gaizki atera genuen. Azaroaren 18a eta abenduaren 2a, biak eguena, dira zuzenak.

ERDIKO KLINIKA

Podologoa

Erdiko kale 54 **Arrasate**
943 79 97 46

Bidebarrieta 48 **Eibar**
943 20 30 50

KIROPODOLOGIA
- Azazkalak moztu eta fresatu
- Haragian sartutako azazkalak (onikokriptosia)
- Mikosiak azazkaletan
- Gogortasunak, kailuak
- Papilomak, mikosiak oinetan
- Izerdi eta lehortasun arazoak

PODOPEDIATRIA

PODOGERIATRIA

KALZADOTERAPIA

KIROL PODOLOGIA

ARRISKU OINA
- Arazo baskularrak
- Arazo neurologikoak
- Oin diabetikoa

ESPLORAZIO BIOMEKANIKOA
Oinaren funtzioaren azterketa bere egoera guztietan. SEDESTAZIOA, ESTATIKA eta DINAMIKA

ORTOPODOLOGIA
Oinen alterazioen tratamendua, silikona eta plantilla bidez,

- Juaneteak
- Oin balgoa
- Oin planoa
- Oin kaboa
- Garra behatzetan
- Oin zanboa
- Haurren oin laxoa
- Behatzen deformazioak
- Espoloia, faszitia

Gure oinak zainduz , edozein momentutan nahi dugun lekura eramango gaituzte.

• ***Nerea Arregi*** elkargokide-zenb. 123
• ***Rosarito Rodríguez*** elkargokide-zenb. 125
• ***Amagoia Zubizarreta*** elkargokide-zenb. 122

Arrasate Hiriko azken saioan lau lagun izango dira liderraren akatsaren zain

Gaur, egubakoitza, jokatuko dute Arrasateko udaletxean saio erabakigarria

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Arrasate Hiria xake txapelketako seigarren jardunaldia –eta erabakigarria– jokatuko dute gaur, 19:00etan hasita, Arrasateko udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Eta erabakigarria dela diogu, bost xakelari daudelako garaikurra eskuratu eta txapela janzteko aukerekin.

Bost jardunaldi jokatu ostean, pronostikoak beteta garaipenerako faborito Alejandro Franco madrildarra dago sailkapenean lider, lau puntu batuta. Francok joan den astean heldu zion lehen postuari, David Astasioren kontra partida biribila eginda. Baina sailkapenak oraindik ezusterako aukerak ematen ditu, besteak beste, Francok Aretxabaletako Fran Miguel izango du-eta aurrean, txapeldun izateko beste hautagaietako bat.

Alejandro Francok –eskuman– ezin du gaur akatsik egin. | JOSETXO ARANTZABAL

Lau lagun, akatsaren zain

Azken jardunaldia erabakigarria dela diogu, lau lagun daude-eta 3,5 puntu batuta, madrildarraren akatsaren zain. Hasteko, Fran Miguel aretxabaletarra bera (FIDE maisua), baina sailkapenean ondoan daude, baita ere, Iñigo Argandoña (nazioarteko maisua), David Astasio (FIDE maisua) eta txapelketako ezuste Isidro Ruiz arrasatearra.

Argandoñak eta Astasiok elkarren kontra jokatuko dute, ausart, berdinketak ez dielako inongo aukerarik emango, baina euren partida jokatzearekin batera Francoren eta Miguelen arteko lehia gertutik zaindu beharko dute. Eurekin batera, Isidro Ruizek dituen aukera guztiak aprobetxatu nahi ditu Aitor Alkaide aretxabaletarraren kontra. Arrasatekoak gutxi du galtzeko, eta asko irabazteko, baina Alkaidek txapelketa ondo irabazteko aukera du, hiru puntu dituelako, eta Ruizen kontrako lehia baliatuko du sailkapenean aurrekoetara gerturatzeko. Hiru punturekin daude, baita ere, elkarren kontra jokatuko duten Igor Villalta eta Andoni Miguel. Eta, dagoeneko klasiko bilakatu den lehia izango dute Josu Tornayk eta Txema Hernandok.

Realeko zale Arrasate Txuri-Urdin taldeak bidaia antolatu du abendurako, Bartzelonara

X.U. | ARRASATE

Azken hiru denboraldietan bigarren mailako futbol zelaiak bisitatzen ibili ostean, lehen mailara itzulita Arrasate Txuri-Urdin taldeko ordezkariek ez dute zalantzarik izan, Camp Nou zelaira joan nahi dute.

Bidaia hori abenduko bigarren asteburuan izango da, eta edonork eman dezake izena, ez da taldeko kideendako bakarrik.

Abenduaren 11n edo 12an

Bartzelonak eta Realak abenduaren 11-12ko asteburuan jokatuko dute. Zehazteke dago eguna, Txapeldunen Ligaren gorabeheren zain egongo direlako. Edozelan ere, Arrasateko zaleek egubakoitz gauetik hasiko dute asteburuko plana: "Egubakoitz gauean irtengo gara Bartzelona aldera; bueno, zapatu goizaldean, 02:00 edo 03:00 inguruan. Batzuk lo apur bat egin ostean etorriko dira autobusera, baina egongo da kalean ibiltzeko aprobetxatuko duenik eta autobusera zuzen etorri. Izan ere, autobusean egongo da lo egiteko astia", adierazi digu, barrez, Monte tabernako Juan Carlos Davilak.

Antolatzaileen asmoa da zapatu goizean Codorniu etxeko upategiak bisitatzea, Bartzelonako hotel baten lo egitea, eta domekan partidura joatea. Bidaia osoa 170 euro izango da: "Eta jendea joan dadila lehenbailehen apuntatzen, 55 lagunendako tokia dago-eta autobusean. Izenematea Monte tabernan da.

Mikel Gonzalez. | DEPORTES.ORANGE.ES

ZALDIBAR

EMAITZAK

Dribling-Cipris	4-9
Iluntz-Steaua del Grifo	10-2
Dublin-McAwenDauen	5-5
Ekaitz-Cipris	2-5
Abokajarro-Portaboleiros	4-6
Dribling-Fuxxion	10-0
Fidel & Disc-Lasagabaster	2-5
Iriztu-Betrayer	4-2

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
01	Lasagabaster	9	3
02	Iriztu	9	3
03	McAwenDauen	7	3
04	Dribling	6	3
05	Cipris	6	3
06	Ekaitz	6	3
07	Portaboleiros	6	3
08	Iluntz	4	3
09	Betrayer	3	3
10	Abokajarro	3	3
11	Dublin	2	3
12	Fidel & Disc	0	3
13	Fuxxion	0	3
14	Steaua del Grifo	0	3

PARTIDUAK

Azaroak 13, Zapatua
10:00 Dribling - Betrayer / **Iluntz**
11:00 McAwenDauen - Iluntz / **Betrayer**
12:00 Iriztu - Fidel & Disc / **McAwen D.**
16:00 Cipris - Steaua del Grifo / **Ekaitz**
17:00 Fuxxion-Ekaitz / **Steaua del G.**

Azaroak 14, Domeka
11:30 Portaboleiros - Dublin / **Lasagab.**
12:30 Abokajarro-Lasagab. / **Portabol.**

Golez betetako jardunaldiaren ostean dator laugarrena

Joan den asteburuan errepaso polita eman zuten Iluntz eta Dribling taldeek, bi talde horiek hamarna gol sartu zizkieten-eta Steaua eta Fuxxion taldeei. Gainontzeko partiduetan nahiko parean egon ziren indarrak, baina norgehiagoka horietan, egurra.

Eta aipatzekoa da, baita ere, jardunaldi bikoitza izan zutenen artean Ciprisek biak irabazi zituela, lau puntu takada baten.

Ordaintzeko eskaera

Talde guztiek oraindik ez dute izenematea ordaindu; antolatzaileek asteburuan jasoko dute diru hori.

Ford Mugarrik Portugaleteren kontra jokatuko du bihar

Jardunaldiek aurrera egin ahala Ford Mugarri eskubaloi taldea aurreko postuetatik geroago eta gertuago dago, eta dagoeneko hirugarren da Corazonistasen eta El Pilarren atzetik.

Oraingo asteburuan, Edu Orgazen mutilek erdialdean dabilen Portugaleteren kontra jokatuko dute, Iturripen (zapatua, 16:30).

Errugbian, gazteek Ordizian eta kadeteek Durangon

Oraingo asteburuan senior mailako gizonezkoek eta emakumezkoek atsedena izango dute, eta gazte mailakoak eta kadeteak ibiliko dira lanean. Gazte mailakoek Ordizian jokatuko dute bihar (10:30), eta kadeteek etxean, baina oraingoan Durangoren zelaian. Durango/Arrasate taldeak Uribealdea izango du kontrario, bihar, 12:30ean.

Besaidek mendi irteera antolatu du azaroaren 28rako

Besaide mendi elkarteak gertu ditu azarorako irteerak. Batetik, Euskal Herriko Federazioak beteranoen martxa antolatu du azaroaren 14rako.

Azaroaren 28rako, berriz, Besaidek Betelutik Larraitzerako mendi zeharkaldia prestatu du. Izena emateko egunak izango dira hilaren 22a, 23a eta 24a (19:30-20:30).

Atletismoaren galan arrasatearrak protagonista

Gipuzkoako Atletismo Federazioak antolatutako galan Arrasateko ordezkariak protagonista izan ziren. Guztira herriko bost pertsonak jaso zuten saria Donostiako Amara Plaza hotelean –*Asteleheneko Goienkaria*-n argitaratu genuen–. Gainera, Arrasate Atletiko Taldea urteko klub onena izendatu zuten.

Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

arbolapeta
arrasate
beinke

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA
- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta ogopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.
Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

Ikusle guztiendako umorea dakar Los Modernos taldeak, 'Fo' antzezlanarekin

Domekan izango da, 19:30ean; sarrera hamar euro ordaindu beharko da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Los Modernos antzerki taldeak azken antzezlana aurkeztuko du domekan Amaia antzokian (19:30). *Fo* izenarekin bataiatu dute eta Dario Fo idazle eta antzerkigileak Literaturako Nobel Saria jaso zuenean esandakoak oinarri hartuta jarri diote izena obrari: "Helburua jendeak barre egitea da", adierazi zuen idazleak obraren gainean. Bada, *Fo* obrak helburu hori soberan betetzen du.

Ikusle guztiendako umorea

Obrak Fo izeneko filosofo bat du protagonista. Filosofoaren arau eta ereduek gai existentzial eta transzendetalak jorratzera eramango du Alejandro Orlando eta Pedro Paiva antzezle bikotea. Hala, gaiok jorratzerakoan egoera umoretsuekin aurkituko dira. Ikusle guztiondako umorea jorratu ohi du Los Modernos taldeak, umore adimentsutik urruti. Komediarako oso iaioak direla argi erakutsi dute euren ibilbidean zehar eta *Fo*-rekin ere ez dute ikuslea axolagabe utziko. Taldearen beste apustu polit bat da, ikuslea harritzen duena. Oro har, asko gustatu ohi den proposamena da. Taldearen bestelako lanen moduan, zaila da *Fo* definitzea, eta onena, beraz, norberak ikusi eta norberak baloratzea izango da. Hitzordua 19:30ean da, Amaian. Sarrera hamar euro ordaindu beharko da.

Alejandro Orlando eta Pedro Paiva antzezleak, *Fo* antzezlanaren une baten. | LOS MODERNOS

Vargas Llosaren lana euskaratu behar da Jokin Zaitegi sariketan

J.B. | ARRASATE

Jokin Zaitegi idazle arrasatearra gogoratzeko eta hark literatura unibertsala euskaratzen egindako ahaleginari jarraitzeko, 24. Jokin Zaitegi sariketa antolatu dute AED elkarteak eta Elkar argitaletxeak, Kutxaren laguntzarekin. Sariketaren bidez, urtero moduan, Literaturako Nobel saridunaren lana euskaratzeko beka emango zaio irabazleari. 6.000 euro emango zaizkio, erdia jakinarazpena egitean eta beste erdia lana entregatzerakoan.

Aurten Mario Vargas Llosa idazle peruarrari eman dio Literaturako Nobel saria Suediako Akademiak, eta Vargas Llosak idatzitako *Pantaleón y las visitadoras* eleberria itzuli beharko da sariketaren 24. edizioan.

Abenduaren 21a baino lehen

Obraren lehen orriak euskaratu beharko ditu parte-hartzaileak, eta orrion lau kopia bidali AED elkartearen egoitzara –Pablo Uranga 4, behea, 20500, Arrasate– abenduaren 21a baino lehen.

Fernando Reyk, Koro Navarrok eta Karlos Zabalak osatutako epaimahaiak itzulpenak aztertu eta haietako bat izendatuko du irabazle 2011ko urtarrilaren amaiera baino lehen.

Lan osoa, irailaren 30erako

Bestalde, beka jasoko duen pertsonak irailaren 30a baino lehen entregatu beharko du Vargas Llosaren eleberria euskaratuta, Elkar argitaletxean. Elkar argitaletxeak –eskubideak aurrez eskuratuta– argitaratuko du *Pantaleón y las visitadoras* eleberria euskaraz eta hori egiteko epemuga 2011ko Durangoko Azoka izango da. Ale guztietan nabarmen aipatuko da Jokin Zaitegi saria, baita itzultzailearen izena ere. Itzultzaileak ez du galduko bere lanaren gaineko jabetza. Antolatzaileez gain, Kutxa babesleak ere dagokion tokia izango du edizioan.

Harremanetarako edota edozein zalantza argitzeko, 943 77 12 28 (AED) edo 943 31 02 67 (Elkar) telefonora deitu behar da.

Portu eta *Mahoma,* RIPen 80ko hamarkadako kontzertu baten. | ARTXIBOA

Punk uholdea bihar, egun ikono diren 'Portu' eta 'Mahoma' omentzeko

Piztu Punk, Carrocerias, Gorroto eta Malos Tiempos taldeek joko dute gaztetxean (22:00)

J.B. | ARRASATE

Kontzertu berezia izango da bihar gaztetxean: oraindik ere Euskal Herriko punkaren historia bizia diren RIP taldeko Eduardo Mancebo *Portu* eta Karlos Agirreurreta *Mahoma* omenduko dituzte. 1999an hil zen *Portu* eta 2003an *Mahoma*, eta, ordutik hona, punkaren ikono bihurtu dira. Hamaika omenaldi egin dizkiete; punka maite dutenek oraindik ahaztu ez dituzten seinale. Bihar gaztetxean egingo dieten omenaldia ohitura bihurtu da dagoeneko. Izan ere, 1980ko hamarkadan ospetsu egin zen *Destruye!* fantzinearen sortzaileak eta omenduen lagun den Jabi *Destruye*-k antolatzen du bi urtean behin. Izan ere, Karlos *Mahoma* 2003ko azaroan hil zen, eta, ordutik hona, azaroan egin ohi diete omenaldia, bai Karlosi eta bai *Portu*-ri. Azkena, 2008koa, Arrasaten egin zen. Aurten ere Arrasaten izango da, gaztetxean. Arrasateko lagunek ere lagundu dute antolakuntzan.

Lau talde eta punka oinarri

22:00etan hasiko da omenaldia. Lau talde, eta punka oinarri: Piztu Punk –Obligaciones eta Rip-eko kideek osatutako taldea–, Carrocerias –La Xeta Paxote eta RIPeko taldekideekin–, Gorroto –Aramaiotik eta Arrasateko Garagartza auzotik datorren punka– eta Malos Tiempos –Donostiako punk-rocka–. Sarreraren prezioa ez dute zehaztu, baina sinbolikoa izango da.

Mikel Etxaniz eta Agurne Barruso udal ordezkariak Agurtzane Loidi Elhuyarko teknikariarekin. | M.B.

2020erako nolako herria irudikatzen dugun jakin nahi dute udal arduradunek

Horretarako Plan Estrategikoa egingo dute, herritarren parte-hartzearekin

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udalak 2020. urtera arteko udalerriko Plan Estrategikoa egin nahi du herritarren parte-hartzearekin. Azaroan hasi eta apirilera bitartean egin nahi du eta zehazki honakoa da Udalaren asmoa: herritarrek Bergara gaur egun nola ikusten duten zehaztea, eta hamar urte barruko Bergara irudikatzea eta egoera hori lortzeko estrategiak proposatzea. Plana lantzeko, Elhuyar Aholkularitzaren laguntza izango dute.

Agurne Barruso alkateak honela azaldu zuen, eguazten eguerdian egindako prentsaurrekoan, plan horren zergatia: "Agintaldi honetan inprobisazioan oinarritutako hainbat erabaki hartu dira eta argi ikusi dugu beharrezkoa dela gauzak egitea etorkizuneko plangintza baten oinarrituta".

Herritarren parte-hartzea

Barrusok gehitu zuenez, plan horrek bi ardatz ditu: bata, estrategikoa eta epe luzeko ikuspegia emango duena; bestea, herritarren parte-hartzean oinarrituta egingo dela.

Hain justu ere, herritarren parte-hartzearen garrantzia azpimarratu zuen alkateak: "Bergararrok dakigu nolako herria nahi dugun etorkizunean; bada, herritarren iritzi hori da jaso nahi duguna. Bestalde, hamar urterako plana izatera, garrantzitsua da Udal Gobernuan dagoen taldeak, edozein izan da ere, herriak adostutakoa egitea".

Bi motatako lantaldeak

Datozen egunotan abiatuko den prozesuan bi lantalde mota egongo dira: batetik, arlokako bost talde –biztanleria, garapen ekonomikoa, zerbitzu eta ekipamenduak, lurralde antolamendua eta herrigintza– sortuko dira eta gaiaren inguruko eragileak elkartuko dira; bestetik, eremukako taldeak sortuko dira herritarrekin. Hor bereiztuko dira hiru eremu, landa eremua, herrigunea eta herrigune inguruko auzoak. Hain justu ere, eremukako batzarrak egingo dira urtarriletik martxora bitartean.

Horren guztiaren berri emateko, batzar irekia deitu dute hilaren 18rako, eguena, 19:00etan, udaletxean. Deialdi hori gutun bidez ere bidali dute etxeetara.

'Bixkai'-k gose greba laga du 26 egun eta gero

Berarekin batera Meaux-eko espetxean dagoen Iker Beristaini elkartasuna adierazteko egin du

M.B. | BERGARA

26 egun egin ditu Iñaki Arietaleaniz *Bixkai*-k gose greban. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak aurreratu duenez, 12 kilo galdu ditu, baina onik dago.

Bixkai Meaux-Cahuconin -Neufmontiers espetxean (Frantzia) dago, beste hiru euskal presorekin batera –Iker Beristain algortarra, Beñat Aginagalde hernaniarra eta Alex Uriarte gasteiztarra– eta horiek guztiek ere gose greba egin dute. Hain justu ere, Beristain algortarrarekin bat egiteko egin dute greba, hari elkartasuna adierazteko, "alaba ikusteko baimena ematen ez ziotelako", Amnistiaren Aldeko Mugimendutik azaldu dutenez. Beristain joan den martxoan ezkondu zen kartzelan bertan. Irailaren 3an alaba izan zuen, eta familia-liburuak Beristain haren aita dela ziurtatu arren, Le Vert epaileak ukatu egin dio umea ikustea, haren aitatasuan zalantzan jarrita.

AAMtik esan dutenez, martitzenean, analisiak egin eta gero, presoak ingresatzeko aholkua eman zuen espetxeko zuzendaritzak, baina "presoen ezezkoaren aurrean, zuzendaritza larritu eta epaileari deitu zioten". Ondorioz, Beristainek laster ezagutuko du alaba.

Astelehenetik aurrera ekitaldiz jositako astea ospatzen hasiko dira Mizpirualde egoitzan

Astelehenean, hilak 15, karta jokoarekin eta musika eskolako txistu eta gitarra taldeen saioekin abiatuko dute nagusiek Mizpirualde egoitzaren astea. Ekitaldi asko izango dituzte zapatura arte; batik bat, musika eskolako taldeek egingo dituzten emanaldiak: trikiti, akordeoi eta biolin taldeak, besteak beste. Horrekin guztiarekin batera, musikoterapia saioa izango dute egubakoitzean, 17:00etan, eta Moises Azpiazu dantza taldearen emanaldia ere bai, 18:30ean.

Asteari amaiera emateko ohiko bazkaria egingo dute zapatuan, Alai taldeak lagunduta. Dantzaldia ere egongo da eta opariak banatuko dituzte.

Hilaren 17an bukatuko da truke azokarako euskarazko liburuak Jardunera eramateko epea

Jardunek euskarazko liburuak trukatzeko azoka egingo dute azaroaren 19tik 21era, San Martin plazan. Hala, egunotan liburuak batzen dihardu azokarako. Hilaren 17ra arte batuko dituzte liburuak, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara (egubakoitzetan 18:00ak arte), kultura etxean. Liburu bakoitzeko txartel bat emango dute, azokan beste liburu batengatik trukatu ahal izateko. Egoera onean eta osorik daudenak bakarrik onartuko dituzte eta ez dira onartuko sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrerarik erakusten dutenak.

NINIKA
LORADENDA
• Andregaientzako lore-sortak
• Eliza eta jatetxeen dekorazioa
• Lorategi eta terrazen diseinua
• Paisajismo estudioa
Ramon Maria Lili 8 20570 Bergara
Tel. / Faxa: 943 76 10 01

Estella ortopedia
RPS 421/97
Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN HITZARTUA
Matxiategi 5, Telefonoa: 943 76 19 63
consultas@farmaciaestella.com
AULKIENTZAKO MOTOR AUXILIARRAK
OHE ELEKTRIKOAK

ATXEGA ARDOAK
BERGARA
Urtekoa eta ondua
Errioxa
Nafarroa
Urtekoa eta ondua
Amillaga 25 - Industrialdea - Bergara
Biltegia: 943 76 27 76 / 943 76 38 52

Mireia Gallastegi | Aranzadi ikastolako ikasle ohia

"Aranzadiko ikasle ohien eguna ezin da falta 40. urtemugan"

Aranzadi ikastolak 40 urte beteko ditu ekainaren 19an; hori ospatzeko ekitaldien artean, ikasle ohiendako bazkaria antolatu dute azaroaren 27rako

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Aranzadiren 40. urtemugaren ospakizun sorta antolatzeko, guraso, ikasle eta langilez osatutako talde eragilea sortu dute. Hango kide da Mireia Gallastegi. Guraso izateaz gain, ikasle ohi ere bada, eta hark hartu du, hiru laguntzailerekin batera, ikasle ohien eguna antolatzeko ardura.

Nondik sortu da bazkaria egiteko ideia?

Nola faltako da, bada, gure ikastolaren urtebetetzean, ikasle ohien egun bat? Ikastola bizi izan dugunok zorionak opa nahi dizkiogu. Ezin zen horrelako ekintzarik falta. Talde eragileko lehenengotariko ideia izan zen bazkari bat egin behar genuela ikasle ohiekin.

Ezin da ikastolaren bizitza irudikatu eta imajinatu bertatik pasa diren ikasle horiek guztiak kontuan izan gabe. Nork eman dio bizitza ikastolari? Ikasleek, noski. Ezinbestekoa zen haiekin ospatzeko aukera sortzea. 40 urtean zehar 5.000 ikasle baino gehiago izan ditu Aranzadik; oroitzapenez beteta gaude, beraz, eta eurekin konpartitu nahi ditugu, bai oroitzapen horiek, baita gaur egungo ikastolaren nondik norakoak ere, oraindik ere, hala nahi izanez gero, ikastola eurena ere badelako.

Zer egongo da egun horretan?

Mireia Gallastegi, Aranzadi ikastolan. | M.B.

"Ezin da ikastolaren bizitza irudikatu ikasle ohiak aintzat hartu barik"

12:00etan elkartuko gara ikastolako jolastokian argazkia ateratzeko. Gero, Jarduneko trikitilariek lagunduta, poteatzera joango gara 14:30ak arte. Ordu horretan izango da bazkaria, Udal Pilotalekuan, eta dantzaldia ere egongo da.

Txartelak salgai daude hilaren 22ra arte Arranon, Deportivon, Ariznoan eta Udal Pilotalekuko tabernan, 30 eurotan (bazkaria, musika eta poteoa barne).

Urtemugaren barruan bestelako ekitaldirik antolatu duzue?

Bai. Urteurreneko logo lehiaketa egin dugu ikasleen artean eta azaroan erakusketa egingo dugu ikastolan. Argazki erakusketa ere egongo da, Bizikleta Eguna, artelan erakusketa...

Bergarako herria gonbidatu nahi dugu antolatuko ditugun ekintza guztietara.

OHARRAK

SAN JOXEPEKOEK IRTEERA EGINGO DUTE

Zirkulazioaren Kudeaketa Zentroak San Joxepe gonbidatu du hilaren 17an Bilbon egingo den hitzaldi batera. 09:0etan abiatuko dira eta itzulera 13:30ean egingo dute. Era berean, hilaren 25ean Iratxera eta Lizarrara egingo dute irteera. Bietan ala bietan, izenematea idazkaritzan da.

1943AN JAIOTAKOEN BAZKARIA HILAREN 27AN

Azpeitxin egingo dute, 14:30ean. Izenematea hilaren 24ra arte da, Arantza Askasibarri (943 76 16 13) edo Juan A. Fernandezi (943 76 53 22) deituta.

1933AN JAIOTAKOEN BAZKARIA 21EAN

Azpeitxi jatetxean egingo dute. Aurretik meza izango dute, 12:30ean, San Pedron. Izenematea Intxorta tabernan da, 6 euro aurreratuta.

1948AN JAIOTAKOEN AFARIA HILAREN 20AN

Zabala jatetxean egingo dute. Harako urbanoa 21:00etan abiatuko da Santa Marina ostetik. Izenematea azaroaren 17a baino lehen da, eta horretarako 55 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan.

1935EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA 21EAN

Zumelaga jatetxean egingo dute, 14:30ean. Izena emateko 12 euro aurreratu behar dira hilaren 17rako Euskadiko Kutxan.

1944AN JAIOTAKOEN BAZKARIA HILAREN 27AN

Azpeitxi jatetxean egingo dute, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, meza egongo da Santa Marinan. Izenematea azaroaren 22a baino lehen da, Bodegon Hernandezen (943 76 20 43) edo Sanchez ile-apaindegian (943 76 23 70).

NIRE USTEZ

MAITE PLAZAOLA

Telebista eta boterea

Egun gutxi izango dira informazioa boterea dela ukatzen dutenak. Izan ere, informazioaren gizartea dugu gaurkoa. Gobernariek ere ondo dakite, esparru geografiko jakin bateko buruzagitzaz jabetzeaz bat, bertako hedabide publikoak kudeatu eta kontrolatzeko *ardura* ere gogo handiz hartzen baitute. Hau da, komunikabideetan zein eduki ezartzeko eskumena dute eta, bide batez, herriari zein informazio mota zabaltzekoa.

Orain arteko EAEko gobernuko partaideek ere ondo asko jakin izan dute hori eta oraingoak ere erakutsi du hedabideak bere nahien arabera egokitzeko grina. Izan ere, beraien diskurtso politikoarekin bat egiten dituzten edukiak eskaintzen dituzte, nik behintzat inoiz ezagutu ez dudan telebista espainolista bat eratuz; pertsonalean egon diren aldaketak ez aipatzearren... Eztabaidek iritzi aniztasun eskasa dute, saioak geroz eta sentsazionalistagoak dira... baina okerrena teleberriak ikustea da. Espainiar kateenak bezain horiak bilakatzen ari dira eta geografiako arazoa ere begi-bistakoa da.

Niri arrotza zait eta ez dut uste Antena 3 edo Tele5-ekiko desberdintasuna handia denik. Euskaldunok eduki erdaldunagoak xurgatzea dute helburu. Hala segiz gero, ez nintzateke harrituko teleberria Buenos días batekin hasi edo Julen Madina bezalakoen bizitza pertsonalaren gainean hitz egiteko saioak ikusten hasiko bagina... Adios!

MIZPILDI OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ETXEBERRIA
BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA
Bidekurutzeta 16 - BERGARA
943 76 13 94

Artzamendi CONSTRUCCIONES
Burdiñate plaza, 6 behea
Tel.: 943 76 27 58
BERGARA

Lau partidu irabazi ostean helduko dio Soraluce BKEk liderrari, etxean

- Urbinaren mutilek Teklan Laser taldearen bisita izango dute domekan
- Bergarakoak seigarren daude sailkapenean, liderrarengandik bi puntura

XABIER URTZELAI | BERGARA

Soraluce BKE saskibaloi taldeak aukera paregabea du domekan (17:00, Labegaraieta) kategoriaz igotzeko hautagai garbia dela erakusteko. Orain arte jokatutako sei partiduetatik lau irabazi dituzte, eta domekan kategoriako liderra izango dute aurrean, oraindik akatsik egin ez duen Teklan taldea: "Etxean jokatuta, eta liderraren aurrean, bistan da irabazi beharreko partidua dela, baldin eta mailaz igo nahi badugu. Egia da denboraldi luzea dela, eta posible dela akats bat edo beste egitea, egutegiak aukera hori ematen du, baina, neurri handian, guk dagoeneko egin ditugu akats horiek", adierazi du David Urbinak.

Tarte barik

Azpeitiko taldearen eta Kostkas taldearen kontra galdutako partiduak ditu Bergarako entrenatzaileak buruan: "Azpeitiko taldea gurea baino hobea zela iruditu zitzaidan, garbi esanda, baina ondoren ez dute jarraikortasunik izan, haiek ere bi partidu galdu dituzte-eta, gure moduan; baina uste dut gorago egoteko moduko taldea dutela. Eta Kostkasen aurrean, bueno, beteranoz josita taldea izan genuen aurrean, eta gu trabatu egin ginen partiduko hainbat fasetan".

Konpromiso kontua

Domekako kontrarioaren gainean berba egiterakoan, Teklan Laser taldea, Soraluce Bergara moduan kategoriaz jaitsi zen iaz: "Baina nik ez ditut askorik ezagutzen, iaz berandu hartu nuelako taldea. Hori bai, garbi dago talde moduan konpromisoa hartu duten jokalariak dituztela. Hor dago kategoria honetako gakoa; talde batzuk lagun koadrilak dira, saskibaloi gosea asetzea baino ez dutenak, eta beste batzuk konpromisoa erakusten duten jokalariz osatutako taldeak dira. Sei partidu jarraian irabazteko konpromisoa behar da, lanerako, eta Bergaran, orain, horretan ari gara lanean".

ESANAK

"Aurrean egon nahi badugu liderrak ezin digu irabazi"

"Aurrekoan, minutu gutxi dutenek irabazi zuten partidua"

DAVID URBINA | ENTRENATZAILEA

Ordezkoen garrantzia

Joan den astean Donostiako Alde Zaharra taldearen kontrako garaipenean (58-49) ordezkoek izandako jarrera azpimarratu du Urbinak: "Aspaldian hori jarri da saskibaloian modan, hasierako bosteko finkoa izatea, eta ondoren ordezko jokalariak. Gure kasuan, joan den asteko partidua taldean minutu gutxien izaten duten jokalariek atera zuten aurrera, eta hori garrantzitsua da. Domekako norgehiagokari begira, ezinbestekoa izango da jokalari horiek, ustez hasierako bostekoan ez daudenak, partiduko erritmoan sartuta egotea".

Aurreikusi baino zailagoa

Sailkapenean geroago eta aurrerago joateak zale gehiago erakarriko ditu Labegaraietara, etxeko partiduetara: "Joan den astean zaleek tarteka saskibaloi txukuna ikusi ahal izan zuten, jokalariak hasi dira ikasten partiduaren une bakoitzean ze erritmotara jokatu behar duten, eta geroago eta konfiantza handiagoa dugu. Baina hasieran uste genuena baino gehiago kostatu behar zaigu aurrean egotea".

Gipuzkoarren arteko derbia Urolak eta Bergarak

X.U. | BERGARA

Euskadiko eskubaloi txapelketan Urolak eta Soraluce Bergarak derbia jokatuko dute Zumarragan bihar (18:00). Eta, puntu beharrean daudenen arteko derbia izango da.

Ligako lehenengo partidua irabazi ostean bazirudien Soraluce BKEk atzean utziko zituela urduritasunak, baina joan den astean etxeko taldeak ez zuen benetako maila erakusteko modurik izan, eta orain arteko akatsak itzuli ziren berriro ere: "Baloiak oparitzen ibili ginen, berriro ere oso urduri, eta ea traba horiek gainetik kendu eta dakigun moduan jokatzen hasten garen. Izan ere, kategoria honetan badira sei edo zazpi talde gure mailakoak direnak, ez direla hobeak. Garbi daukat psikologikoa dela, lasaiago kantxaratu behar dugula", adierazi du Muniategik.

Denboraldia mahaiaren bueltan amaituko dute

Bergarako Txirrindulari Elkarteko kideek mahaiaren bueltan esango diote denboraldiari agur, azaroaren 20an Azpeitxi jatetxean egingo duten afarian. Afaldu aurretik, 19:00etan, urteroko batzarra egingo dute Zuloa elkartean. Argazkia aurtengo azken irteerakoa da –Dorletara.

JESUS MARIA OLABARRIA

Offset
Inpresio Digitala
Enkuadernazioa
IMPRESPAL
INPRIMATEGIA
Komenio, 2 • 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 00 01 • Fax: 943 76 22 41
E-mail: imprespal@euskalnet.net

URBIETA
sukaldeak eta bainuak
DOCA eta PORCELANOSAren banatzaile ofiziala
• ERREFORMAK OROKORREAN, PROIEKTUAK eta GREMIOEN KOORDINAZIOA
• ELBARRITUENTZAKO BAINU ERREFORMAK ETA OSAGARRI BEREZIAK
• SUKALDERAKO ETA BAINURAKO ALTZARIAK, ZERAMIKA ETA DEKORAZIOA OROKORREAN
Ibargarai 11-13 · T/F: 943 76 14 50 · CBURBIETA@terra.es • goiena.net/blogak/urbieta

'Piano bat bertsotan' gaur Osintxun, Gaztañatan egitarauaren barne

Azaroaren 28ra arte adin guztiendako kultura ekitaldiak prestatu dituzte

EDU MENDIBIL | BERGARA

Hemen da aurten ere Gaztañatan egitaraua, urteko sasoi honetan Osintxu auzoko giroa berotzeko asmoarekin datorrena. Joan den astean jarri zuten abian aurtengo egitaraua eta hilaren 28ra bitartean adin guztiendako ekitaldiak izango dituzte.

Piano bat bertsotan ikuskizuneko irudi bat. | GOIENA

Kantuak inprobisatzen

Gaur, egubakoitza, *Piano bat bertsotan* ikuskizuna izango da Txuringon, 22:30ean hasita. Ainhoa Ansa (Arano, 1980), Jagoba Astiazaran (Zestoa, 1986) eta Beñat Gaztelumendi (Añorga, 1987) dira egileak.

Astiazaran piano-jotzaileak azpimarratzen duenez, bertsolaritzan bezala musikan ere badago bat-batekotasuna. Ikuskizunera joaten direnek eurei entzutea gehien gustatuko litzaiekeen euskal abestien izenak aukeratu ahal izango dituzte gaur. Zozketa bidez aterako dituzten abestiak interpretatuko dituzte musikariek.

Hain zuzen ere, musikariek nola inprobisatzen duten ikusteko aukera izango dute Txuringora joaten direnek, esan bezala, ikusleak izango direlako txanda bakoitzean entzun nahi dutena erabakiko dutenak.

Horrenbestez, jendea izango da protagonista nagusia, interpretatu beharreko programa eurek erabakiko dutelako eta abesterakoan ikuskizuneko partaide sentituko direlako. Baina ikuskizunak baditu beste helburu batzuk ere, hala nola euskal abesti herrikoiak bultzatzea eta euskaldunok historikoki abesteko izan dugun ohitura suspertzea, azken boladan nahiko baztertuta dago-eta.

GAZTAÑATAN EGITARAUA

AZAROAK 12, BARIKUA

22.30 *Piano bat bertsotan* emanaldia Txuringon.

AZAROAK 21, DOMEKA

17.30 Poxpolo eta Konpainiaren eskutik *Segi jotzen* antzezlana frontoian.

AZAROAK 22, ASTELEHENA, ANIMEN EGUNA

19.00 Gaztainak eta sagardoa plazan.

AZAROAK 26, BARIKUA

22.30 Mau taldearen emanaldia.

AZAROAK 28, DOMEKA, ERRETIRATUEN EGUNA

14.00 Bazkaria eta Duo Plaentxi giroa alaitzeko. Txuringon.

Euskarazko liburuak trukatzeko dei egin du Jardun elkarteak

Jardun euskara elkartearen eskutik, euskarazko liburuak trukatzeko aukera izango da San Martin plazan azaroaren 19tik 21era.

Aurretik, baina, aipatutako azokarako liburuak jasoko dituzte Jardunen. Interesatuek azaroaren 17ra arte eraman ditzakete liburuak Jarduneko bulegora. Argibide gehiago 943 76 36 61 telefonoan.

Magnetica musika talde madrildarra gaur Tartufon

Magnetica eta Ile taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, Tartufo tabernan, San Juan auzoan. Magnetica madrildarrek *Maide Vale* izenburuko diskoa eman dute argitara; 13 kantu batu dituzte. Travis, Coldplay eta Radiohead taldeen eragina aitortu dute. Gaurko emanaldia 20:00etan izango da. Sarrera 6 euro kostatzen da.

'Errautsak' antzezlana gaur Zabalotegiko aretoan

E.M. | BERGARA

Le Petit Théâtre de Pain, Arte-Drama eta Dejabu Panpin laborategiak ekoiztutako antzezlana da *Errautsak*. Eta ondorioetako bat euskalkien batuketa dugu; izan ere, bost erabiliko dituzte: zuberotarra, lapurtarra, nafarrera, bizkaiera eta gipuzkera; eta batua. Ander Lipus, Miren Gaztañagaa, Ximun eta Manex Fuchs, Ainara Gurrutxaga eta Urko Redondo dira aktoreak.

Laguna oroituz

Hodei hil da. Gaztaroko lagunak, urtetan elkarren berririk izan gabe egon ondotik, Hodeiren hiletarako bilduko dira. Saminak eta berriz elkartzearen emozioak eraginda, Hodeiren azken agurra garai bateko festa basati bihurtuko da. Iraganeko eta oraineko egiak, gezurrak eta kontraesanak azaleratuko dituen gau eroa...

Emanaldia 22:30ean da, Zabalotegin, eta sarrera, 5 euro.

Errautsak antzezlananeko une bat. | GOIENA

BILTOKI
ASPIZA S.L.
BERGARA

1955. urtean sortua
55 urte zuekin

dekorazioa
ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK, ALFONBRAK, KORTINAK, LARRUZKO SOFAK... DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK

SAN MARTIN PLAZA
Tel: 943 76 43 51
Faxa: 943 76 03 68
e-mail: aspizu@biltoki.net

AZPEITXI
Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

DESA CRISTAL
Autoaren kristaldegia
Kristalen muntaia, salmenta eta konponketa
Aseguru konpainiekin kontzertatua
SOLAR-CHECK lamina baimenduaren instalazioa

BERGARA Santalaitz 6 - 943 76 36 09

IRURA Ibaiondo bailara - 943 69 16 16

Indigenen errealitatea bertatik bertara zinema sozialaren bidez

Elkarhezitzen eta Mugarik Gabe erakundeek antolatu dituzte jardunaldiak

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Indigenek eurek egindako filmak ikusteko aukera egongo da *Zinema sozialaren emanaldia* jardunaldien bitartez. Indigenen errealitatea euren ikuspuntutik ezagutzeko aukera ematen dute film horiek, hortaz. Emanaldiak izango dira gaur, egubakoitza, eta hilaren 19an, 19:00etan.

Amerikaren konkista

Gaurko emanaldia izango da *El 2º desembarco: multinacionales españolas en América Latina*. 2010ean Euskal Herrian ekoiztutako filma da aipatutakoa. 41 minutu irauten duen dokumentalean, Jose Manzanedak Espainiako enpresa multinazionalek Latinoamerikako ekonomian izan duten eragina kontatzen du. Hala, eragin horri "bigarren lehorreratzea" deitzen dio Manzanedak.

Kontatzen du multinazional horiek ingurumenean, biztanleriaren lekualdaketan, zerbitzu publikoetan eta beste hainbat alderditan dutela eragina.

Dokumentalaren ondoren buruzagi indigena batek bere herriaren esperientzia azalduko du kultura etxean.

Azaroaren 19an: ura

2008an Mexikon ekoiztutako dokumentala eskainiko dute azaroaren 19an: *13 pueblos en defensa del agua*. Nahuas eta Morelos herrien borroka kontatzen da filmean; euren baliabide naturalen kontrola gobernu eta enpresarien eskuetatik berreskuratzeko borroka, hain zuzen.

Filmaren ondoren, Janeth Cujik, ONAIEko komunikazio agintariak, azalpenak emango ditu. 63 minutu irauten du filmak eta Francesco Taboada da zuzendaria.

Emanaldia eta eztabaida

Elkarhezitzen eta Mugarik Gabe erakundeek antolatu dituzte jardunaldiak. Aurretik, Eskoriatzan eta Arrasaten eskaini izan dituzte filmak. Herri indigenen gaia zergatik aukeratu duten azaltzean, zehaztu dute herri indigenak munduko biztanleriaren %5 izanda, aniztasun kultural eta linguistikoaren %90en jabe direla.

Emanaldiak kultura etxean izango dira, 19:00etan; gainera, emanaldien ondoren gaiaz eztabaidatzeko aukera egongo da.

ZINEMA SOZIALAREN EMANALDIAK

AZAROAK 12

19:00 *El 2º desembarco: multinacionales españolas en América Latina*.

▶ Gonbidatua: Buruzagi indigena.

AZAROAK 19

19:00 *13 pueblos en defensa del agua*.

▶ Gonbidatua: Janeth Cuji, ONAIEko komunikazio agintaria.

Patxi Hipolitori omenaldia egingo diote

A.E. | OÑATI

Domekan egingo dute joan den eguaztenean hil zen Patxi Hipolitoren aldeko omenaldia. Haren familiak eta lagunek omenaldira joateko dei egin diete parte hartu gura duten guztiei. Hipolitoren errautsak sakabanatuko dituzte eta, gainera, ekitalditxoa eskainiko diote.

Hipolitok berak aukeratutako mendiko txoko baten egingo diote omenaldia, eta, hara automobilez joan ezin denez, Arantzazuko aparkaleku berrian, Zelai Zabal ondokoan egin dute hitzordua, 11:00etan. Handik oinez amildegi azpira abiatuko dira.

Domekan Donostian

Aurreneko omenaldi ekitaldia domekan egin zioten, jaioterrian. Hain zuzen, Donostiako Haizearen Orrazian egin zuten hitzordua familiartekoek eta lagunek.

Potxo Edizioak

Oñatiko gaztelekuko dinamizatzaile izateaz gainera, bestelako lan eta ekimen askotan parte hartu izandakoa da Hipolito. Besteak beste, Potxo Edizioak argitaletxeko sortzailea izan zen.

Hari zor dizkiogu, besteak beste, Lope Agirreren *Carta a Felipe II* (1997- 2002), Luis Duranen *Barco Pirata* (1997) eta *Algebra* (2007) komikiak, Pernan Goñiren *Aingeru Baltza* komikia (1998) eta Jon Aiastui autorearen *Nongo Nor olerkiak* (1999). Esku artean zuen aurtengo neguan kaleratzeko: *Urbieta kaleko borroka komikia*, J. J. Pi sortzailearena.

Rafa Uribarren, Lourdes Idoiaga eta Asier Arrese hitzaldian. | A.E.

Parke naturalen gizarteratzea berbagai

Landa Garapeneko foru diputatua izan zen Oñatin

A.E. | OÑATI

Landa Garapeneko Foru Diputatu Rafa Uribarrenek eta Mendietako zuzendari Asier Arresek parke naturalen gizarteratzeari buruzko hitzaldia egin zuten Oñatiko kultura etxean eguaztenean. Lourdes Idoiaga alkatearen laguntza izan zuten Uribarrenek eta Arresek aurkezpena egiterakoan.

Gipuzkoako parketxe sarea

Parke naturalak gizarteratzeko eta bertan geratzen diren erabilera guztien kudeaketa egiteko hainbat puntu azaldu zituen Uribarrenek: Gipuzkoako parketxe sarea, egokitutako ibilbideak, TALAIA senda, Gipuzkoako bide sarea eta gizarteratze programa. Azaldu zuen lehenengo egokitutako ibilbidea Gomiztegi eta Arantzazu artekoa izan zela; ondoren, Aralar eta Larraitz artean egin zuten beste bat.

Uribarrenek gaineratu zuen apustuak bi direla: "Alde batetik, parke naturaletako kudeaketa lideratu; eta, bestetik, naturari lotutako aisialdirako azpiegiturak sakondu".

Kudeaketaren eboluzioa

Asier Arresek parke naturalen kudeaketak izan duen eboluzioari buruzko hausnarketa egin zuen: "Parke naturalen kudeaketan kalitatezko politikak ezartzen gabiltza; eta parketxeetan, ibilbideetan eta irisgarritasunean gabiltza inbertitzen".

30 lagun inguru egon ziren hitzaldian. Amaieran galderak egin zituzten: onddoak izan zituzten berbagai, besteak beste.

Gaztelekuko topalekua dantzaleku bilakatuko dute gaur, 19:00etan, disko festarekin

Topalekuko azaroko egitarauko nobedade nagusia da. Disko festa izango dute gaur, egubakoitza, gaztelekuan. 19:00etan hasiko da, eta Sound Project talde oñatiarraren ardura izango da topalekua dantzan jartzea. Gainera, esan behar da kurtsoari hasiera emateko ardura ere haiena izan zela; hortaz, badute esperientzia topalekuko gaztetxoekin. Disko festak erantzun ona izaten badu, topalekuko arduradunen asmoa da aurrerantzean hilero egitea horrelako festa bat. Aukera ezin hobea dute, hortaz, dantza gustuko dutenek gorputza astindu eta arratsaldea ezin hobeto pasatzeko lagun artean.

Ikus Makusi antzerki taldearen '¿Problemas de pareja? La solución AQUÍ' antzezlana Santa Anan

Erretiratuek antolatutako antzerki topaketei amaiera emango die herriko Ikusi Makusi antzerki taldeak. Santa Anan izango da emanaldia, 17:30ean, gaur. Aurreko urteetan bezala, umorezko antzezlana izango da. Bikote harremanetan sortu ohi diren krisi egoerak aztertuko dituzte. Konponbide bila psikologo eta abokatuengana jo duten hiru bikoteren kasuak aztertuko dituzte. Bestetik, datorren astean Kultura Astea ospatuko dute Pake-Lekun: astelehenean kontzertua izango dute agustindarretan, 18:00etan, Zarauzko Udaberri eta Oñatiko Aloña abesbatzarekin.

'No me hagas daño' antzezlaneko sarrerak salgai daude kultura etxean 10 euroren truke

Azaroaren 26an, egubakoitza, Ttanttaka antzerki taldeak *No me hagas daño* antzezlana eskainiko du Santa Ana aretoan, 22.30ean. Emanaldirako sarrerak dagoeneko salgai jarri dituzte kultura etxean, ohiko ordutegian, 10 euroren truke. Genero indarkeriaren gaineko lana da, eta, hain zuzen, azaroaren 26an izango da, azaroaren 25a genero indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna da-eta. Kike Diaz de Rada, Maiken Beitia eta Isidro Fernandez dira antzezlaneko protagonista nagusiak; eta zuzendaria, berriz,' Fernando Bernues da.

OHARRAK

KINTADA

71ko kintoek –1950eko urtarrilaren 1aren eta 1951ko otsailaren 28aren artean jaiotakoak– afaria izango dute Soraluze jatetxean azaroaren 20an, 21:00etan. Izena eman daiteke hilaren 15era arte Artxubi, Oñati eta Izarraitz tabernetan, edo Josefina Arregi, Jesus Laskurain, Joxe Mari Irazabal edo Pedro Mari Igartuari esanda. Afariaren ostean, dantzaldia.

ODOL ATERATZEA

Gaur, egubakoitza, izango da azaroko odol ateratzea. Txantxiku ikastolako aretoan, 18:00etatik 20:00etara.

ZINEMA

Come, reza, ama filma gaur 22:30ean; zapatuan, 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:30ean; eta astelehenean 19:30ean. Gaztetxoendako, *Astro Boy* zapatuan eta domekan 17:00etan.

Alex Txikon mendizaleak zabalduko du mendi hamabostaldia eguaztenean

Lemoarraren emanaldia izango da eguaztenean kultura etxean, 19:30ean; 'The Sharp end' zinekluba, berriz, eguenean izango da, 20:00etan

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Alex Txikonek hasiko du datorren eguaztenean Aloña Mendiko mendi sailak antolatutako mendi hamabostaldia. Hamabostaldi berezia eta hunkigarria antolatu dute. Txikonena, baina, gainontzekoekin alderatuta ezberdina izango da. Mutil "polifazetikoa" da Txikon, "artista" dela esan dute mendi saileko kideek. Hala, Lemoatik Katmandura egindako bidaia kontatuko digu, eta baita gero han egindako mendi eskalada ere.

Edurne Pasaban, Alex Txikon, Nacho Orviz eta Asier Izagirre. | GOIENA

Katmandura autoz

Txikonek berak dio XX. mende hasierako eskalatzaileak imitatu gura zituela bidaia horrekin. Horregatik, Lemoatik autoz abiatu zen Katmandura.

Morris Gartzia, Jon Arantzabal, Izaskun Betzuen eta Alex Txikon bera irten ziren bigarren eskuko Renault Space autoarekin Lemoatik 2007ko abuztuaren 12an. Katmandurainoko 12.500 kilometroak zituzten egiteko aurretik. Txikonek berak dioen moduan, ilusioz betetako bidaia izan zen; baina, autoan, ilusioaz gain, bizikleta eta aizkora ere eraman zituen lemoarrak.

Zertarako baina? Bizikleta, adibidez, entrenamenduak egiteko. Shisha Pangma igotzeko beharrezkoa zuen lemoarrak entrenamenduak egitea; hala, bazkaltzen geratzen zirenetan, Txikonek bost minutuan bazkaltzen zuen eta gero bizikletan egiten zituen ibilbideko hurrengo 20 kilometroak. Hala, 8.027 metroko mendia igotzeko entrenamenduak egin zituen Txikonek.

Eta aizkora? Bada, esan bezala, mutil "polifazetikoa" da Txikon, eta aizkolaria ere bada lemoarra, haren pasioetako bat da.

Otsailean, adibidez, herri kiroletan apustua egin zuen Txikonek Joseba Otaegiren aurka Azpeitiko zezen-plazan. Harriak jaso, aizkoran egin eta antxintxikan egin behar izan zuten Txikonek eta Otaegik; apustua Otaegik irabazi zuen.

Zinekluba, eguenean

Bestalde, guenean, *The Sharp end* filma eskainiko dute zineklubean. Peter Mortimer eta Nick Rosen dira zuzendariak (2007). Eskaladako irudiak eskainiko dituzte, irudi "benetan ikusgarriak". Antolatzaileek aurreratu dute aho zabalik geratuko dela bat baino gehiago. Filmak hainbat sari jaso ditu: adibidez, Torelloko nazioarteko Mendi Zinemaldian Gran Valira saria jaso du; mendiko kirolen film onenaren saria, hain zuzen.

Hurrengo astean, gehiago

Mendi hamabostaldiko bigarren astean beste hiru emanaldi egingo dituzte: hilaren 23an, Josune Bereziartuk *Uda alpinoa* aurkeztuko du; hilaren 24an, Ivan Urtzelai eta *Kanu* oñatiarren txanda izango da; eta hilaren 26an Jorge Nagoreren emanaldia.

Markelen lagunek bazkaria egingo dute hilaren 20an

A.E. | OÑATI

Markelen lagunarteak bazkaria antolatu du denboraldi amaiera ospatzeko. Hilaren 20an egingo dute bazkaria, Zubillagako Zotz tabernan.

Izena emateko epea hilaren 18ra arte da. 30 euro kostako da bazkaria eta 14:30ean izango da. Aurretik triki poteoa egingo dute herriko kaleetan.

Markel Irizar bera ere bazkarian egongo da. Familia eta lagun artean ospatuko dute Irizarrek profesional mailan lortutako lehenengo garaipena, abuztuan Tour du Poitou Charentesen lortutakoa, hain zuzen. Itzuliko laugarren etapan lortu zuen garaipena oñatiarrak.

Aloñako neskak Mutrikun lehiatuko dira

A.E. | OÑATI

Aloñako neskek Mutrikuren aurka jokatuko dute bihar, zapatua, 16:30ean. Mutrikuko kiroldegian izango da Euskadiko txapelketako hirugarren jardunaldiko lehia.

Orain arte bi neurketa jokatu dituzte eskubaloiko neskek; eta biak berdindu egin dituzte. Hala, bi puntu dituzte eta sailkapeneko bosgarren tokian daude.

Aurten Idurre Elortzak hartu du nesken taldea zuzentzeko ardura; atezaina izateaz gain, entrenatzaile lanak ere egingo ditu. Denboraldi hasieran esan zuen talde gaztea dutela, eta partiduz partidu joatea izango dela euren helburua.

A.E.

Denboraldi berriaren aurkezpena

Antxintxiketan kirol elkarteak denboraldi berria eta arropa berria aurkeztu du. Gainontzean, ilusio eta lanerako gogo bera erakutsi dute. Lau lasterketa antolatuko dituzte: abenduaren 31n San Silvestrea; ekainaren 25ean Corpus lasterketa; uztailaren 3an Torreauzoko krosa; eta urriaren 8an Arrasate–Oñati lasterketa. 27 lagun daude taldean; horietatik zazpi dira emakumezkoak eta beste zazpi federatuak.

BETERANUAK

EMAITZAK "A" TALDEA

The Gibel Boys - Bundeswehr	1-0
Dollygan's - Txuskos	3-1
Joxely - Nandrolona	1-1
Ankarteko - Indar 85	0-5
Gaur Bai - Xaguxar	0-1

SAILKAPENA "A" TALDEA

	TALDEA	P	J
1	Dollygan's	6	2
2	The Gibel Boys	6	2
3	Joxely	4	2
4	Nandrolona	4	2
5	Indar 85	3	2
6	Xaguxar	3	2
7	Bundeswehr	1	2
8	Gaur Bai	1	2
9	Txuskos	0	2
10	Ankarteko	0	2

SAILKAPENA "B" TALDEA

	TALDEA	P	J
1	Txarrixak	3	1
2	Kalañatasaray	3	1
3	Zorrobero	3	1
4	Sasquatch	3	1
5	Albok	0	0
6	Lozorro^mo	0	1
7	Paketinaikos	0	1
8	Etxaixat	0	1
9	Jai Ari	0	1

PARTIDUAK "B" TALDEA

2. JARDUNALDIA

Zapatua 13:30 Jai Ari - Paketinaikos
Zapatua 18:00 Txarrixak - Kalañatasaray
Zapatua 19:30 Zorro Bero - Sasquatch
Domeka 14:00 Etxaixat - Albok
Atsedena Lozorro^mo

Arduraduna izango da Gaur Bai taldea

B taldearen bigarren jardunaldian ardura izango du Gaur Baik; hurrengo jardunaldian, Etxaixat taldeak izango du ardura.

Bigarren jardunaldiko txartelak

A taldeak jokatutako bigarren jardunaldian, ondoko jokalariek jaso zuten txartel horia: Aitor Lopez (Gibel Boys), Dani eta Eleder (Joxely), Garai, Giraldo, Aitor Ape, Astigarraga eta Jon Haundi (Nandrolona); Joxe Oleaga (Gaur Bai) eta Gorka Altzelai (Xaguxar). Bestalde, Nandrolona taldeko Astigarragak bi partiduko zigorra izango du txartel gorriagatik.

hitza info
berria info
zu zara berria
euskarazko komunikabideak, elkarlanean, berrituta, mugimenduan
Gure produktuak gertutik ezagutu nahi badituzu edo harpidetu nahi baduzu:
www.zuzaraberria.info
berriketan.info

Postontzi bila mendi irteera egingo dute azaroaren 21ean Murrukixoko kideak. | MURRUKIXO

Hiru argazki emanaldi eta irteera Mendi Astearen barruan

Murrukixo Mendizale Elkarteak antolatutako ekitaldi guztietan mendia eta aretxabaletarrak izango dira protagonista

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Astelehenean, hilak 15, hasi eta domekara bitartean Mendi Astea egingo du Murrukixo Mendizale Elkarteak. Hiru argazki emanaldi eta mendi irteera antolatu ditu ordurako.

Urtero antolatzen du mendi astea Murrukixok, eta, mendiarekin batera, aretxabaletarrak izango dira protagonista oraingoan ere: "Konturatu gara interes handiagoa sortzen dutela herritarrek eskainitako ikus-entzunezkoek, kanpotik ekarritako adituenek baino; horregatik, azken urteotan aretxabaletarrengana jotzen dugu", dio Iñaki San Migel mendizale elkarteko presidenteak. Hala, bada, azken bi urteotan hainbat herritarrek egindako bidaietako argazkiak izango dira ikusgai.

India, Indonesia eta Nepal

Astelehenean, hilak 15, Ana Mari Iñurrategik India eta Nepal aldera iaz egindako bidaiaren berri emango du argazki bidez. Orain dela urte batzuk zendu zen Alberto Etxebarria aretxabaletarrak sortutako fundazioa ezagutzera egin zuen bidaia Iñurrategik beste lagun batzuekin, eta hango kontuak izango ditu berbagai.

Martitzenean, hilak 16, Uxoa Etxebarriak Indonesiaren gaineko berriak ekarriko ditu. Indonesia inguruan eskalatzen jardundako lagunen argazkiak erakutsi eta kontu-kontari jardungo du.

Eta datorren egubakoitzean, hilak 19, iaz Nepalen trekkingean egindako ibilaldien argazki eta kontuak eskainiko ditu Luis Mari Urkiak: "Ohiko ibilbideetan ibili beharrean beste bi ezezagunagoetan egindako irteeretako argazkiak eskainiko dizkigu", dio San Migelek.

ESANAK

"Herritarren emanaldiek sortzen dute interesa"

IÑAKI SAN MIGEL | PRESIDENTEA

Argazki emanaldi guztiak Arkupeko Zaraia aretoan izango dira (19:00).

Hilaren 21ean mendi irteera

Azaroaren 21ean, domeka, emango diote bukaera Mendi Asteari, irteera eginda. Herri inguruko ibilaldia hautatu dute eta Kurtzebarritik Atxorrotzera bidean 11 postontzi topatzeko asmoa daukate: "Postontziok non ote dauden zalantzak izango dituzte batzuek, hara edo hona ote goazen, baina ez goaz argibide gehiago ematera; egunean bertan topatuko ditugu", diote Murrukixoko kideek jakin-mina sortu guran. Lau ordu eta erdi inguruko irteera izango da (09:00etan, Murrukixoko egoitzatik irtenda) eta bueltan babarrun-jana izango dute gertu ibilaldia egindakoek gastronomi elkarte batean. Bazkaltzera geratu gura dutenek aurrez eman behar dute izena eta 15 euro ordaindu –azken egunа: martitzena, hilak 16.

Eguraldi txarra eginez gero aldaketak egingo dituztela irteerako ibilbidean iragarri dute Murrukixoko kideek.

MAPFRE

FONDMAPFRE
BURTSA G VIII

INBERTITU BURTSAN DIRUA
ARRISKUAN JARRI BARIK

• %100eko GARANTIA
• %125eko ERRENTAGARRITASUNA

Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: *angelzubi@euskalnet.net*

Herritarren bertso gosea asetzeko eskola jarriko du abian Loramendik

Gazte eta helduen taldea eguaztenetan elkartuko da eta zabalik dago izenematea

M.A. | ARETXABALETA

Bertso-eskola egituratzen hasi gura du Loramendi elkarteak Aretxabaletan, "bertso-zaletasuna bultzatzeko asmoarekin". Hala, gazteen eta helduen bertso-eskola jarriko du abian eguaztenean, azaroak 17, eta izenemate epea dagoeneko zabalik daukate.

Eguazten guztietan elkartuko da lantaldea udaletxe zaharrean (20:00-21:00) eta Urko Egaña izango dute irakasle. "Edozein neurritako bertsozaletasuna eta bertsozaletzeko edozein neurritako gogoa nahikoa da gazteok eta helduok izena emateko", diote Loramendiko kideek. Izena emateko –bazkideek, 30 euro eta gainerakoek, 40 euro– edo argibide gehiago jasotzeko Loramendira jo –telefono zenbakiak: 943 77 09 70 edo 685 75 67 29, eta helbide elektronikoa: *loramendielkartea@gmail.com*.

Gaztetxoen bertso-eskola

Bestalde, gaztetxoen bertso-eskola ere jarri gura dute abian, urtero legez. Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara arteko gaztetxoendako izango da eta Nerea Urra izango dute haiek irakasle. Egunotan zabalduko dute izena emateko epea.

Bihar erreflexoterapia saioa

Bihar, hilak 13, erreflexoterapia ikastaroa egingo dute udaletxe zaharrean. Egun bakarrekoa izango da, sei ordu: goizez (10:00 -13:00) eta arratsaldez (15:00 -18:00). Jabi Ferrandez izango dute gidari eta teoria eta praktika uztartuko ditu erreflexoterapian adituak.

Bestalde, gaur, egubakoitza, San Migel jaietan taloak egiten jardundakoek afaria egingo dute Untzillako elkartean, Loramendik gonbidatuta.

Basotxok antolatutako kantu eta narrazio lehiaketan parte hartzeko azken eguna: hilaren 17a

M.A. | ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteak antolatutako antzinako kantu eta narrazioen lehiaketan parte hartzeko epea hilaren 17an bukatuko da. Egun hori baino lehen aurkeztu behar dituzte interesatuek lanak.

Gurasoengandik edo aitaita -amamengandik ikasitako kantu eta narrazioak izan behar dute eta gura beste aurkez daitezke. Estiloak eta gaiak ez dute garrantzirik, ezta hizkuntzak ere. Bai kantuak, bai narrazioak grabatu egingo dituzte antolatzaileek, edo, gurago izanez gero, etxean grabatuta ere aurkez daitezke lanak disko baten sartuta. Idatziz ere aurkeztu beharko dira grabatutako lan horiek.

Protagonista izateko aukera

Ekimenak hainbat helburu ditu, hala nola Basotxoko bazkideei protagonista izateko aukera ematea; leku eta giza talde ezberdinetako kultura espresioak mahai gainean jartzea; nagusi guztiek dituztela intereseko altxorrak erakustea; eta altxor horiek jasota uztea. Iaz 45 kantu aurkeztu zituzten eta horiek disko batean jaso. Aurten gehiago izatea gurako lukete.

OHARRAK

ARKARAZOKO JAIAK

San Milixan jaiak hasiko dituzte gaur (20:00) Arkarazo auzoan. Bihar, meza izango dute (13:00), eta auzo bazkaria (14:30). Gero, bolo, mus eta briska txapelketak jokatuko dituzte, eta aitzur eta laia jaurtiketak (17:30).

Domekan, meza izango dute (12:30), eta hamaiketakoa. Arratsaldean, gaztetxoendako jolasak egingo dituzte (17:00), eta suziriekin jaiak bukatu (19:00).

1960AN JAIOTAKOEI DEIA

Azaroaren 26an afaria egingo dute 1960an jaiotakoek Taberna Berrin. Izena jatetxean bertan eman behar da, 20 euro ordainduta; azken eguna: hilak 18.

1957AN JAIOTAKOEI DEIA

1957ko kintoek afaria dute Taberna Berrin azaroaren 20an. Izena emateko tabernara joan behar da azaroaren 18a baino lehen, eta 20 euro ordaindu.

Karmele Igartua omenduko dute zapatuan Bergarako UNEDeko aretoan

Haren poesia liburuen eta bestelako sormen lanen irakurketa egingo dute

EDU MENDIBIL | ARETXABALETA

Idazle Eskolan harekin ibilitakoek Karmele Igartua zena omenduko dute bihar, zapatua, Bergarako UNEDeko aretoan. Ekitaldia 12:00etan hasiko da eta antolatzaileen asmoa hauxe da: Aretxabaletako idazlearen bizitza eta izaera oso-osorik erakustea eta gogoratzea, hain zuzen. "Izan ere, Karmele gauza asko zen: pertsona, emakumea, ama, alaba, emaztea, laguna, euskalduna, irakaslea, sortzailea, eragilea...".

Lagunen irakurketak

Alderdi horiek guztiak islatzeko, Idazle Eskolako adiskideekin batera Karmeleren sendiak, lagunek, Kutzebarri ikastetxeko lankideek eta zenbait idazle -lagunek hartuko dute parte biharko ekitaldian. Omenaldiak hainbat osagai izango dituela aurreratu dute antolatzaileek: ura, haizea, lurra, sua, irudiak, soinua eta, batez ere, Karmeleren sormen lanak izango dira ardatz. 30 lagun inguruk *Hitzak orbainetan* eta *Denbora enaren hegaletan* poema liburuen olerkiak irakurriko dituzte eta, era berean, *www.idazten.com* webgunean argitaratutako zenbait sormen lan irakurriko dituzte parte-hartzaileek.

Argitaratu gabeko lana

Hil aurretik, *Itsaso kontra bat* argitaratzeko prest utzi zuen Karmele Igartuak eta horko olerki batzuk ere entzun ahal izango dira zapatuan UNEDeko aretoan.

Abuztu amaieran hil zenetik hainbat omenaldi egin dizkiote Igartuari: irailaren 18an Hatsa Elkarteak Senperen egin zion omenaldia; irailaren 28an, berriz, Aspaldikuk hartu zuen lekukoa urtero antolatzen duen Nafarroako Poesiaren Biltzarrean; eta urriaren 9an Urepelen ospatu zen Xalbador egunean ere gogora ekarri zuten poeta aretxabaletarra. Aipatutako omenaldi guztietan hartu du parte Idazle Eskolak.

Bestalde, Karmele Igartuari bihar egingo zaion omenaldiak hasiera emango dio Idazle Eskolak aurtengo ikasturterako prestatu duen *Idazleak irakurle* mintegiari. *Amodioak eta eza* gaiaren inguruan jardungo dute ikasleek. Idazle Eskolaren argibide gehiago *http://ieskola.asmoz.org/* webgunean eskuragarri dituzue.

Karmele Igartua idazlea. | GOIENKARIA

ODILO VAZQUEZ

Herriko karatekek bikain jardun dute Lasarten

Domekan Lasarten jokatutako Gipuzkoako karate txapelketan, kadete mailan, Ekaitz Irusta txapelduna izan zen 70 kilotik azpikoetan, kumite modalitatean, eta Pablo Lombardo eta Iker Hervas hirugarrenak izan ziren 70 kilotik gorakoetan. Odei Vazquez 21 urtetik azpikoen mailan lehiatu zen eta katetan bigarren postua eta kumitetan hirugarrena eskuratu zuen, 68 kilotik beherakoen artean. Goiko argazkian, ezkerretik eskumara, Vazquez, Irusta, Lombardo eta Hervas, jasotako trofeoekin.

Yera Sanchezek hirugarren saria eskuratu du Ermuko Kameratoia lehiaketan

E.M. | ARETXABALETA

Yera Sanchezek hirugarren saria eskuratu du Ermuko Kameratoia ikus-entzunezko rallyaren seigarren edizioan. *Ermmugarra* lanari esker 900 euroko saria jaso zuen Sanchezek zapatuko sari banaketa ekitaldian.

Parte-hartzaileek lau eguneko epea izan zuten bost eta hamar minutu bitarteko ikus-entzunezko lanak sortzeko; *Muga-Mugan* gaia landu behar izan zuten eta Ermuko ezaugarrien zerrenda batetik gutxienez hiru erakutsi edo jaso behar izan zituzten egileek. 28 taldek eman zuten izena eta horietatik 15 izan ziren garaiz entregatutako lanak.

Saria dirutan jasotzeaz gain, irabazleen lanak Topagunearen kultura eskaintzaren barruan eskainiko dituzte. Tartean izango da Sanchezen *Ermmugarra*.

'Come, reza, ama'eta 'Shrek 3' filmak aste bukaeran Arkupen

Come, reza, ama filma eskainiko dute asteburuan Arkupen. Gaurko eta biharko (zapatua) emanaldiak 22:00etan izango dira; domekan, 19:30ean ikusteko aukera izango da; eta astelehenean, azkenik, 16:00etan. Bereziki gaztetxoei zuzendutako emanaldia ere izango da domekan, hilaren 14an, 17:00etan: *Shrek 3* eskainiko dute oraingoan.

PIENSOS SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

30. urteurrena
Eguzkigraf, Koop. Elk.
1979-2009

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com

EGUZKiGRAF
KOOP. E.
inprimategia

jai egitarauak
kartelak
gonbidapenak
tarjetak
aldizkariak
inpresoak
errekordatorioak
liburuxkak

NIRE USTEZ

IÑAKI KORTAZAR
Aitzorrotz elkartea

Lana ilusio bihurtzen bada

Herri xume honetan ikaragarria da azkenaldian kulturak izandako gorakada. Herri txikia baina kulturaz betea, hori da Eskoriatza. Norbaitek pentsa dezake handikeriatan ari naizela, baina hori uste duenari gonbita luzatuko nioke, edozein asteburutan herrira etorri eta ikus dezala!

Honen harira, tarte hau aprobetxatu nahiko nuke ekimen zehatz baten gainean berba egiteko: Aitzorock musika jaialdia. Duela urtebete martxan jarri genuen ekimenak jarraipena du, eta aurten ere kontzertu potente bezain gomendagarria antolatu dugu Aitzorrotz Kultur Elkartekook.

Iaz Berri Txarrak taldeak Payola diskoa aurkeztu zuen gurean Deabruak Teilatuetan taldearekin batera eta oso kontzertu arrakastatsua izan zen. Aurten, berriz, Gatibu taldeak hartuko du lekukoa diskoa aurkezteko. Eta Zea Mays taldea ahaztu barik, hauek ere disko berriarekin datoz-eta. Eta, azkenik, kartela osatzeko eta kontzertuari gatza eta perrexila emateko, Amaiur eta Pastors Off Muppets taldeak.

Ikaragarria da Aitzorrotz Kultur elkartea azken bi urteotan egiten ari den apustua horrelako ekintza bat aurrera eramateko, baina lana ilusio bilakatzen da, eta hori da Eskoriatzako kulturak merezi duena. Ilusioz antolatu eta kudeatu ditugu ekintzak eta ilusioz jarraitzeko esperantza...

"Herri txikia baina kulturaz betea gara; bestela, etorri eta ikusi!"

Pedro Lasagabaster | Alkatea

"2008an zuloan sartuta geunden; orain egoerara egokitzen ari gara"

- Agintaldiaz, zaharren egoitzaz eta diru kontuez egon gara alkatearekin
- Egoitzaren auzian sententzia iristear da; justizia egitea espero dute

JOKIN BEREZIARTUA | ESKORIATZA

Agintaldiaren balorazioa egiteko oraindik "goizegi" dela uste du Pedro Lasagabaster alkateak. Hainbat "une ilun eta beltz" bizi izan direla dio, baina baita "une oso politak" ere. Gainera, gai ilunetan argia ikusi dela eta auziok "nahiko ondo" gainditu direla uste du. Une gozoekin geratzen dela esan zuen martitzenean Goiena Telebistako *Magazinea* saioan. Hau da, orain arte agintaldiak eman duenaren gaineko balorazio positiboa egiten du. Hala, konturen bat zehazki nabarmentzeke, hainbat iraultza txiki izan direla aipatu zuen.

Zaharren egoitza: justizia eske

Zaharren egoitzaren auziaren sententzia ez da heldu oraindik. "Laster" helduko da, Lasagabasterren arabera. Auziaren sententzia heltzen denean "justizia egitea" espero du alkateak, "besterik ez". Sententzia Udalaren kontrakoa balitz, Patronatua litzateke kaltetua, Aitor Urrutia kudeatzaile ohiak Patronatuaren kontra jarri zuelako demanda. Kalte-ordainak eskatu zituen Urrutiak karguz kentzeagatik, baina Udalaren ustez ez ditu merezi: "Egindakoak nahikoa eta sobera izan ziren kudeatzaile ohia kargutik kentzeko. Gainera, egoitzak eragindako zorrak kitatzen hasteko eskoriatzarrengana jotzeko asmoa du Udalak.

Horren harira, orain arte irregulartasunen berri ez izatea Urrutiak Udala engainatu izanagatik izan dela uste du Lasagabasterrek: "Zinegotzia izanda, nork pentsatuko zuen gezurretan ari zela?", galdetu zuen alkateak. Horrez gain, irregulartasunak aurreko agintalditik datozela gogoratu zuen. Bestalde, Patronatuan "erreforma handi" bat egin gura duela azaldu zuen alkateak. Patronatua Elizak, Udalak eta herritar batzuek osatzen dute, eta Udalak gura du Patronatua laikoagoa izatea; hau da, herriarengandik gertuago izatea.

Pedro Lasagabaster, *Magazinea* saioan, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

"Justizia egitea espero dut zaharren egoitzaren auzian, besterik ez"

Santa Ana gunerako diru arazoak

Santa Ana guneko aretoa egiteko lanak ondo doaz. Zein izen jarriko dioten ez dute oraindik erabaki, baina izena baino "garrantzitsuagoa da", alkateak uste duenez, "lanak ondo egin eta aretoa ondo amaitzea". 2010ean amaituko dira egitura egonkortzeko lanak; hau da, lanen lehen fasea.

"Izena erabaki baino garrantzitsuagoa da Santa Anako aretoa ondo amaitzea"

Bigarren fasea, berriz, 2011n hasi eta amaitzeko asmoa du Udalak. Hala ere, Aldunditik ez dator berri onik: dirulaguntzak 2012ra arte ez dira helduko. Hori horrela, bestelako finantzazio bideak aztertzen dabiltza.

Aretoaren erabilpenari dagokionez, erabilpen askotarikoa izango da; besteak beste, zuzeneko musika eta hitzaldiak eskainiko dira. 150 lagunendako tokia izango du; alkateak uste duenez, "nahikoa", Eskoriatza moduko herri batendako.

Udala, egoera ekonomiko zailean

Diru aldetik Udalak bizi duen egoera ere izan zuen berbagai alkateak: "Egoera zaila zen eta egun zaila da. 2008an ikusi genuen zuloa eta egokitzen hasi gara", jakinarazi zuen. Industrialdearen salerosketarekin egoera hobetu da, baina aurrezteak jarraitzen du Udalaren ardatza izaten. Izan ere, 2011ko aurrekontuetan ere gastuak txikitzea izango da ardatza, "jasangarritasuna eta iraunkortasuna bermatzeko". Horretan ikasten ari direla gaineratu zuen. Azkenik, datorren urteko inbertsioen artean, izarren artean kokatu zuen Santa Ana auzoko aretoa eta San Pedro auzoaren urbanizazioaren bigarren fasea.

Autobidearen lanek eragindako kalteak direla-eta, bestalde, auzoetako bizilagunak oso haserre daude, alkatearen arabera: "Alboko kalte gehienak konpondu barik daude, eta baliabide aldetik nahiko justu gabiltza kalteok konpontzeko. Bidegikoek amaitu zuten bidea eta kalte gehienak konpondu barik alde egin zuten; ahaztuta utzi gaituztela esan daiteke".

Atez atekoa, "ilusioz" itxaroten

Ingurumena zaintzea da Udalaren beste ardatzetako bat. Hala ere, eta helburua garapen iraunkorra bada, "lan handia" dago egiteko oraindik ere. Hondakinak kudeatzeko orduan, esaterako, atez ateko bilketa sistema "ilusio handiz" espero du Udalak.

Azkenik, asteon abiarazi den ekimen baten gainean ere aritu zen: baserrien izenak errotulatu dituzte. Orain arte Bolibar, Gellao, Mazmela eta Mendiola elizateetan eta Lete auzoko baserrietan jarri dira errotuluak. Ekimena begi onez ikusi dute baserritarrek eta aurrera segituko du, alkateak dioenez.

Villar
Ile apaindegia
Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

Gabonetan nagusiek egonaldia egiteko izenematea zabalik

Aldundiak aldi baterako egonaldiak antolatu ditu erretiratuendako. Hilaren 22a –lehen hamabostaldirako edo hil osorako– eta hilaren 30a –bigarren hamabostaldia– dira eskaerak egiteko azken egunak. Izena emateko eta argibide gehiagorako Gizarte Zerbitzuetara jo –aurrez txanda eskatu –: 943 71 31 36

Begiraleak behar dira Gabonetako haur parkerako

J.B. | ESKORIATZA

Aurten ere Gabonetako jolasparkeak ez du hutsik egingo. Abenduaren 29an eta 30ean jarriko dute aurten, eta ez da lekuz aldatuko. Hau da, kiroldegian egongo da. Parkea aurrera atera dadin, baina, ezinbestekoak dira begiraleak, eta horien beharra du Udalak. Hala, tailerretarako eta puzgarrietarako begiraleez gain, eskalatzeko begirale bi ere behar dira. Aurten, beraz, haur eta gaztetxoek eskalada egiteko aukera izango dute.

Izena emateko bi modu daude: curriculuma kultura etxean edo Gazteria Zerbitzuan entregatzea edo posta elektronikoz bidaltzea *gazteria@eskoriatza.net* helbidera. Harremanetarako telefonoa: 943 71 46 88 (Maider).

Esperientzia, ondo baloratuta

Hasiera baten, ez da gutxieneko baldintzarik bete beharko. Hala ere, Udalak jakinarazi duenez, begiraleak hartzeko orduan kontuan hartuko da haurrekin izandako esperientzia, eskulanak eta tailer ezberdinak egiten jakitea eta eskalada egiten jakitea edo eskaladaren gaineko oinarrizko ezagutzak izatea.

Erregional preferente mailako taldea. | AKE

Juanina Garai: "Jokalarien ilusioan dago denboraldi hasiera onaren gakoa"

Antzuolak Eztalan jokatuko du bihar Euskaldunaren aurka, 16:00etan; Euskalduna 13. postuan dago bederatzi punturekin

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Denboraldi hasiera "oso ona" egiten dabil Antzuolako erregional preferente mailako taldea. Dagoeneko bederatzi partidu jokatu dituzte, eta horietatik sei irabazi dituzte. Hala, sailkapeneko bigarren postuan jarri dira antzuolarrak, Zestoa liderrarengandik puntu bakarrera.

Taldekideen ilusioa

Juanina Garai entrenatzaileak argi du jokalarien ilusioan dagoela emaitzaren gakoa: "Jokalariek ilusio handia dute; eta egiten dutena eurengatik egiten dute. Hori da taldearen gakoa".

Orain unerik onenean daudela argi dauka Garaik, eta horrela jarraitzea eskatzen du.

Maiatzean amaituko da liga

Garaik argi dauka euren asmoa partiduz partidu joatea dela. "Liga maiatz erdialdean bukatzen da eta oraindik ez gara Gabonetara iritsi", gaineratu du Garaik. Liga amaitu bitartean beste hogei bat partidu jokatu behar dituztela dio Garaik, eta partidu guztietan gogotsu irtengo direla.

Etxeko partiduak dira garrantzitsuak, Garairen ustetan: "Horiek dira irabazi beharrekoak". Antzuolaren estrategia jokatzea dela gaineratu du Garaik. Bestalde, jokalariek egiten duten horretan sinesten dutela dio, eta defentsan ondo dabiltzala.

Bihar, 16:00etan, Eztalan

Antzuolak bihar jokatuko du, Euskaldunaren aurka, Eztalan. "Preferente mailatik jaitsi den taldea da, eta orain arte kaskar samar dabil", azaldu du Garaik.

Entrenatzaileak agindu die jokalariei jarraian hiru partidu irabaziz gero afari bat irabaziko dutela: dagoeneko bi afari zor die entrenatzaileak jokalariei. Eta hasi besterik ez dira egin.

Hamar talde lehiatuko dira patata tortilla onena egiteko

A.E. | ANTZUOLA

Independentzia Eguna ospatuko dute bihar, Gazte Asanbladak antolatuta. Udazkeneko hotzari aurre egiteko menu berezia antolatu dute: besteak beste, salda, babak eta jolasak.

Salda beroarekin hasiko dute eguna. 11:30ean izango da, gaztetxean. Han bertan, tortilla patata lehiaketa egingo dute. Izena eman dute hamar taldek. Osagaiak antolatzaileek jarriko dituzte eta materiala parte-hartzaileek eraman beharko dute.

Baba-jana

Behin txapelketa amaitutakoan, triki poteoa egingo dute herriko kaleetan. Bazkaltzeko, ostera, frontoian elkartuko dira. Babak izango dituzte, iaz bezala. Tripa beteta dutela, herritarren arteko jolasak egingo dituzte. Han, aukera izango dute euren abileziak erakusteko. Afalordurako gaztetxera joan beharko dute; izan ere, han egingo dute afari-pasada Unai eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin. Hortaz, maila goreneko bertsolariak izango dira Gaztetxean.

ZAPATUKO EGITARAUA

11:30 Salda beroa eta patata tortilla lehiaketa.

Ondoren Triki poteoa.

14:30 Gazte baba-jana.

Bazkalostean Herritarren arteko jokoak.

20:30 Afaria bertsolariekin.

22:00 Kontzertua: Kasik eta Egurra ta kitto. Erromeria.

Oihulari Klown taldearen emanaldia hilaren 20an

Oihulari Klown taldeak azken lanaren aurre-estreinaldia egingo du herrian azaroaren 20an. Torresoroan izango da, 20:00etan, eta 15 urtetik gorako neska-mutikoei zuzenduta dago. Esan behar da euskarazko bertsioaren aurre-estreinaldia izango dela eta sarrera doan dela.

Argazki lehiaketako lanak ikusgai datorren aste bukaeran

Hilaren 20an eta 21ean ikusgai egongo dira argazki lehiaketako lanak Olaran etxean 18:30etik 20:30era.

Gainera, herritarrek aukera izango dute euren botoa eman eta herriko argazki onena saritzeko. Sariak hilaren 28an banatuko dira, 18:30ean, Olaranen.

Hitzaldia, pertsona nagusien maitasunaren gainean

A.E. | ANTZUOLA

Erretiratuen elkarteak eta Bizikasik pertsona nagusien gaineko hitzaldia antolatu dute azaro bukaerarako. *Amor y afectividad en las personas mayores* izango da hitzaldiaren gaia.

Azaroaren 24an izango da, erretiratuen elkartean bertan –Torresoroa–, 17:00etan. Ana Oiartzun psikologo eta sexologoa izango da hitzaldia egingo duena. Herritar guztiak daude gonbidatuta hitzaldian parte hartzera. Pertsona nagusiek behar duten maitasunaz eta afektibitateaz jardungo dute hitzaldian. Etxean pertsona nagusiak dituzten familiartekoei erakutsiko zaie zelako beharrak dituzten nagusiek maitasunari eta afektibitateari dagokionez.

Loteria hartzeko egunak

Bestalde, erretiratuen elkartekoek dei bat egin dute: Gabonak gainean ditugunez, urtero egiten duten moduan aurten ere Gabonetako Loteria atera dute erretiratuek. Txartelak hartu gura dituztenek erretiratuen elkartetik pasa beharko dute, hilaren 17an eta 18an –eguaztena eta eguena–, 16:00etatik 18:00etara.

Gaztaina-erre jana

Azkenik, erretiratuek beste ohiko hitzordu bat ere antolatu dute datozen egunetarako; datorren zapaturako, azaroaren 20rako, hain zuzen. Gaztaina-erre jana egingo dute erretiratuek 18:30ean erretiratuen elkartean bertan. Parte hartzeko, baina, aurrez izena eman beharra dago.

Erretiratuek hainbat ekintza antolatu dituzte azkenaldian, guztiak ere euren beharrei zuzendutakoak.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

San Melixenak ospatuko dituzte gaurtik domekara bitartean Gantzaga auzoan

Tortilla lehiaketa zapatuan eta txirrindulari igoera domeka eguerdian

EDU MENDIBIL | ARAMAIO

San Melixenak ospatuko dituzte Gantzagan gaurtik domekara bitartean. Kantu afaria izango da gaur, barikua, Izpizte elkartean. Bihar, zapatua, 12:00etan Aretxabaletako abesbatzak lagundutako meza izango da; jarraian txapel poteoa eta 17:00etan mus txapelketa jokatuko da. Ondoren, 17:30ean, urtetik urtera gero eta arrakastatsuagoa den tortilla lehiaketa egingo dute. Bien bitartean, txikienendako marrazki lehiaketa izango da eta gauerako erromeria iragarrita dago: Jon Ostolatzak eta Unai Andonegik alaituko dute giroa.

Azkenik, domekan, hildako auzotarren aldeko meza 11:00etan; txistularien emanaldia jarraian eta 12:30ean Gantzaga txirrindulari proba. Kirol probaren ostean, bermut dantza izango da trikitilariekin eta 17:00etan tute txapelketa.

Orain dela bi urteko tortilla lehiaketako partaideak. | JONE INUNTZIAGA

Trikitilarien jaia gaur

Era berean, San Martin jaien barruan, gaur, barikua, trikitilarien jaia izango da Aramaion: kalejira egingo dute herriko trikitilariek 17:30ean eta jarraian buzkantzak, txorizoa eta ardoa hartzeko aukera izango da. Bukatzeko, 19:30ean, Athleticen, Realaren eta Irujo pilotariaren kamiseten zozketa egingo dute udaletxeko arkupeetan.

Iker Agirre. | ARGAZKI PRESS

Iker Agirre gaur Laudion, Bertxoko lehiaketan

E.M. | ARAMAIO

Iker Agirre bertsolariak Bertxoko lehiaketan jardungo du gaur, barikua, Laudion. Aramaioarrak aurrean izango ditu Julio Soto (Gorriti), Ainhoa Mujika (Beasain), Peio Ormazabal (Arrigorriaga), Aimar Karrika (Auritz) eta Izar Mendiguren (Laudio). Olatz Bayer izango da gai-jartzailea. Laudioko Basalarrina elkartean izango da gaurko saioa, afalostean. Finalerako bi txartel izango dituzte jokoan bertsolariek.

Arabako Bertsozale Elkarteak eta Hala Bedi Irratiak antolatuta, 25 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa da Bertxoko.

Bigarren kanporaketa

Hiru kanporaketa aurreikusita daude eta bakoitzetik bi bertsolari sailkatuko dira azaroaren 26ko finalerako. Hain zuzen ere, aurreko astean jokatu zen lehenbiziko saioa, Ozetan, eta Jone Uriak eta Odei Barrosok eskuratu zuten finalerako txartela.

Azaroaren 26ko finala Trebiño sagardotegian jokatuko da. Manex Agirre aramaioarrak jardungo du gai-jartzaile finalean. Joateko interesa dutenek 675 70 79 71 telefonoan egin dezakete afarirako izenematea.

Zuiako argazki onenak Murgiako udaletxean

Zuiako Koadrilak antolatutako argazki lehiaketako irudi politenak ikusgai jarri dituzte Murgiako udaletxean. 137 lan jaso zituzten eta Iñigo Montoyak eraman zuen sari nagusia. Era berean, Aramaioko irudi onenaren saria irabazi zuen, alboan ikus daitekeen *Otoño* lanari esker. Aramaioko hiru lagun izan ziren partaideen artean.

IÑIGO MONTOYA

'Aramaixo ezagutuz' mendi irteera bihar, zapatua

Orixol mendi elkartearen eta Aramaioko Gazte Asanbladaren eskutik, *Aramaixo ezagutuz* mendi irteera egingo dute bihar, zapatua. Aramaioko plazan elkartuko dira, 09:30ean, eta hamarretakoa norberak eramatea eskatu dute antolatzaileek. Era berean, herritarrei biharko ibilaldian parte hartzeko gonbidapena egin diete.

Mendizaletasunari eta segurtasunari buruzko jardunaldia

Domekan, azaroaren 14an, mendizaletasunari eta segurtasunari buruzko lau orduko jardunaldia egingo dute Gorbeiako parkean. Teoria eta praktika uztartuko dituzte. Izenematea 945 43 07 09 zenbakian edo helbide honetan egin behar da: *parquegorbeia@parques.alava.net*. Plazak mugatuak dira.

Bi film emanaldi asteburuan kultura etxean

Millennium trilogiari amaiera emateko, azken zatia, *La reina en el palacio de las corrientes de aire*, eskainiko dute gaur, barikua, kultura etxean, 22:15ean.

Domekan, 17:00etan, bereziki haurrei zuzendutako emanaldia izango da. *Alvin y las ardillas 2* filma eskainiko dute.

Ondasun higiezinen gaineko zerga, azaroaren 20ra arte

Ezaugarri bereziko eta hiri eta landa-lur ondasun higiezinen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea azaroaren 20ra arte dago zabalik. Ohikoa denez, borondatezko epea amaitu ondoren, ordaindu gabeko kuotak %5eko gainkarguarekin kobratuko dituztela gogorarazi du Aramaioko Udalak.

Orri markagailu lehiaketaren bosgarren ekitaldia

Orri markagailu lehiaketarako lanak hilaren 19ra arte jasoko dituzte Zuiako Koadrilan. Lau maila bereizi dituzte: 2-10 urte; 11-14 urte, 15-17 eta 18 urtetik gorakoak. Kategoria bakoitzeko hiru sari izango dira: 150 euro, 100 euro bigarrena eta hirugarren saria 60 euro. Argibideak: 945 43 01 67.

ELGETA

Proposamen ugari jaso dira Elgeta 2020 ekimenaren lehenengo bileran

Osasun Zerbitzua zabaltzea lehentasunezko neurritzat hartu dute herritarrek; hurrengo bilera hilaren 18an izango da kultura etxean

LANDER MUÑAGORRI | ELGETA

Joan den eguenean Elgeta 2020 ekimeneko lehen bilera egin zuten kultura etxean. Udaletik herritarren parte-hartzea sustatu nahi da proiektu horrekin, eta herri agintaritzatik adierazi dutenaren arabera, erantzun ona izan du ekimenak elgetarren artetik. Lehen bilera horretatik emaitza interesgarriak jaso dituzte, eta herritarrak ere gustura agertu ziren. Batzar horiekin, Elgetaren etorkizuna bideratu nahi da, eta horretarako herritarrei herriak dituen premiei buruz galdetu zaie.

Partaidetzaren balorazio positiboa egin zuten Udaletik; izan ere, 14 herritarrek hartu zuten parte Elgeta 2020 bileran, eta ondorio zehatzak atera zituzten denen artean. Osasun zerbitzua zabaltzearen neurriak lehentasuna du herritarren artean, batez ere pediatra zerbitzua. Horretaz gain, kalitatezko garraio publikoa eta inguruko herriekin loturak sendotzea ezinbestekotzat daukate herritarrek, elkarte eta herri mugimenduak laguntzeaz gain. Izan ere, Elgetak gaur egun duen bizitasuna izaten jarrai dezala nahi dute herritarrek. Horretaz guztiaz gain, herri barruan autoen zirkulazioa murriztea garrantzitsua dela uste dute elgetarrek, eta horretarako kontzientziazio lana egin beharra ikusten dute.

Parte hartu zuten herritarrek positiboki baloratu zuten esperientzia hori, eta interesgarria eta arina izan zela azaldu. Horretarako, bileraren dinamika garrantzitsua izan zen oso, talde txikietan banatuta gai bakoitza jorratzeko denbora mugatua eduki baitzuten.

Hurrengo bilera

Elgeta 2020 ekimena gauzatzen jarraitzeko, hurrengo bilera azaroaren 18an izango da, eguena. Kasu honetan ere kultura etxean izango da, eta herritar guztiei zuzenduta dago. Jorratuko diren gaien artean hirigintza, garapen ekonomikoa, turismoa eta natura ondasuna egongo dira.

Informazio gehiago lortzeko edo proposamenak helarazteko bide ugari daude; *www.elgeta.org*, Facebookeko orria (*Elgeta 2020* izenarekin) edo udaletxeko sarreran dagoen herritarren postontzia.

Herri barruan gaizki aparkatuta egoteagatik isuna jaso duen auto bat. | JULIO CALLEJA

ELGETA

Azarorako amaituko dute txirrindugune berria

L.M. | ELGETA

Elgetako txirrindugune berria egiteko lanak amaitzeko bidean daude. Atletismo pista baten itxuran egiten ari dira txirrinduendako bideratutako gunea, eta aldapak eta saltoak egiteko prestatuta egongo da. Hasitako lan horiek amaitzeko, segurtasun hesia jartzea eta betelana egitea falta da. Lurra sartzeko lanak atzeratu egin direla jakinarazi dute Udaletik, eguraldia dela-eta lokatz ugari sortu baita.

Gazteendako eta zaharrendako egongo da bideratuta txirrindugune berria, eta haurrek nagusien laguntzarekin erabili beharko dute. Gunera sartu ahal izateko, bestalde, ezinbestekoa izango da kaskoaren erabilera.

Gazteen ekimena

Hilerriaren ondoan egiten ari diren txirrindugunearen proiektua herriko gazteen ekimenez sortu zen. Udalari proposamena egin, eta haien aholkularitzarekin ari dira lanak egiten, azpiegiturak behar den baldintzetan egiteko. Oxel Erostarbe alkatearen hitzetan, "parte hartuz gero Udala alboan edukiko dutela garbi eduki behar dute herritarrek". Azarorako lanok amaituta eta txirrindugunea erabilgarri egotea aurreikusten dute.

4 T'ERDIKO PILOTA TXAPELKETA

Hamar partidu aste bukaeran

Pilota txapelketako bosgarren norgehiagokaren atarian gaude. Finalerdietan sartzeko grina duten bikoteak hasiak dira dagoeneko orain arte lortutako puntuen batuketak egiten. Ea tanto ikusgarririk eskaintzen duten!

BARIKUKO PARTIDUAK, 20:00ETAN

K. Goenaga-A. Arantzabal / J. Bolinaga-I. Izagirre
Elortza-H. Zenitagoia / I. Retolaza-J. Larrañaga
M. Irazabal-I. Ibaibarriaga / S. Ramos-E. Salaberria
D. Peñalver-S. Bouzas / K. Erostarbe-E. Garate

DOMEKAKO PARTIDUAK, 10:00ETAN

P. Larrea-M. Elkoro / A. Morales - F. Zenitagoia
Zubiaurre-I. Ugarteburu / L.A. Alkorta-G. Bolinaga
O. Askasibar-E. Elkoro / Erostarbe-Arizmendiarrieta
I. Irazabal-G. Bolinaga / H. Gallastegi-K. Odriozola
Arrazola-M. Ormaetxea / M. Irazabal-I. Ibarbarriaga

ELGETA

Auzolanean Arraoz eta Azurtza arteko bidea garbitzeko deia

Arraoz eta Azurtza baserrien arteko bide bazterrak garbitzeko deialdia egin du Udalak zapaturako. Lan horiek auzolanean egingo dira, eta hamarretakoa Udalaren kontura joango da. Nork bere erremintak eraman beharko ditu; pala, aitzurra eta tankerakoak. Hitzordua zapaturako egin dute, 09:00etan, Azurtzako bidegurutzean.

Zaborren kudeaketari buruzko hitzaldia hilaren 18an

Pil-pilean dagoen gaia da zaborren kudeaketarena, eta uneotan Debagoieneko Mankomunitateak mahai gainean dauka. Gipuzkoako Zero Zabor taldeak antolatuta hitzaldi irekia egingo dute herrian datorren eguenean, hilak 18. Hitzordua Udal Liburutegian egin dute, 20:00etan. Herritar guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatutak.

Bizikasik eta Udalak antolatuta ikastaroa, hilaren 29an hasita

Udalaren eta Bizikasiren artean antolatuta, *Dementziak: nola jokatu eta jarrera nahasteak nola maneiatu* ikastaroa eskainiko dute hilaren 29an hasi eta abenduaren 22ra arte. Astelehenetan eta eguaztenetan egingo dira eskolak 17:00etatik 19:00etara. Hilaren 25a da izena emateko azken eguna. Argibide gehiago 943 769 394 telefono zenbakian.

LEINTZ GATZAGA

Bideberri mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzuak Internet bidez kontsulta daitezke

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagak osatutako Bideberri mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak Internet bidez kontsulta daitezke. Udalaren web atarian –*www.leintzgatzaga.com*– egin diote lekua mankomunitateari eta gizarte zerbitzuen gaineko berri guztiak jaso dituzte.

Martitzenetan, udaletxean

Hainbat sailetan banatu dute bertako informazioa: *Haurrak eta Familia; Emakumea; Hirugarren adina; Drogak; Etorkinak*; eta beste hainbat. Eta gai bakoitzaren gainean dauden laguntza eta zerbitzu guztien berri jaso dute atalen barruan. Hala, bada, emakume sailean daude jasota: Berdintasun Planaren gaineko nondik norakoak; tratu txarrak jasandako emakumeendako baliabideen gidaliburua; laguntza juridiko eta psikologikoak non eskatu...

Hirugarren adinekoen barruan daude: etxerik etxeko zerbitzua; eguneko zentroak eta egoitzak; telealarma eta telezerbitzuak; Sendian programa eta Mendekotasun Legea; eta beste hainbat kontu.

Horiez gain, dirulaguntzen gaineko argibideak daude jasota eta gurasoendako Debagoienean argitaratzen duten aldizkariaren zenbakiak ere bertan daude.

Bestalde, gizarte laguntzailearekin zuzenean egoteko Gatzagako udaletxera jo behar da martitzen goizetan (09:00-13:00). Hitzordua aurrez egin behar da telefonoz edo helbide elektronikoz: *ongizatea@leintzgatzaga.com*.

LEINTZ GATZAGA

Lego League lehiaketarako laguntza eskatuko dute

Gatzagako gaztetxo koadrila bat First Lego League lehiaketan parte hartzeko asmoarekin dabil lanean azken hilabeteotan. Dirua ere behar dute horretarako eta postutxoa jarriko dute domekan, San Milixan eguneko feria dela -eta, parrokia azpiko aterpean. Herritar zein bisitarien laguntza eskertuko dute.

ATLETISMOA

Behobia-Donostia jendetsuenean, ibarrean ere errekorrak apurtzera

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Domekan egingo duten maratoi erdiak errekor guztiak hautsiko ditu parte-hartzeari dagokionez, 20.000 lagun egongo dira-eta irteera puntuan. Eta, azken hilabeteotan Debagoieneko lasterketek izan duten *boom*-aren ondoren, badirudi Debagoieneko lasterkari kopuruak ere gora egingo duela; iaz 439 debagoiendar iritsi ziren helmugara, ea aurten kopuru hori zenbat aldatzen den.

Korrikalariei dagokienez, lasterketako gizon azkarrenen arteko lehian Salamancako Rafa Iglesiasen –iazko irabazlea– eta Madrilgo Chema Martinezen –lautan irabazi du proba– artean lehia galanta izango da. Martinezek dagoeneko aurreratu du bere errekor propioa ontzera datorrela (1.00.31), eta baita lasterketa horretan Alberto Juzdadok duen errekorra ontzera ere (59.19).

Ibarreko azkarrenak

Eta debagoiendarren artean, zer? Iaz Ekaitz Osa oñatiarra izan zen gizon azkarrena (1.08.14), eta ondoren helmugaratu ziren Arkaitz Ruiz de Loizaga (1.10.17) eta Asier Urdanpilleta –Antxintxika krosean izan ziren azken bi horiek. Emakumezkotan, berriz, Josune Garitano izan zen onena (1.24.36), eta Maitane Lana bigarren (1.29.19).

Arkaitz Ruiz de Loizaga bergararra, iaz, helmuga zeharkatzen. | J. ARANTZABAL

SASKIBALOIA

Sustrai Aloña Mendiren eta MUren arteko derbi historikoa, bihar

X.U. | ARRASATE

Bihar (18:00) Sustrai Aloña Mendik eta Mondragon Unibertsitateak partidu historikoa jokatuko dute Zubikoan, lehen nazional mailan debagoiendarren arteko derbia izango dugu -eta.

Hala, kategoria horretan hainbat urtean jokatzen dabilen MUk iritsi berri baten kantxara egingo du bidaia; iritsi berria bai, baina geratzeko asmo tinkoa duen Sustrai Aloña Mendiren kantxara.

Hiru urte etxean galdu barik

Kontuan hartzeko moduko datua da Sustrai Aloña Mendirena, Igartuaren mutilek hiru urte daramatzate-eta etxean galdu barik: "Etxean oso seguru sentitzen gara, baina markagailuan atzetik hasten bagara, etxean horrenbeste denboran galdu ez izana gure kontra etor daiteke, presio modura. Gainera, hiru urte horiek ez dira maila honetan izan, beheragoko kategorietan baizik". Normala den moduan, Oñatikoek ez dute faboritoaren txartelik nahi.

MUko Kintanarendako Aloña da faborito: "Gu baino hobeto hasi dira, eta euren kantxan jokatzen dugu. Baina gu sorpresa ematera goaz, galtzeko gutxi dugu, dena irabazteko".

'Mallabi', saskiratzea egin nahian, defentsa artean. | GOIENKARIA

ZIKLISMOA

Jon Odriozola | Bidelan-Kirolgi taldeko zuzendaria

"Urteotan etxetik jarraitu dut ziklismoa, eta badago zer aldatu"

- Oñatikoak amateur mailako talde indartsuenetako bat zuzenduko du
- Aurrera begira Gipuzkoan talde profesional bat ateratzeko dabil lanean

A.EZKIBEL/ X.URTZELAI | OÑATI

Jon Odriozolak bi urte daramatza maila profesionaleko txirrindularitzatik kanpo, baina Gipuzkoan talde profesional bat sortzeko sukalde lanean ibili da, komunikabideen fokuetatik kanpo. Bada, horrekin aurrera egiteko asmoa du, baina epe motzean beste erronka bati heldu dio: txirrindularitzaren hastapenera itzuliko da, amateur mailara. Erronka berriaren eta, orokorrean, txirrindularitzaren gainean egin dugu berba Odriozolarekin.

Lasterketetatik kanpo, baina txirrindularitzatik gertu egon zara bi urte hauetan.

Etorkizunari begira Gipuzkoan ziklismoko talde profesional bat sortzea dut helburu, txirrindularitzako Reala izango litzatekeena, eta horretan ibili naiz lanean. Proiektu horrek bere bidea darama, instituzioekin izan gara, babesle batzuk ere interesatuta daude, eta proiektua aurkeztea falta da, jendea anima dadin. Egia da egungo egoera ez dela horrelako proiektu bati ekiteko aproposena. Aurrera begira, baina, hori da helburu nagusia.

Aurten Bidelan-Kirolgi taldeko zuzendari izango zara.

Ilusio handia egiten dit proiektu honek, ziklismoaren oinarrira itzultzea izango da. Polita da berriro ere kirol kudeaketari heltzea; neurri handian Orbean egiten nuen lana egingo dut hemen, zuzendari nagusia izango naiz, eta nik hartuko ditut erabakiak; lan handia da, baina esker onekoa da. Hau da lehenengo pausoa, amateur mailan hastea, aurrerago aipatutako profesional mailako taldea sortzeko.

Urte hauetan gertutik jarraitu duzu ziklismoa?

Etxetik jarraitu dut, eta ikusi dudana ez zait gustatu, dopin kontuak baino ez ditugu esku artean, eta horrek aldatu egin behar du. Lehen, txirrindularitzaren inguruan ilusio handiagoa zegoen, ziklistok ere errespetatuagoak ginen, eta hori guztia galdu egin da. Baina beheko kategorietatik lana ondo eginez aldatu behar da hori, eta agintariei erakutsi behar diegu beheko kategorietan behar dela dirua, hor behar dira bitartekoak gazteekin lana ondo egiteko.

Zer-nolako taldea izango duzu Bidelan-Kirolgin?

Gaurtik hasi behar dugu denboraldia prestatzen, ziklista guztiak ez ditudalako ezagutzen. Baina egunotan Luxenburgotik eskaintza bat jaso dugu, gurekin korritzera etorri nahi duen ziklista gazte batena. Schleck anaien laguna da, eta haren zuzendariak uste du gurean asko ikas dezakeela. Gure asmoa Gipuzkoa mailan lan egitea da, baina irekita gaude proposamen guztietara. Horrelako erronkak politak dira, ea zertan gauzatzen den.

Zeure filosofia propioa ezarri nahi duzu. Zertan datza?

Batetik, txirrindularien formakuntza oso garrantzitsua da, eta txirrindularitzan mentalitatea aldatu behar dugu. Jakinda, baina, lasterketak dauden momentuan, irabazteko daudela.

Jon Odriozola, Bidelan-Kirolgi taldeko zuzendari berria. | ARANTZAZU EZKIBEL

"Neurri handian, Orbean egiten nuen lana egingo dut hemen"

"Helburu nagusia Gipuzkoan talde profesional bat sortzea da"

FUTBOLA

Mondra eta Aloña Mendi, azken sailkatuen kontra

X.U. | ARRASATE

Oraingo asteburuan Mondrak (14) eta Aloña Mendik (9) jokatuko dute etxean, hain zuzen, sailkapenean azken lekuetan dauden Zumaiakoren (4) eta Rotetaren (6) kontra.

Azkenak izanda ere ez dira hankamotzak, baina etxeko taldeek dituzten helburuendako, Mondrak eta Aloñak garbi dute etxean jokoan egongo diren hiru puntuek ezin dutela ihes egin. Arrasatekoen kasuan, are gutxiago ligan partidu bakarra irabazi duen Zumaiakoren kontra (Mojategi, 16:30). Oñatiko taldeak puntu bat ekarri zuen joan den astean, baina ez dude oparitarako, are gutxiago behetik irteteko kontrario zuzena den Rotetaren aurrean (Domeka, 16:30, Azkoagain).

Hirugarrenaren etxera

Joan den astean oxigenoa ematen duten partidu horietakoa irabazi zuen Bergarak, eta bihar hirugarren postuan dagoen Anaitasunaren zelaian jokatuko dute (16:30, Txerloia).

UDAk, azkenik, Ordiziaren zelaian berreskuratu nahiko ditu bihar (16:00) Hernaniren kontra ihes egindako puntuak.

Euskarak elkartzen gaitu.

Euskaraz lan egiten dugu. Euskaraz bideratzen ditugu gure harremanak, bai barnean, bai bezeroei begira. Eta euskararen aldeko apustuari eusten diogu, **euskara ardatz harturik Gipuzkoan** sustatzen ari diren **zenbait egitasmo estrategikotan** auzo-lankide jardunez buru-belarri, hala nola:

- **Mintzola Fundazioa**n, bertako patroi.
- **Soziolinguistika Kluster**rean, bazkide.
- **Gaindegia** behategiaren babesle.
- **Ahotsak.com** ahozko ondarearen bilketan laguntzaile.
- **Euskarazko zerbitzua**ren kalitatea sustatuz, Gipuzkoako Foru Aldundi eta hainbat udalekiko hitzarmen-kide.

Eta gizarte eta kulturazko beste hainbat ekimen ere babestuz.
Euskara gure nortasunaren *muin betierekoa* delako. Elkartzen gaituen hizkuntza.

gizarte kutxa
zugandik zugana

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

TELEBISTA
52. KANALA
INTERNET
GOIENA.NET
PAPERA
ORAIN ARTEKO
GOIENKARIA

GOIENA
10 URTE

URTEURREN JAIALDIA **32** | GOIENAREN BILAKAERA **34** | KANTUA ETA MARRAZKIA **36** | ORAINA ETA ETORKIZUNA **38** | IRUDI BERRIA **40** | GOIENA SAREAN **41** | TELEBISTA **42** | PUBLIZITATEAREN GARRANTZIA **44** | EUSKARAZKO HEDABIDEAK GAUR **46** | IRITZIAK **48** | ZORIONAK, GOIENA! **50** | BIDEO KLIPA ETA *LIP DUB*-A **54**

IRUDIA: MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA (XEHETASUNA)

LASA jatetxea

Ozaeta jauregia
Tel.: 943 76 10 55
BERGARA

Gustua eta luxua denon eskura

Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.

Kolaboratzaileak omendu ditu Goienak, eta irudi berria aurkeztu

- Arrasateko Amaia antzokia bete egin zen ekitaldian
- Goienak hedabide berrituak aurkeztu zituen
- Bideo ikusgarriak eta une hunkigarriak izan ziren

Euskara elkarteetako ordezkariak; Goienaren sorreran egon zirenak eta oraingo kideak.

EKTko ordezkariak, Iban Arantzabal eta Estepan Plazaolarekin.

Agurtzane Gaintzarain eta Eneko Azkarate, Noticias taldekoekin.

GOIENA | ARRASATE

Traje luzea jantzi, dotore apaindu, eta lagun artean ospatu zuen 10. urteurrena Goienak atzo. Arrasateko Amaia antzokia bete egin zen ekitaldi berezirako. Han batu ziren Goienaren sortzaileak; 2000. urtean udaletan zeuden agintariak eta gaur egungo alkate eta zinegotziak; euskara elkarteetako orduko eta gaur egungo ordezkariak; Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak; Goienako organoetan eta hedabideetan kolaboratzen jardun dutenak, eta Goiena sortu aurreko Debagoieneko herri hedabideetan ere musu-truk urtetan jardun dutenak. Oro har, Debagoieneko hainbat pertsona ezagun: enpresa eta hezkuntzakoak, kirolariak, kulturakoak, dendariak...

Ekitaldi berezia prestatu zuten okasiorako. Kolaboratzaileak omendu eta Goienaren irudi berria eta hedabide berrituak aurkezteko. Zuzenean eman zuen Goiena Telebistak eta baita *Goiena.net*-ek ere, azken honek streaming bidez. Otalorako egoitzatik kanpo historiako zuzeneko lehen emanaldia izan zen atzokoa telebistarendako.

Goienak agintari makila eman zion Estepan Plazaola lehendakariari

'Komunika' abestia, bideoklipa eta 'lip dub'-a aurkeztu zituzten

Urte askoan Goienan musu-truk lanean ibilitakoak omendu zituzten

Opari eta guzti etxera

Goiatz Aranak eta Xabier Urtzelaik aurkeztu zuten jaialdia. Kepa Errasti aktorea izan zuten lagun. Haren parodiek, esketx dinamiko eta umorezkoek, irribarrea eragin zuten. Gauza eta pertsona asko ikusi genituen: bideoak, iritziak, galdera-erantzunak...

Osintxuko Musiraka dantza taldearen emanaldia, The Wet Band azkeneko Danbakako irabazlearena, Goio Arrietaren musikazko parodia barregarriak... Bi une bereziki hunkigarriak: urtetan Goienako eta aurreko kolaboratzaile izan direnei egin zitzaien omenaldia eta Goienako lehendakari Estepan Plazaolari egin zitzaiona. Agintariaren makila jaso zuen Plazaolak Agurtzane Gaintzarain Goienako giza baliabideetako eta administrazioko zuzendariaren eskutik.

Era berean, ikusmina sortu zuten Goienak 10. urteurrenerako propio sortu duen abesti eta abestiaren bideoklipak eta *lip dub*-ak. Azken hori, Goienako langileek mozorroak soinean eta ezohiko roletan grabatua. Ikus-entzuleak oparia rekin joan ziren etxera, *Komunika* abestiaren CDarekin.

Alkate ohiak, Goiena sortzen lagundu zutenak.

HUHEZIko ordezkari batzuk.

Jon Urtzelai eta Iban Velasco..

Foru Aldundiko arduradun batzuk..

Gaur egungo alkateak.

Goienaren kolaboratzaileak, euren idatziekin Goiena elikatzen dutenak..

Jaurlaritzako Euskara arduradunak. | ARGAZKIAK: JOSETXO ARANTZABAL / JULIO CALLEJA.

< HIZKUNTZA KUDEAKETA ERAGINKORRA LORTZEKO BIDERIK ZUZENENA

- HIZKUNTZA AHOLKULARITZA eta EUSKARA PLANAK (enpresa, administrazio eta bestelakoetan)
- EUSKARA PRESTAKUNTZAKO MODULU BEREZIAK
- ITZULPEN ZEBITZUA

Zorionak, Goiena!

EMUN LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA | www.emun.com www.lantalan.com

CMU

UDALAITZ zentro medikoa

Euskal Herria 3 behea - Nafarroa etorbidea 3 ARRASATE
Tel.: 943 79 44 22 Faxa: 943 79 44 56
inform@cmudalaitz.com

Hamar urte eta hamaika lan

Sorreran finkatutako helburu eta irizpideei eutsi die Goienak, baina egoera berrietara egokitzen jakin du, unean uneko arazo, erronka eta joeren aurrean irtenbideak proposatuta

Goienarekin bat egin zuten alkateak, Mikel Irizarrekin. | ARTXIBOA

Asteleheneko Goi

Goienaren sorrera batzarra Aretxabaletako Otaloran. 2000ko martxoa. | ARTXIBOA

GOIENA | BERGARA

1999. urtean hasi zen guztia. Bueno, hori esatea ere ez da erabat zuzena. Goienaren aurrekaria aurkitzeko atzerago egin beharko genuke: *Arrasate Press* sortu zeneko sasoira, 1988ra. AEDk bultzatutako euskarazko astekaria bihurtu zen jarraibide.

Arrasatekoak asmatu zuen eredua: erakunde publikoek eta merkatarien iragarkiek diruz finantzatutako herri egitasmoa; euskalduna; herriko gertaeren berri emango zuena; eta, etxez etxe doan banatuz, populazio osora, familia osoak irakurtzeko, zabalduko zena. Haren ondotik etorri ziren beste herri hedabideak: paperekoak gehienak, eta baita telebista eta irratia ere.

Multimedia egitasmoa

Parentesia eginda, 1999an kokatuko gara: orduan hasi ziren herri egitasmoak bailarara zabaltzeko batzarrak. Arrasateko AEDren, edo komunikabideak kudeatzeko hark sortutako Arkoren, eta Bergarako Jardun euskara elkartearen artekoak. Handik gutxira batu ziren Debagoieneko gainerako herrietako euskara elkarteak eta urte amaierarako adostuta zuten Goiena egitasmoa.

Multimedia proiektua hasieratik. Papera, telebista, irratia eta teknologia berriak aintzat hartuz, bailara osora berriak euskaraz hainbat euskarritan emateko sortutako proiektua. Enpresa eredua: kooperatiba. Euskara elkarteak nagusi, baina udalak proiektura batuz; hirugarren hanka, langileak: lan bazkideak.

Notarioaren aurrean euskaraz

2000ko martxoaren 31n egin zen Goienaren sorrera batzarra Aretxabaletako Otalora jauregian. Ofizialki, hala ere, urte bereko ekainaren 27an sortu zen Goiena. Orduan sinatu ziren-eta, notarioaren aurrean, enpresa sortzeko paperak. Bilbon. Andres Urrutia Euskaltzaindiko buruaren bulegoan. Euskaraz.

Lehenengo, telebista

Telebista izan zen bailarara hedatzen lehena. Arrasate Telebistaren eta Atxabalta Telebistaren baturatik sortu zen Goiena Telebista, 2000ko maiatzaren 22an. Pixkanaka, ibarreko 9 herrietara zabaldu zuen seinalea. GOITBk ahalegin berezia egin zuen urte hartan, herrietako jaietan, herriz herri saio bereziak egiteko; sonatuak izan ziren emisiook.

Zabalkunde handiko aldizkaria

Papera etorri zen ostean. Artean, herri guztietan ziren herri aldizkariak, baina ez bailara osorako papereko euskarririk. Hala jaio zen 2000ko abenduaren 1ean *Goienkaria*, Debagoien osorako egunkari itxurako astekaria. 20.000 aleko zabalkundearekin. Herri aldizkariekin batera banatu zen hasieran, etxez etxe. Laster etorri zen eraldaketa handia: 2001eko urriaren 19an, herri aldizkari guztiak asteroko bihurtu, egunkari formatura ekarri eta *Goienkaria*-rekin batera, gehigarri gisa, banatzen hasi zen. Lau edizio ezberdin: Arrasate aldekoa, Bergara aldekoa, Leintz aldekoa eta Oñatikoa.

Urte hartan, 2001eko martxoaren 31n, Goienaren lehen urteko batzar orokorra egin zen Olandixon, Arrasaten, Euskadiko

BOLU SUKALDEAK

>Gremioen koordinazioa
>Aurrekontua konpromiso barik
>Horma armairuak

Bolu 22. Bergara.
Tel./ Faxa: 943 76 27 02.
bolusukaldeak@euskalnet.net
www.euskalnet.net/bolusukaldeak

Garbittu

Santa Cruz 24 behea. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak

enkaria kalean. 2004. | ARTXIBOA

Argia saria 2002. | ARTXIBOA

Sareko Argia saria 2003. | ARTXIBOA

Diseinu onenaren saria. | ARTXIBOA



Kalitate ziurtagiria. | ARTXIBOA

Goiena.net webgunearen aurkezpena. Arrasate. 2003. | ARTXIBOA

Aitorpen eta sari ugari

Argia saria jaso zuen 2002an *Goienkaria*-k eta sari bera *Sustatu*-k 2003an. 2004an, European Newspaper Award *Goienkaria*-k: Europako paperezko lokal onenaren saria. 2003an aipamen bat Rikardo Arregi sarietan. 2006an, Bai Euskarari ziurtagiria; eta 2008an Zilarrezko Bikain euskarazko ziurtagiria.

Kutxaren egoitzan. Han batu ziren, euskara elkarte eta udaletako ordezkariekin batera, Goienako langileak eta bailarako jendarteko beste hainbat ordezkari esanguratsu. Goienak traje luze dotorea jarrita, jendaurreko lehenengo aurkezpen sonatua ere egin zuen.

DATUA

22

URTE

Goienak 10 urte bete ditu, baina 22 urte dira *Arrasate Press* sortu zela, euskarazko tokian tokiko hedabideen eredu izan zena

'Sustatu' bloga ere Goienak sortua da, euskal sareko erreferentea

'Sustatu' eta 'Goiena.net'

Teknologia berrien aldeko apustu garbia egin zuen hasieratik Goienak, artean etorkizunak ze ekarriko zuen asmatzea erraza ez zela. Hala sortu zuen 2001ean, Eibarko Code&Syntax enpresarekin batera, *Sustatu*, euskarazko lehen bloga. Albistari interaktibo digitala erreferente bihurtu zen Euskal Herrian.

Hurrengo urtean, 2002ko martxoaren 25ean, *E-Debagoiena* egitasmoa aurkeztu zen Leintz Gatzagako gatz museoan. Goienak bultzatutako proiektuaren helburua zen informazioaren gizartea herritarrei hurbiltzea.

2003ko abenduaren 2an jarri zuen Goienak beste mugarri bat. Ezinbestekoa. *Goiena.net* webgunearen aurkezpena egin zuen Arrasateko Arteaga jatetxe eta landetxean. Interneteko bailarako ataria, sareko erreferentzia, gaur egun egunero 2.500 bisitari jasotzen dituena.

Astelehenetan ere bai

Paperak beste mugarri ezinbesteko bat jarri zuen hurrengo urtean: abenduaren 22an, Santamas egunean, *Astelehenetako Goienkaria* jaio zen. Erabateko irraultza Goienarendako. Hiru arrazoi nagusigatik: batetik, *Goienkaria* bi egunean banatzen hasi zelako; bestetik, asteburukoaren berri ematen zuelako; eta, hirugarrenik, salgai jarri zuelako.

Gaur egun, 4.500 ale banatzen ditu astelehenero, gehienak harpidedunei etxez etxe. Harpidedunei esker, beste finantzazio modu bat du gaur egun Goienak, proiektua egonkortzeko balio duena. 2006an, bestalde, *Goienkaria* lau ediziotik bakarrera aldatu zen: 56 orriko aldizkari mardula.

Digitalizazioa eta legeztapena

Aurten, udaberrian, digitalizazio prozesuari aurre egin behar izan dio Goiena Telebistak. Lurreko Telebista Digitalaren bitartez emititzeko lizentzia lortu eta legezko bihurtu da. Bestalde, Euskalteleko kableari esker, bailaran ez ezik autonomia erkidego osoan ikusten da Goiena Telebista gaur egun.

Beste batzuk

Horiek dira, laburtuta, Goienaren 10 urteotako mugarri nagusiak. Baina beste hainbat enpresa funtzional edo estrategiko sortu ditu Goienak urte hauetan guztietan: Batu-Banatu banaketa enpresa, batikbat *Goienkaria*-ren banaketa profesionalizatzeko; Arteman komunikazio eta publizitate enpresa; Batura Mobile, eskuko telefonoetarako euskarriak eskaintzeko…

Aipatzea merezi du, era berean, Interneteko beste hainbat atari: *Zugaz* gaztetxoendako sare soziala; *Danbaka* musika albistaria; *Kantari*; *Guraso.com*…

Felsinee

Ibargarai Etorbidea 17, behea - 20570 **Bergara** - Tel.: 943 53 44 53

FISIOTERAPIA eta ERREABILITAZIOA Fisioterapia orokorra · Drainatze linfatikoa · Kinesio-tape · Bendaje neuromuskularra · Tecarterapia G.A.H. · R.P.G. · S.G.A. · Kirol-fisioterapia · Fisioterapia Perineala · Fisioterapia Obstetrikoa (Haurdunaldiko minak - Erditze aurreko eta ostekoa)
PODOLOGIA Etxez-etxekoa ere bai · ELIKADURA eta DIETETIKA

ASEGURUAK: Mapfre, Lagun Aro, Brokers, Azkaran, Aresa-Mutua Madrileña, auto-aseguruak... www.felsinee.net

batugaitezen Debagoienan
www.batugaitezen.com
Euskaldunon erabakitzeko eskubidea

Goienari maitasunez

Kultura arloko hainbat lagunek lagundu diote Goienari 10. urtemugako ospakizun jaialdia borobila izan dadin: Manu Muniategiandikoetxeak oroigarrirako marrazkia egin dio, Unai Iturriagak abestirako hitzak eta Arkaitz Biainek, doinua

GOIENA | BERGARA

Helburu bat daukagu Debagoienean: komunika, komunikatzea. Komunika, komunitatea. Horixe Goienaren 10. urteurrenean lau haizetara igorri nahi dugun mezua eta zer hobe abesten egitea baino. Bada, zeregin horretan, bidelagun izan ditugu Unai Iturriaga bertsolaria eta Arkaitz Biain musikaria. Lehenengoak Goienak 10. urtemugarako egin duen abestiaren hitzak sortu ditu; bigarrenak doinua jarri dio abestiari. Horrekin eta bailarako beste hainbat musikariren laguntzarekin *Komunika* abestia sortu da. Atzo aurkeztu zuten, hain justu ere, Amaia antzokian batutako herritarren aurrean.

Bada, bailarako artisten ekarpen gehiago ere izan dira 10. urtemugarako. Hain justu ere, Manu Muniategiandikoetxea artista bergararrak marrazkia eman dio Goienari.

Azken boladan egiten diharduen serieko marrazkia da: Alexander Rodchenkoren lan baten oinarritutako seriea, hain justu ere. Lan haren bueltan hainbat eskultura, koadro eta marrazki egin ditu, eta marrazki horietako bat eman dio Goienari 10. urtemugarako.

Manu Muniategiandikoetxeak honela azaldu du marrazkia –goian ikus daiteke–: "Euren artean jolas egiten duten zirkunferentziek osatzen dute marrazkia. Eta nola lotzen da hori Goienarekin? Bada, erdiko zirkunferentziaren bueltan dihardute inertzia duten indar batzuek eta indar horiek adierazten dituzte hainbat gauza; hain justu, Goienaren leloak esaten dituenak: *Komunika, komunikatzea. Komunika, komunitatea.* Leloari oso forma borobila ikusten diot; hitz guztietan lehenengo hizkiak berdinak dira eta euren artean bukaezineko lotura dago. Hau da, *komun* horren bueltan dabiltza hitz guztiak eta neure lanarekin lotura polita ikusi nuen hor. Leloa irakurri nuenean ez nituen ikusi paisaia bat eta egitura gogor bat, zerbait borobila eta biguna baizik".

Omenduendako oparia

Muniategiandikoetxearen marrazkia, Iturriagaren bertsoarekin batera, erabiliko du Goienak 70 laguni baino gehiagori opari egiteko. Urtetan euskarazko herri komunkabideekin zein Goienarekin musu-truk kolaboratu duten herritarren ordezkaritza dira. Eta, hain justu ere, eskainitako laguntza guztia eskertu nahi die modu horretan Goienak.

Honakoa dio Estepan Plazaolak, Goienako lehendakariak, horren harira: "Lagun nekagaitzak izan dituzte euskarazko hedabideek beren ibilian, 20 urtez astero-astero musu-truk jardun duen kolaboratzailetik hasi, Goienako hedabideengan konfiantza osoa jarri duen dendaritik segi eta gure proiektua bultzatzeko beti alboan izan ditugun euskara elkarte eta herri-agintarienganaino. Guztiei gure eskerrak emateko unea da".



Manu Muniategiandikoetxearen marrazkia.

Komunika

Isiltasunik inoiz izan baldin bada
jakin-mina izan zuen lehenengo alaba
Hura Berbaren ama, amandre Kantuen,
belarrira esandako hitz debekatuen...
Hizkuntza txiki baten iloba handiak
antenetan eraiki ditugu habiak
mila paper tindatu, milioika pixel hil
gure baitan betiko premia bat dabil
KOMUNIKA
KOMUNIKATZEA
KOMUNIKA
KOMUNITATEA
Berbak galdu egin daitezke uhinetan,
zerua ez da kabitzen kuatrikromietan,
bideoko izarra internetek hil du...
Zu entzun nahi zaitugu, ez zaitez isildu
Zutaz ari bagara, gutaz ari gara
pantaila baten sartzen ez zaren bailara,
silikonazko berben spam oihanean,
helburu bat daukagu Debagoienean

Musika: Arkaitz Biain
Hitzak: Unai Iturriaga

ESANAK

"Goienaren leloa irakurri nuenean ez nuen ikusi paisaia bat; zerbait borobila baizik"

MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA | ARTISTA

LAUKI
AHOLKULARITZA S.L
Ibargarai 18 BERGARA
Tel: 943 76 12 28
lauki@asesorialauki.com
4ki aholkularitza
AHOLKULARITZA FISKALA
LAN AHOLKULARITZA
KONTABILITATEA
HAINBAT ZERBITZU
Zure zerbitzura gaude
ESKATU AURREKONTUA

Altzari denda
Ikerleku zeharbidea • BERGARA • Tel.: 943 03 46 30
Proiektuak • Koltxoiak • Horma-armairuak • Altzariak neurrira
UGARTE AROZTEGIA - ALTZARIAK
Aroztegia
San juan 1a • BERGARA • Tel.: 943 76 54 91 • Faxa: 943 76 08 04
Ateak • Eskailerak • Leihoak • Tarimak • Egur lanak orokorrean

EROSKI
zurekin

2011ko otsailaren 29ra arte

www.eroski.es
Zure esanetara gaituzu: 902 54 03 40

Zugandik hurbilago

Erosketa katalogo bidez

Eskatu katalogoa Hipermerkatuan

Udazken-Udaberria

* Katalogotik erositako produktuak etxera doan bidaliko dira.

Goienako Bergarako erredakzioko lantaldea, eguneroko jardunean. | XABIER URTZELAI

Iritsi da etorkizuna

Dabilen harriari goroldiorik irteten ez zaion moduan, Goienak jakin du mugitzen, egoera berrira egokitzen, teknologia berriak baliatzen, eta helburu izan du ikus-entzule eta irakurleen eskaerak asetzea

GOIENA | BERGARA

Goiena asko aldatu da 10 urteotan. Batik bat, Goienako hedabideak. Etengabeko bilakaeran murgildu da 10 urtean. Begiratu, bestela, zein zen egoera orain dela 10 urte eta gehiago, eta zein den orain. "Herrikoari eutsita, bailarak hartu du zentzua eta subjektu nagusi bihurtu da Debagoiena", dio Eneko Azkaratek, Goienako edukien zuzendariak.

Audientziak gora

Bilakaera horri esker, paperean, *Goienkaria* (aurrerantzean GOIENA deituko dena) nagusi bilakatu da askogatik gure eskualdean, irakurle kopuruari dagokionez. CIES erakundeak aurten udaberrian egindako azken neurketaren arabera, Goienaren papereko euskarriak 34.000 irakurle dauzka astero eta bigarren irakurrienak (*El Diario Vasco*), berriz, 20.000 irakurle dauzka Debagoienean.

Baina, azkenaldian, etengabeko hazkundea izan duten hedabideak Goiena Telebista eta *Goiena.net* dira, azken horrek bereziki. Goiena Telebistak, esaterako, 2.000 ikus-entzule irabazi ditu urtebetean Debagoienean. Eta, gaur egun, 8.000 lagunek ikusten dute egunero. Cuatro, TVE2 eta Teledonostiren aurretik dago, eta TVE1, LaSexta eta Antena3tik oso gertu (9.000 ikus-entzule). "Lurreko Telebista Digitalaren eskaintza zabalaren aurrean, indartu egin da Goiena Telebistaren posizioa eta erakutsi du ikus-entzule fidelak dituela", dio Oihane Agirrek, Goiena Telebistako programazio arduradunak.

Sarea indartsu

Mundu osoan, papereko prentsaren eragina ahuldu den moduan, Interneten erabilpena eta eragin ahalmena handitu egin da. Mundu osoan bezala, geurean. Euskarazko webguneetan ere bai. Internetek, Euskal Autonomia Erkidegoan, %265eko hazkundea

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia • Etengabeko zerbitzua
Lore koroak • Eskelak • Tramite guztien bideratzea

bai euskarari zerbitzua euskaraz

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99 e-posta: *euskalduna@harrespil.net*

Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

SVMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57
20100 LEZO



izan du azkeneko 6 urteotan. Debagoienean ere, egunetik egunera, gehiago dira *Goiena.net*-en erabiltzaileak. Goienako hedabideen etengabeko berrikuntza eta bilakaeraren paradigma da *Goiena.net*. CIESek ez du neurtzen *Goiena.net*-en erabiltzaile kopurua, baina Google Analytics-en arabera, egunero, batez beste, 2.500 erabiltzaile ditu *Goiena.net*-ek. "Sarea da, hortaz, oraina eta batez ere etorkizuna. Beste euskarri batzuen aurrean indarra hartuko duelako aurrerantzean. Eta hala izango da Goienan ere", dio Iban Arantzabalek, Goienako ikus-entzunezkoen zuzendariak.

Kazetari multimediak

Teknologia berrien eskutik etorri da iraultza. Eguneroko ohiturak aldarazi egin dizkigute. Denoi eta esparru guztietan. Hedabideei ere eragin die iraultza horrek. Euskarriei bai, baina komunikazioaren profesionalei bereziki. Baita Goienakooi ere. "Gaur egungo kazetariak komunikatzaile multimedia dira Goienan", dio Eneko Azkaratek. Gero eta euskarri gehiagotan dabiltza, teknologia berriak menderatzen dituzten neurrian. Ohikoa da, gaur egun, Goienako kazetari batek, idazteko ordenagailua ez ezik, argazki kamera, mikrofonoa eta irudiak hartzeko kamera menderatu eta erabiltzea. Eta, testuak prozesatzeaz gain, irudiak eta ahotsak editatzea.

Hau da, albistea hainbat euskarritan ematea modu berezituan. Horregatik, "hainbat euskarritan berezitu beharrean, gaietan berezitzen dira, gero eta gehiago, Goienako kazetari-komunikatzaileak", dio Iban Arantzabalek.

Hedabideen arteko konbergentzia

Azken hamarkadan teknologia berriek eta sareak izan duten garapenak ekarri dute hedabideen arteko batura edo konbergentzia. Hori gertatu da Goienan ere. Goiena bakarra da egun. Hainbat euskarritako Goiena bakarra: *Goiena.net*, Goiena Telebista eta GOIENA papera. Horrek ekarri du, bai nazioartean, baita gurean ere, erredakzioak beste modu batera antolatzeko premia. Horretan dabil azkenaldian Goiena.

Goiena Telebistako errealizazio gela. | XABIER URTZELAI

DATUA

%265

HAZKUNDEA

Internetek, Euskal Autonomia Erkidegoan, %265eko hazkundea izan du azkeneko 6 urteotan.

Erredakzioa beste modu batera antolatuko du Goienak aurrerantzean

Sarea, muina

"Aurrerantzean, sarea edo Internet izango da muina eta *Goiena.net*-i emango zaio lehentasuna Goienako erredakzio bateratuan", dio Iban Arantzabalek. Oraindik ere papera heltzen da publiko gehiagorengana eta diru sarrera gehien ditu Goienan. Eta ikusteko dago Internet negozio izango den edo ez Goienarendako. Baina lehentasuna emango zaio sareari, hura delako gero eta erabiltzaile gehiago dituena. Eta hura delako, era berean, berehalakotasuna duena: albistea gertatu eta di-da batean ematea, berritzea, partekatzea eta elkar eragitea ahalbidetzen duena.

Horra hor Goienaren erronka etorkizun hurbilean: papereko nagusitasunari eutsi, telebistan gero eta ikus-entzule gehiago irabazi, eta sarea negozio bihurtzea.

Teilatupe berean

Hedabideen arteko konbergentzia eta erredakzio bakarra "eraginkorrak" izan daitezen, "Goienako langile guztiak, edo, behinik behin, produkzioan dihardutenak, egoitza bakarrean batzea ezinbestekoa da", Eneko Azkarateren esanetan. Gaur egun hiru egoitzatan sakabanatuta daude Goienako langileak: Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan. Etorkizunean, ordea, denak teilatupe berean batzea da asmoa. Horren inguruan laster hartuko da erabakia.

Komunikatzea eta komunitatea

Euskaraz komunikatzeko eta komunitatea sortzeko bokazioa du Goienak. Bezeroa edo hartzailea muin eta nagusi duen komunitatea sortu nahi du. Horregatik ezinbesteko zara zu, irakurle eta ikus-entzule.

ESANAK

"Goienako kazetariak komunikatzaile multimedia dira"

ENEKO AZKARATE | GOIENAKO INFORMAZIOAREN KUDEATZAILEA

"Eskaintza zabalaren aurrean, argi geratu da bezero fidelak ditugula"

OIHANE AGIRRE | GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO ARDURADUNA

"Goiena.net' izango da lehentasuna Goienako erredakzio bateratuan"

IBAN ARANTZABAL | IKUS-ENTZUNEZKOEN ZUZENDARIA

Zure ametsa bete, kiloak kendu!

LA TISANERIA NUTRIETICA® CENTRO MESSÈGUÉ BALDAN GROUP

Bidekurutzeta 7, 1a · 20570 Bergara (Gipuzkoa)
lilura@lilura.com

LILURA EDERTZE INSTITUTUA BERGARA

Etorri eta informa zaitez konpromiso barik
943 76 31 71

Goiena: hiru euskarri, baina irudi bakarra

10. urtemuga inflexio puntua izango da Goienarentzat: marka indartzea erabaki du, eta aurrerantzean Goiena deituko dira hedabide guztiak

GOIENA | BERGARA

Hamar urte bete ditu bailarako euskarazko tokiko komunikabideak batzeko, kudeatzeko eta hedabide berriak bultzatzeko sortutako kooperatiba elkarteak. Elkartea sortu zenean helburua izan zen garrantzia ematea sortuko ziren hedabideei, ez Goienari. Baina hamar urte geroago, taldeak espero zena baino indar handiagoa hartu du, eta, haren hedabideek ez ezik, Goienak berak ere lortu du erreferente izatea tokiko komunikazioaren esparruan eta euskal kulturan. Horregatik, elkarteak erabaki du Goiena markak berarekin dituen balio positiboak baliatzea.

Hori horrela, eta marka indartzeko, aurrerantzean Goienako hedabide guztiek izen bera erabiliko dute: Goiena. Hau da, aurrerantzean gure aldizkariak ez dira deituko *Goienkaria* eta *Asteleheneko Goienkaria*; ezta gure telebista GOITB ere. Izan ere, marka bateratu, eta komunikabide guztiak izango dira Goiena: GOIENA papera, Goiena Telebista eta *Goiena.net*, hain justu ere.

ESANAK

"Aurrerantzean Goienako hedabide guztiek izen bera erabiliko dute: Goiena"

IÑAKI ITURBE | DISEINU ARDURADUNA

Marka bateratze horrek logotipo berria ere ekarri du. Logotipoak bi elementu ditu: Goiena izena eta bukaeran komatxoak. Hain justu, idatziz, norbaiten esanak jasotzen direnean, komatxoak erabiltzen dira. Bada, horixe egiten du Goienak: debagoiendarrok dioguna jaso eta horixe adierazi gura du logoak, Iñaki Iturbe diseinu arduradunak azaldu duen moduan.

Bada, Goiena berria izango da, orain arte bezala, gertukoa, hurbila. Aldi berean, mugarik bakoa eta munduari irekia. Eta konprometitua, nola ez, euskararekin, debagoiendarrokin eta eskualdearen garapenarekin.

Hedabideak ere berrituta

Elkartearen irudia berritzearekin batera hedabideak ere berritu dira. Goienako hiru hedabideen artean ere irudi batasuna lortu nahi izan da, eta horretarako erabili dira logoa, koloreak eta tipografia, Iñaki Iturbe diseinu arduradunak azaldu duen moduan. Baina bakoitzak baditu bere berezitasunak.

GOIENA paperari dagokionez, sekula baino erakargarri eta irakurgarriagoa izango da, eta, orain arte bezala, herritar guztiei zuzendua eta masiboa izateko bokaziodunа. Horretarako, diseinua aldatu egin da, eta baita eduki berriak sartu.

Edukien kasuan, sail berriak sortu dira: *Herritarrak elkarrizketa* tartea; *Tira-biraka* Iñaki San Miguelen komiki-tira eta *Gure ordezkariak* alkate eta zinegotzi izandakoen elkarrizketa tartea, esaterako.

Herritarren parte-hartzea bultzatzeko, eta pluraltasunaren izenean, iritzi artikuluek indar handiagoa hartuko dute. Orrialde orokorretako iritzi artikuluez gain, herri guztiek izango dute iritzi artikuluetarako tartea.

GOIENA papereko berrikuntzak

AZALA Aldaketa nabarmenena izenean dago: GOIENKARIA beharrean, GOIENA azalduko da azaleko mantxetan.

HERRITARRAK Horixe da sail berrietako baten izena. Hain justu ere, askotariko herritarri egindako elkarrizketa tartea da.

KONTRAZALA Asteleheneko edizioko azkeneko orrian, jende ezagunari egindako elkarrizketa karikatura batekin ilustratuko da.

KOMIKI-TIRA Egubakoitzeko kontrazalean, berriz, *Tiraka-Bikara* izeneko Iñaki San Miguelen komiki-tira da berrikuntzetako bat.

goiena

Goienaren logotipo berria. | IÑAKI ITURBE

Zatoz ikustera!
199 eurotik hilean, 72 kuotatan. UTE (TAE): 7,41%. SARRERA: 3.047,50 euro

Citröen DS3

Chapime, S.C.L Tailerrak

Debagoieneko Citröen Kontzesionario ofiziala.
San Andres auzoa 5. Arrasate. Tel.: 943 79 45 22

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak • Moketa eta sintasola • Iztuku esponjatua • Paper pintatuak • Harea zorrotada • Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 BERGARA • Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16 Faxa: 943 76 09 32

'Goiena.net': denaren batura

Eduki berri asko izango du: bideo-iritziak jasoko dira eta Goiena Telebista zuzenean ikusiko da

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Goiena.net webgunea ere erabat berrituta dator. Eta aldaketa ez da nolanahikoa, gainera, webgunean dena da-eta berria: edukiak, antolaketa, diseinua…

Diseinuari dagokionez, zuriak eta Goienaren gorri kolore korporatiboak hartu dute garrantzia. Hain justu ere, baztertu barik komunikabide bakoitzaren nortasuna eta ezaugarriak, hemendik aurrera webgunea izango da Goienaren muina. *Goiena.net* webgune berrituak bilduko ditu talde-ko komunikabide guztiak: telebista, paperekoa eta irratia.

Gai eta eduki berriak

Webgune berritua gaika eta herrika antolatuta dago, Iban Arantzabalek, ikus-entzunezkoen eta sareko sailaren arduradunak, azaldu duen moduan: orain arte moduan, bailarako herri guztietarako loturarekin batera, ekonomia, hezkuntza, kirol, kultura, osasun eta teknologia berrietarako lotura zuzena ere izango du. Horrekin batera, azpimarratzekoa da bailarako ekitaldien agenda osatua jasoko duela eta, gainera, agenda hori egunero berriztatuko dela.

Edukiekin jarraituz, iritzien atala ere indartu egin da. "Herritarren iritziari leku berezia egin nahi izan zaio eta horren adibide da aurrerantzean *Goiena.net*-ek eskainiko duen bideo-iritzia: egunero, Debagoieneko kolaboratzaile batek webcam bidez iritzia emango du webgunean", azaldu du Arantzabalek. Bestalde, herritarren iritziei lekua egiteko ahaleginean, blog gehiago irakurtzeko aukera ere egongo da eta GOIENA paperak jasoko dituen iritzi-kolaborazioak ere jasoko dira webgunean.

Aipatzekoa da, bestalde, *Goiena.net*-eko komunitatea indartu egingo dela erabiltzaileen profilekin, erabiltzaileek eurek sortuak atarian parte hartzeko. Pertsonek hartuko dute garrantzia, eta erabiltzaileek Twitter eta Facebook kontuak lotu ahalko dituzte.

Indartu den beste atal bat ikus-entzunezkoena da: aurrerantzean, Goiena Telebista zuzenean ikusi ahal izango da sarean.

"Telebistak *Goiena.net* atarian leku preferentziala izango du azpi-atari bat balitz bezala, eta erabiltzaileak hantxe aurkituko ditu eguneko programazioa; albistegietako titularrak; *Goiena magazinea* saioko bideorik nabarmenena; Pello Zabalaren eskutik eguraldi iragarpena; eta baita Goiena Telebista zuzenean streaming bidez ikusteko aukera ere", azpimarratu du ikus-entzunezkoen eta sareko arduradunak.



Maider Arregi kazetaria atari berritua irakurtzen. | UBANE MADERA



Goiena Telebista webgunetik jarraitu ahal izango da. | GOIENA

Herritarren ekarpena

Goiena.net atariak herritarrek elikatu ahal izango dituzten hainbat sail ere jasoko ditu: zorion agurrak, jaioberriak, agenda eta sailkatuak, hain justu ere. Atal horietan edonork sartu ahal izango du etxeko edo laneko ordenagailutik zorion agur bat, sailkatu bat edo agendarako hitzordu bat; betiere, noski, aurrez erregistratuz gero.

Oro har, *Goiena.net* ataria –software librean eginda dago– atari modernoa da eta irisgarritasun baldintza guztiak betetzen ditu. Zatoz zu ere *Goiena.net*-eko komunitatera.

ESANAK

"Goiena webgunean dena da berria: edukiak, antolaketa, diseinua..."

IBAN ARANTZABAL | 'GOIENA.NET' WEBGUNEAREN ARDURADUNA

Betiko telebista, berritua

Ikur berriekin –dekoratu eta kolore bereizgarriekin–, estreinaldiekin eta finkatutako saioekin, indarberrituta hasten du Goiena Telebistak aro berria

GOIENA | ARRASATE

Goiena Telebistak itxura berrituarekin eta inoiz baino eduki erakargarriagoekin ospatu du Goienaren 10. urteurrena. Dagoeneko ikus daitezkeen dekoratu berriak dira horren erakusle, eta Goiena Telebistaren saio ezagunenetan –*Goiena magazinea, Harmailatik*...– igarriko dute ikusleek aldaketa hori.

Oihane Agirre programazio arduradunak azaltzen digunez, "informaziozko saio guztiek bateratasuna izango dute; denek erabiliko dute Goienaren irudi berria eta saio bakoitzak kolore bat izango du: *Berriak* albistegiak, gorria; *Harmailatik*-ek, berdea; eta *Magazinea*-k, urdina. Eta ikur edo *euli* berria dugu".

Dekoratuez gain, Goienaren irudi berria Goiena Telebistaren elementu garrantzitsuenetan egongo da; mikrofonoetan bertan, adibidez.

Lau mahai-inguru hilean

Edukiei dagokienez, aipatutako saioei eusteaz gain, beste saio sortu berriak ere baditu, eta horiek tokia egiten jarraituko dute. Horien artean aipagarriena da *Tertulia* saioa, eguaztenero egiten dena, lau gai –eta lau aurkezle– tartekatuta: Txomin Madinak zinemaren gaineko tertulia aurkezten du, eta haren berezitasuna da, Goiena Telebistaren historian lehenengo aldiz, saioa bukatu eta gero euskal zinemako film ezagun bat ematen dela, euskaraz. Beste mahai-inguru bat gaurkotasuneko gaien ingurukoa da, Monika Belastegik aurkeztuta; hirugarren bat, Julen Iriondok gidatuta, gaurkotasun politikoaren gainekoa; eta laugarrena, gurasoendako tertulia, Larraitz Zeberiorekin.

Musikak eta bailarako taldeek ere euren tartea daukate, Goiena Telebista ematen dabilen Danbakako kontzertuekin. Hogei talde daude lehian; orain arte bezala, bakoitzaren kontzertuak emango ditu, eta gerora, hiru finalisten eta finalerako gonbidatuko duten taldearen kontzertuak ere emitituko ditu Goiena Telebistak. Urtarrilera arte egongo da Danbaka musika lehiaketako kontzertuez gozatzeko aukera Debagoieneko telebistan.

ESANAK

"Informazio saio guztiek antzeko itxura izango dute, baina bakoitza kolore batekin"

OIHANE AGIRRE | PROGRAMAZIO ZUZENDARIA

Etxeko txikienek ere badute zerekin gozatu. Hala, *Ipupomamua* saio berria ematen du Goiena Telebistak: Aitziber Garmendiak aurkeztutako haurrendako ipuin eta literaturari buruzko saioa da. Horrez gain, orain *Patruila 03* marrazki bizidunak ematen ditu Goienak, eta hori bukatutakoan, *Barkleys* ematen hasiko da. Euskal Telebistatik jasotako marrazkiak dira horiek.

Baina berritasunak ez datoz ohiko edukietan bakarrik: programaziotik kanpo ematen den informazio praktiko eta komertzial tartea ere berrituta dator: bailarako komertzioen iragarkiez gain, pantailaren beheko aldean azken orduko albisteak, *Goiena.net* webguneko titularrak, eguraldia eta bestelako informazioa emango da etengabe.

Saio arrakastatsuak

"Publikoak babestu dituen programek antenan jarraitzen dute", dio Oihane Agirrek: *Berriak*, bailarako albiste garrantzitsuenekin; *Magazinea*, GOITBren ikurretako bat bihurtu dena, egunero emititzen jarraituko da, eta ohiko tarteei eutsiko die –asteotan, ibarreko alkate guztiei elkarrizketak–; baita *Harmailatik* kirol saioa ere, eta *Gipuzkoa Kultura*, eguenero Goiena Telebistak kulturari irekitzen dion leihoa.

Lanbide Heziketako ikasleak, dekoratuak muntatzen. | GOIENA

IKERLEKU
PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak
•
Azterketa biomekanikoa
•
Kirol podologia
•
Neurrira egindako plantillak

Ikerleku zeharbidea BERGARA **943 76 07 84**

LASAGABASTER

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



amua saioa. | GOIENA

Tertulia da Goiena Telebistaren berritasun nagusietako bat. | GOIENA

Euskal filmak ematen ditu Goienak; irudian, *Tasio*. | GOIENA

Gipuzkoa Kultura eguenetan ematen jarraituko dute. | GOIENA

Orain arte bezala ere, Tokikoren, Euskal Herriko euskarazko herri telebisten elkartearen bitartez ere Debagoienetik kanpoko telebistek egindako hainbat saio emango ditu Goiena Telebistak: musika saioak, tertuliak, dokumentalak... eta Debagoieneko telebistak egindako saioak gure bailaratik kanpoko eskainiko dira aurrerantzean.

Lurreko Telebista Digitala

Eduki aldeko berritasunek adina garrantzia dute berritasun tekniko eta teknologikoek.

Hala, Lurreko Telebista Digitalera saltoa egin du aurten Goiena Telebistak, eta ibar osoan LTD sisteman ikusten da. 52. katea da bere lekua, eta Euskalteleko kable bidez 11. kanalean. Gainera Debagoienetik kanpo, Euskalteleko bezeroek deskodetzailea izanda, 933. katean daukate seinalea. Eta sarean ere aurkituko dugu Goiena Telebista ikusteko aukera (*goiena.net/telebista*).

Goiena Telebistak *Goiena.net* atarian leku preferentziala izango du azpi-atari bat balitz bezala, eta erabiltzaileak hantxe aurkituko du eguneko programazioa, albistegietako titularrak, *Goiena Magazinea* saioko bideorik nabarmenena, Pello Zabalaren eskutik eguraldi iragarpena eta Goiena Telebista zuzenean *streaming* bidez ikusteko aukera.

ESANAK

"Publikoak babestu dituen programek jarraitu egingo dute: 'Harmailatik', 'Magazinea'..."

OIHANE AGIRRE | PROGRAMAZIO ZUZENDARIA

Telebista berria, labur

ITXURA
Goiena Telebistaren elementu garrantzitsuenek erakutsiko dute Goienaren irudi berria, mikrofonoetatik hasi eta dekoratuetaraino.

GORRIA, URDINA ETA BERDEA
Informazio saio guztien itxura orain arte baino berdintsuagoa, elkarren artean antzekoagoa izango da, eta saio bakoitzak bere kolore bereizgarria izango du: *Harmailatik*-ek, berdea; *Berriak* saioak, gorria; eta *Magazinea*-k, urdina.

'TERTULIA'
Apustu garrantzitsuenetako bat da denboraldi berrirako. Mahai-ingurua dago eguazten ilunkeran, lau gai txandakatuta: gaur egungo gaiak, politika kontuak, hezkuntza eta zinema.

EUSKAL FILMAK
Zinema tertulia bukatzeko, astero euskarazko film ezagun bat emango dute.

DANBAKA
Urtarrilera arte, Danbakako taldeen kontzertuak eta finala izango dira ikusgai.

TXIKIENENDAKO
Ipupomamua saioa ematen hasi da Goiena Telebista, eta *Barkleys* marrazkiak estreinatuko ditu laster.



Mireia Larrañaga | Goienako komertzial saileko zuzendaria

"Bezeroei eskerrak ematen dizkiegu, izan ere, ezinbestekoak dira Goienarendako"

- "Goiena da bailaran eskaintza zabalena duen komunikazio taldea", dio Mireia Larrañagak
- Goienaren bezero komertzialek badakite haren komunikabideak onak eta eragingarriak direla

Mireia Larrañaga. | JOSU TXINTXURRETA

GOIENA | ARETXABALETA

Mireia Larrañaga da Goienako komertzial saileko arduraduna. "Goiena da Debagoienean eskaintza zabalena duen komunikazio taldea; horregatik, gure bezero komertzialak gero eta ezagunagoak dira", esaten digu.

Goiena komunikazio taldeak hamar urte bete dituen honetan, zelan kokatuta dago?

Gure hedabideak oso garrantzitsuak dira Debagoienean, eta jendearen erantzuna oso ona da. Datuek adierazten dute dena: hala, CIES erakundeak Goiena paperaren audientzia neurtzen du, eta azkeneko urteotan oso audientzia datu onak ditugu. Debagoienean, paperean, liderrak gara: 30.000 irakurle ditugu, 2010eko lehenengo neurketaren arabera; papereko argitalpenetan bigarren irakurrienak 20.000 irakurle ditu, eta hurrengoak, aldiz, 8.000 irakurle dauzka.

Bestalde, harpidetza bidez astelehenean 5.000 lagunek jasotzen dute etxean Goiena papera. Azkenik, OJD erakundeak tirada kontrolatzen du, eta egubakoitzetan 20.000 ale eta astelehenean beste 5.000 botatzen ditugu. Gehienak Debagoienean banatzen dira, jakina; baina bailaratik kanpo ere baditugu irakurleak, harpidetu egin direnak eta Goiena papera etxean jasotzen dutenak.

Hortaz, bi erakundek, CIESek eta OJDk kontrolatzen dute Goiena papera, eta guretako oso garrantzitsua da hori. Izan ere, modu horretara, gure bezeroek badakite gure audientzia datuak

IparProject
www.iparproject.com

Etxebizitzen ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak
Mota askotako estiloak Gremioen koordinazioa

Telleria 23, D5 pabilioia **Labegaraieta Industrialdea BERGARA** Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44

KANPAZAR

FIAT ALFA ROMEO SUZUKI

Bizkaia etorbidea z/g ARRASATE
Tel.: 943 79 41 98 • Faxa: 943 77 12 84

fidagarriak direla eta euren iragarkiak jende askok ikusiko dituela.

Goiena Telebistak, berriz, inoizko audientzia datu onena lortu berri du: 8.000 ikus-entzule egunero Debagoienean. Hori datu bikaina iruditzen zaigu. Portzentajeetan, Debagoieneko ikusleen %14,5ek sintonizatzen dute Goiena Telebista egunero; Cuatro kateak dituen baino ikusle gehiago (%9,4) dira, eta TVE1, Antena3 eta La Sextatik distantzia txikira gaude; %17 inguruko audientzia dute horiek. Gainera, Goiena Telebista Debagoienetik kanpo ere ikusten da; Euskal Herri osoan dago hura sintonizatzeko aukera. Horrela, bada, kanpoko bezero komertziala ere garrantzitsua da guretako.

Interneten *Goiena.net* ataria daukagu, eta horrek 2.500 bisita ditu egunero. Azken bi urteotan, mundu osoan, paperezko hedabideen audientzia txikitu egin da, eta Interneteko hedabideena handitu egin da; eta *Goiena.net*-ekin ere horrelaxe gertatu da, gero eta bisita gehiago dituelako. Gainera, horren bidez, Goiena mundu osora ailegatzen da.

Oro har, Goiena da Debagoienean eskaintza zabalena egiten duen komunikazio taldea; talde elebakarra eta gertukoa da, gainera, eta gertutasun horrek bere fruituak eman ditu, jendeak oso ondo hartzen dituelako gure medioak.

On-line medioek gero eta irakurle gehiago dituztela diozu. Iragarleak ere gero eta gehiago dira?

Gaur egun, historikoki, oraindik papereko komunikabideak du indar handien; baina bai, Interneten publizitatea egiteko joera ere indartzen doa eta gure bezero komertzialak ere gero eta gehiago animatzen dira.

Goienak hain harrera ona izateak zelan eragiten du Goienaren bezero komertzialengan?

Bailaran ezagunagoak dira; badakite euren eskaintza zuzenean euren bezero potentzialengana ailegatzen dela. Gure bezero komertzialek badakite medio onak eta eragingarriak garela.

Eta iragarleek Goienarengan?

Goienarendako ezinbestekoak dira iragarleok; hain zuzen, gure finantzaketaren %60 dira. Horregatik, eskerrak ematen dizkiegu gurekin egotearren.

Zelakoak dira Goienaren bezero komertzialak?

Denetarikoak ditugu: txikiak, ertainak, handiak... Mota askotakoak eta askotariko ahalmen ekonomikokoak dira. Izan ere, ahalmen ekonomiko guztietako enpresek eta komertzioek egin dezakete publizitatea Goienan; guztiendako daukagu tarte bat, eta euren beharretara egokitutako zerbitzua eskaintzen diogu.

Hori, Debagoieneko bezeroei dagokienez. Debagoienean aurkitu ezin daitezkeen aisialdi zerbitzuak eskaintzen dituzten Debagoienetik kanpoko enpresa batzuek ere euren burua ezagutarazteko egoki ikusten dituzte gure komunikabideak; beraz, eurak ere gure bezero dira.

Iragarleei esker, Goienak bere finantzaketaren %60 lortzen du

Goienako iragarleek badakite jende askok ikusiko duela euren iragarkia

Sariz betetako klubeko kide izateko aukera

Urteurren borobila debagoiendarrokin ospatu nahi izan du Goienak, eta, horretarako, Goiena Kluba sortu du. Horren lehenengo emaitza da debagoiendar askok dagoeneko badaukaten Goiena Txartela.

Goiena Kluba zer den azaltzen du Mireia Larrañagak: "Debagoiendarrak ere Goienako kide izan daitezen nahi dugu; gurekin egotearren saritu egin nahi ditugu, eta eurekinw konpartitu abantaila batzuk".

Goiena Txartela da horko izarra: "*Asteleheneko Goienkaria* zenari harpidedunek lagundu zioten, eta nahi izan genuen zerbait gehiago eman, gurekin daudela eskertzeko. Horretarako sortu genuen iaz Goiena Txartela. Txartel nominatiboa da, eta hainbat abantaila jasotzeko aukera ematen dio jabeari: etxea janztekoorduan, automobilaren mantenuan, osasunean, aisialdian, gidabaimena ateratzeko deskontua...".

Goiena Gidak.

Orain, Goiena Kluba sortu da: "Txartela atera dugu eta ahalik eta erakargarriena izan dadin nahi dugu. Horrela, datorren urtera begira, abantailak handitzeko asmoa dugu, eta enpresa gehiagok egingo dute bat gure eskaintzarekin. Orain ere abantaila asko daude: Goienaren produktuetan deskontuak, asteleheneko Goiena papera jasotzea, Goienaren ikastaroetan prezio bereziak, zozketetan parte hartzea... Datorren urtean, gehiago". Dagoeneko Goiena Txartela dutenek sorpresa atseginak izango dituzte zain, bada.

Goienako komertzial taldekoak. | JOSU TXINTXURRETA

Zorionak, Goiena!

Antzuolako Udala

www.antzuola.com

AGIRRE HORTZ KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Inplanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. Bergara Tel.: 943 76 00 23 Ordutegia: 08:00-21:00 (Eguerdian ere zabalik).

AEGON aseguroak

Tokian tokitik gora, elkarrekin

Debagoiena gainditzen duen beste erakunde batzuetako kide da Goiena, Topagunea eta Tokiko kasu, eta erakundeekin ere elkarlanean ari da

Euskarazko hedabide batzuen azalak, horietako batzuk, Topaguneko kide direnenak.



Tokiko.tv webgunean ikus eta entzun daitezke euskarazko telebista lokalen bideoak

GOIENA | BERGARA

Multimedia talde lokala izan eta bere jardun eremua, batik bat, Debagoienera mugatu arren, Goienak elkarlanean dihardu eskualdetik kanpo ere tokian tokiko beste hedabide batzuekin batera. Eta hedabide horiek batzuk dituzten elkarte, enpresa edo federazioetako kide da. Elkarrekin indar egin, komunak zaizkien arazo edo aukerei aurre egin eta bide berriak jorratzea dute helburu.

Tokiko telebista elkartea

Topaguneko kide da Goiena eta hedabideen sailean dihardu. Euskal Herriko euskara elkarte eta euskarazko hedabide lokalak batzen ditu Topaguneak. Era berean, Tokiko telebista elkarteko kide da. Euskarazko telebista lokalak batzen ditu elkarte horrek. Programak elkartrukatzen dituzte, batez ere, eta elkarrekin saio berriak ekoiztu. Bestalde, *TokikoTV* izeneko webgunea ere badute Tokiko elkarteko telebistek. Han aurki daitezke telebistotako hainbat saioren ikus-entzunezkoak.

Hauek osatzen dute Tokiko elkartea: Tolosako 28. Kanala, Urola Kostako Erlo Telebista, Goierri Telebista, Kanaldude Iparraldekoa, Gernika-Lumoko Oizmendi, Elizondoko Xaloa Telebista eta Goiena Telebistak.

Hamaika telebista: hitzarmena

Bestalde, Hamaika Telebistarekin hitzarmenak dituzte Tokiko elkarteko telebistek eta harekin ere elkartrukatzen dituzte telebistako saioak. Lurreko Telebista Digitaleko lizentziak lortzeko deialdietara ez zen aurkeztu Hamaika Telebista lehendik euskarazko telebista lokala bazegoen barrutietan. Hori da Debagoienaren kasua. Hala, Goienak eta Hamaikak elkarlanerako hitzarmena daukate sinatuta.

Hausnarketa prozesua

Euskarazko hedabideak hausnarketa prozesuan dabiltza azkenaldian. Krisi egoerak bai, baina sakonagoko arazoak ere mugiarazi dituzte. Hedabideak asko aldatu dira azkeneko hamarkadan, teknologia berriei esker. Ehunka telebista kate daude, esaterako, Internetek komunikatzeko modu berriak ahalbidetu ditu eta hedabideak ugaldu egin dira hari esker. Euskarazko hedabideek eskatzen dute erakunde publikoen inplikazio handiagoa, hedabideok estrategikotzat hartzea. Topagunea ere hausnarketa sakonean murgilduta dago azkenaldian.

200.000 irakurletik gora

Gaur egun 33 aldizkari, 20 agerkari digital, sei irrati eta telebista bi daude Topagunean.





Tokikom.com, euskarazko hedabide lokalen agregatzailea. | ARGAZKIAK: GOIENA

Paperekoen artean, egunkari bat, hamar astekari, sei hamabostekari, 15 hilabetekari eta bi hilean behin argitaratzen den aldizkari bat. Gipuzkoan banatzen dira papereko gehienak: 21; Bizkaian zortzi eta Nafarroan lau. Araban, duela gutxi desagertu da Gasteizko *Geu*.

Topaguneko aldizkari horien guztien botaldia orotara eta, hortaz, iristen den etxe kopurua hauxe da: 122.310. Topaguneko hedabide saileko Joxe Rojasen esanetan, etxe horien "%80an ez da beste euskarazko argitalpenik sartzen".

Azken urteetan egin diren azterketetan oinarrituta, 1,7 irakurle dauzkate zenbaki bakoitzeko papereko agerkari horiek. Hortaz, estimazioa da "207.927 irakurle" dituztela aldizkariok orotara.

Sektorea, industria gisa

Topaguneko hedabide guztien aurrekontu globala 5.538.000 euro da eta langile kopuru globala 200 inguru. Horrez gainera, jakina, tarteko kolaborazio ordainduak eta ordaindu bakoak ere asko dira.

Datuetan oinarrituta, ikus daiteke industria esanguratsu baten aurrean gaudela eta eragin ahalmen handia dutela euskarazko tokian tokiko hedabideek. "Euskarazko hedabideen sektorea industria gisa aitortu beharko litzateke eta estrategikotzat jo, tamainako laguntzak bideratuz", dio Joxe Rojasek.

Krisiaren eragina

Krisia dela-eta, euskarazko hedabide lokalek ez dute bizi unerik onena. Joxe Rojasen esanetan, bazkide askoren kezka nagusia "bizi iraupena" bera da. Hedabideen diru iturri nagusi biak zuzenean kolpatu ditu krisiak: batetik, "publizitate inbertsioaren murrizketa" egon da; bestetik, erakunde publikoek ere diru gutxiago dute, eta hortik "dirulaguntza publikoen murrizketa" ere etorri da.

Horri dagokionez, Lourdes Auzmendi Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza sailburuordeak hauxe dio: "Euskarazko hedabideetarako dirulaguntzak ez dira euro bakar bat ere gutxitu". Eusko Jaurlaritzak eutsi baldin badio ere dirulaguntzei, foru aldundietan eta udaletan murrizketak egon dira.

Etorkizunerako aukerak

Krisia oportunitate dela esan ohi da eta aukera moduan hartu beharko dira garai hauek. Horren harira, Topaguneak hedabideon elkarlana aipatzen du: "Ditugun baliabide urriak hobeto erabili ahal izateko indarrak batu beharra dago, egitura komunak sortu lanen errepikapena ekiditeko, proiektuen bideragarritasun ekonomikoa bermatu, publizitate eskaintza bateratu iragarle handiengana errazago iristeko, talde irudia indartu, ekoizpen komunak sortu...". Eta, hala, eskualde mailako ekoizpen guneak antolatzea proposatzen du Topaguneak, Goienak 10 urte dela hartu zuen bidea, hain justu ere. Debabarrenean bide horretan mugitzen hasiak dira.

Bestetik, sektorearen proiektu estrategikoak bideratuko dituen erakundea sortzea proposatzen du Topaguneak: hasieran aipatu dugun Tokiko telebista elkartearen bidetik eta Tokikom marka oinarritzat hartuta. Izan ere, Topaguneko hedabide gehienek Tokikom marka sortu dute sektore gisa kanpoan irudikatuak izateko eta sareko agregatzailea sortu dute: *Tokikom.com*. Herri informazio guztia aurki daiteke bertan eta jatorrizko webguneetara loturak, Goienaren kasuan, *Goiena.net* webgunera.

LURDES AUZMENDI
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Debagoienetik mundura, euskaraz

Atsegin handiz erantzuten diot Goiena Telebistak eta GOIENA aldizkariak beren hamargarren urtemugarako artikulu bat idazteko egin didaten gonbitari. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak uste osoa baitu tokiko hedabideek berebiziko garrantzia dutela eta izango dutela euskararen normalizazioan.

Bada ingelesezko esaldi bat, ni liluratzen nauena: *Think globally, act locally*. Mundu osoa gogoan, nork bere zokoan, bururatu zait presako itzulpen gisa. Euskara da gure mundua eta Debagoiena, mundu hori ezagutu eta ezagutarazteko gure abiapunturik garrantzitsuenetako bat. Bakoitzak bere herrian jardun behar du, iparra inoiz galdu gabe. Hori ongi ulertu duzue Debagoienean.

"Lortu behar dugu euskara baserrian ez ezik kalean ere hitz egitea"

Euskararen aldeko lana puzzle baten antzekoa da. Pieza guztiak beharrezkoak dira. Piezak itxura eta tamaina guztietakoak izaten dira, baina bakarra ere ez da sobran eta bakarra ere ezin da jarri beste baten tokian. Denak beharrezkoak dira, direla erakundeak, direla elkarteak. Goiena Telebista funtsezko pieza bat da euskalgintzaren puzzlean. Dudarik ez.

Poztekoa da ikustea Tokiko sarearen bidez, Goiena Telebista harremanetan dagoela Gipuzkoako eta Nafarroako beste tokiko telebista batzuekin eta EITB-rekin berarekin. Euskararen mundua gero eta zabalagoa izan dadin, bidea ez da elkarrekin lehian aritzea, elkar osatzea baizik. Hori oso ondo ulertzen dugu denok eta Eusko Jaurlaritzatik eskerrak eman nahi dizkizuegu zuen jarrera ireki eta berritzaileagatik.

Garai zailean bizi gara. Gutxien espero genuenean, krisi latz batek jo gintuen eta etengabeko hazkunderako esperantza ustela zapuztu zigun. Beldur ginen abagune aldapatsu honetan euskara ez ote zen galtzaile aterako. Ez, ba. Aurten gure Sailburuordetzak ahalegin handiak egin ditu iazko aurrekontuak mantentzeko. Lortu dugu euskarazko jardueretarako iazko diru-laguntzei eustea, pittin bat jaitsirik. Euskarazko hedabideetarako diru-laguntzak, adibidez, ez dira euro bakar batean gutxitu. Euskadiko beste erakunde batek ere ez du horrelakorik egin.

Krisiek badute alde on bat: behartzen gaituztela zuhurragoak izatera eta indarrak biltzera. Aurrera egingo badugu, elkarte eta erakunde guztien elkarlana bultzatu behar dugu, ideia eta bandera guztien gainetik. Baina ez da diru kontu hutsa. Oraingo krisia ez delako ekonomikoa bakarrik. Iraultza teknologiko baten atarian gaude. Eta iraultza horrek hedabideak ukitzen ditu bereziki. Paperak bere nagusigoa galduko du, jadanik galdua ez badu. Telebista analogikoak sarri historia izango dira, telebista digitalek ordezkaturik. Tokiko aldizkari eta telebistek egokitu egin beharko dute egoera berrira, desagertuko ez badira. Ez zaudete bakarrik desafio horretan: euskara teknologia berrietara erakartzearen garrantziaz jakitun dago Eusko Jaurlaritza. Hori dela-eta, Informazio eta Komunikazio Teknologietarako kontu-sail berezi bat daukagu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako aurrekontuan. Aurten, 1.626.000 euro.

Luzaz euskararen gordelekua baserria izan zen. Kalean, maiz, erdaraz hitz egiten zelako. Garai hori bukatu da. Lortu behar dugu euskara baserrian ez ezik kalean ere hitz egitea. Eta ez hori bakarrik. Lortu behar dugu espazio digitalean ere bere txokoa izan dezala. Ez da aukera bat. Nahitaez egin beharreko gauza bat da. Euskarak bere tokia behar du bizitza modernoko esparru guztietan. Gaur, Interneten bidez, mundua eta Euskal Herria gauza bera dira, mundu osoan daudelako euskaldunak, klik erraz baten bidez elkarrekin konektatzen dutenak. Euskarak ez du mugarik eta, beraz, hizkuntza politikak ere ez.

Zailtasunak zailtasun, Goiena Telebista eta aldizkaria poliki egiten ari dira gauzak. Euskarazko hedabideei dagokienez, Debagoiena eredugarria da Euskal Herri osorako. Segi ezazue horrela eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren sostenguarekin kontatu ahal izango duzue.

Beraz, zorionak, Goiena, eta anitz urtez!

ARKAITZ BIAIN
Arrasateko Udaleko Euskara batzordeburua

'Gran Hermano'-k ere 10

Hamarkada bat igaro da Goiena sortu zenetik. Horiek eta beste hamabi, AED elkarteak Arko eratuz euskalgintzaren lan ildo bezala, tokiko komunikabideen proiektuari ekin zionetik. Zorionak (eta eskerrak) guztiei euskararen aldeko mugimendu bezala egin duten eta egiten ari direnagatik; hizkuntzari eta transmisioari pisuzko balorea emateagatik.

Baina hedabideak ez dira hizkuntzaren transmisiora mugatzen. Helburua, nola ez, komunikatzea da, eduki edo informazio konkretua helaraztea. Jakina da lan horretan botere ekonomiko eta politikoek daukaten indarra. Indarra baino gehiago gidaritza, herritarren balore eta jarrerengan eragiteko asmoz, komunikabideak propagandarako tresna bezala erabiliz. Honen inguruan dozenaka artikulu (edo liburu) idatz daitezke, baina artikulu honetan, azkeneko hamarkadan komunikabideen industriak ezarri duen balore garrantzitsuena azpimarratu nahiko nuke: morboa.

"Profesionala, euskalduna, gertukoa izaten jarrai beza Goienak"

Testuinguru horretan kokatzen dira hain ezagunak diren *sucesos* erako saioak eta nola ez, *reality showak*. Lehenengoen kasuan, familia osoa hil eta, ondoren, bere buruaz beste egin duen gizona, ama izan den hamar urteko errumaniar neskatila, koreografia errepika ezinaren jabe den gaztearen alkoholemia kontrola edota torero famatuaren emazte ohiaren desamodioak izan ohi dira eguneroko bazka.

Reality showak ez dira atzean geratzen. *Gran Hermano* saioak ere Espainiako Estatuko telebistetan hamar urte bete ditu. Programa honen garapenaz gain (zerbait esateagatik), eredu honetako beste hainbat saioz gozatzeko aukera izan dugu (Euskal Herrian ere EITB taldeari esker). Eta gozatu diot, programa hauetan ikusten ditugun pertsonen arteko ustezko harremanen kudeaketaz gozatzen dugulako. Ondoren, gainera, saio edo gai hauen guztien inguruko iritzi kualifikatua jaso dezakegu hormona eta silikonaz ondutako gizon-emakume lorontzien eztabaida foroan. (Ba)balore festa, esango du norbaitek.

Gehiegitan etikaz mintzo diren komunikabideen baloreak, morala eta etika bera, aurretik aipatutako adibide horietan islatzen dira. Baina ez eraikuntzaren edo ezagutzaren izenean, ez; pertsonak merkantzia lez tratatuz, entretenimendu eta morboaren izenean.

Jarrai beza Goienak beste hamar (edo hogeita bi) urtez tokiko komunikabide gisa, profesionala, euskalduna, eta gertukoa izaten, hedabideen industriak ezartzen dituen, eta aurretik aipatutako hainbat balore, forma edo arauetatik kanpo.

ZUBIA®

Artisau-pateak • Ahatekiak
Foie-gras • Piparra • Txistorra

Zorionak, Goiena!

Aingeru Guarda pasealekua 17 • Eskoriatza
Tel.: 943 71 51 31 • Faxa: 943 71 52 79 *www.pateszubia.com*

MARKEL OLANO
Gipuzkoako ahaldun nagusia

Aitzindaritza eta berrikuntza

Ekainean bete dira hamar urte Goiena hedabideen kooperatiba sortu zenetik, Debagoieneko eskualdean ordu arte lanean ari ziren euskal hedabide guztiak enpresa proiektu bateratu bakar batean bilduaz.

Hamar urte ez dira, beharbada, asko, baina aldakuntza sakon bat markatu dute euskal toki hedabideen alorrean, bi aro bereizten dituen mugarri bat ipiniaz, Goienaren aurrekoa, eta Goiena sortu ostekoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak oso hurbiletik eta adi jarraitu zuen Goiena sortzeko prozesua, eta bere esku zen neurri apalean, saiatu zen prozesua bultzatzen ari ziren eragileei laguntzen. Izan ere, ordurako nabarmendua baitzegoen euskarazko toki hedabideek behar sakon bi zituztela: berrikuntza eta aitzindaritza.

"Goienak gauzatu zuen proiektua argigarri eta bide-erakusle da"

Esango nuke bi balio horietan oinarritu izan dela Goienaren ibilbidea, bai sorreran, bai hamar urte hauetan egindako ibilbidean: atomizazioa gainditua, molde berriak bilatu ditu enpresaren kudeaketan, informazioa sortu eta hedatzeko bideetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aukeratzat hartuta, mehatxutzat hartu ordez.

Debagoieneko toki hedabideek, idatzizko nahiz ikus-entzunezko, txokokeriak alde batera utzi eta, erresistentzia handiak gainditua, Goiena sortu zutenean, eskualdeko hedabideen fisonomia guztiz iraultzeko urrats handi bat emateaz gain, eredu sendo bat gauzatu zuten, beste eskualde eta herrialde guztietara zabal zitekeena. Zoritxarrez, ordea, Gipuzkoako gainerako toki hedabideetan aldakuntzaren aurkako erresistentziak handiagoak izan ziren, berritzailetasuna baino, eta Goienaren sustraia ez zen aski indartsua izan, beste eskualdeetan ernaltzeko.

Hamar urte igaro dira geroztik, euskarazko toki hedabide batzuk desagertuak dira, beste batzuk sortu ere bai, ikuspegi eta xede desberdinez, baina nire iritziz, funtsezko arazoak ez dira aldatu. Gipuzkoan, euskarazko toki hedabideak aitzindaritza eta berrikuntza behar larri batean aurkitzen dira, orobat. Krisi batean murgildurik daude, ez bakarrik ekonomiaren beheraldiak eragin dielako —beste guztioi bezala—, baizik, horrez gain, aldakuntzaren norabide berriak ongi definitu gabe daudelako.

Asko hausnartu, eztabaidatu eta adostu behar da, elkarrizketa bideak zabaldu behar dira, herri erakundeen eta sektoreko eragileen artean, bakoitza bere esparru propiotik atera eta etorkizuna begira jartzeko saioa egin beharra dago, baina, ezeren aurretik, nire ustez, arazoaren neurriaz jabetu beharra dago.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bere ahalegin guztia ipiniko du euskarazko toki hedabideen sektorea berrikuntza bideetan barrena abiatu dadin, herri erakundeen eta sektoreko eragileen arteko adostasun bideak zabalduz, elkarlana bultzatuz, eta lidergo partekatuaren ikuspegiaren gidaritza harturik.

Goienak orain dela hamar urte gauzatu zuen proiektua argigarri eta bide-erakusle izan daiteke, berriro ere.

KARMEN IRIZAR
Topagunearen presidentea

Goiena, letraz letra

Arrasto aitzindaria, akuilua, asmatzea, asmo antolatua, arnasgunea, argigarria,
B: Berritzailea, bihotza bezainbat burua, bisagra, blogaria, bilgunea, burugogorra, baikorra,
D: Desberdina, diseinuan dotorea, dinamikoa,
E: Egin eta eragin, euskaratik eta euskaraz, euskaldunontzat, elkarlana, erreferentea, eredua, egoskorra, erakargarria, esperantza, etorkizuna,
F: Foroa, faroa, fokoa, festa,
G: Guztiona, gurea, guztiontzat, gerokoentzat, gunea, gaztetasunaren grina, glokala,
H: Harremanetan hurbila, hegemonikoa, harrotasuna,
I: Irmoa, irekia, informazio iturria, inbertsioa, ilusioa, izatea, izaera indartsua, iraunkortasuna,
J: Jakintza, jazotakoa jaso, jostun jardunean, jarioa, jolasa, jarraidura,
K: kolaborazioa, koloretsua, konpetentzia, koordinazioa, kalekoa,
L: Lorpena, loraldian, lotura,
M: Miresgarria, milurtekoan modernoa, mundurakoa, merezitakoa, merituzkoa,
N: Nortasuna, neutraltasun neurtua, norabidea, nerabea, nirea
O: Opari oparoa, originala, ongarria, ondorengoentzako ortzimuga,
P: Pozgarria, pozkidea, pentsu pentsatua, proiektu profesionala, prozesua, parte-hartzailea, pixkanaka,
S: Sustatzailea, sentimendua, sentimendu sortzailea, sarea, soroa, saria, serioa,
T: Teknologia, topagunea, tokikoa, tentsioa,
U: Utopiaren uzta, unean unekoa,
Z: Zabala, zirikatzailea, zailtasun zulatzailea, zurekin, zuretzako, zuhurra,

Utopiaren zati bat gerturatu duzuelako, urte askoan Goienako lagunei eta eskerrik asko zaretenak zarelako.

Zorionak, Goiena!

Irakurleek ere zoriondu nahi izan dute Goiena. Hemen 38 zorion eta beste horrenbeste arrazoi



XABIER ZUBIZARRETA
EZKER ABERTZALEKO KIDEA

"Gaur, zorion-tsu-namia/10 metroko olatuak/ez daitezela itogarri bihur/10 urte, bete-bete/ bihar/11 lan/eginiko, egiteke/ez zaitzatela ogi-berri-tartean jan/ izan gaiztoak, baina onak".

LANDER BELOKI
ENPRESAGINTZAKO DEKANOA

"Debagoiena garatzen laguntzen du Goienak, bertan gertatzen denaz ahalik eta modu egoki eta freskoenean informatzen. Irekia eta berritzailea, lan ona egiten dela uste dut. Zorionak!".

AINHOA VITORIA
EUSKADI IRRATIKO ESATARIA

"Zorionak eta urte askotarako, Goiena! Beste hamar, hogei... edo ehun urte izan daitezela, oraindik gazteak zarete eta! Bide beretik lanean jarrai ezazue; animo eta zorionak, lantalde osoari!".

JERARDO ELORTZA
IDAZLEA

"Mila zorion eta mila esker Goiena proiektuari, azken hamarkadan euskarazko zerbitzu bikaina eskaini digulako. *Goienkaria* eta GOITB ibarreko herrien euskal lokarri bihurtu dira. Eutsi goiari!".

MARIASUN PAGOAGA
AKTOREA

"Kalitatezko informazioa berehala jasotzea eskaintzen du Goienak, euskararekin konpromiso estua erakusteaz gain. Multimedia da eta hori oso ondo dago; ni ere hasi naiz Internetez kontsultak egiten."

MIGUEL LAZPIUR
CONFEBASKEKO BURUA

"Informazio gero eta hobea eta zehatzagoa eskaintzen du Goienak eta gure bailararako oso aberasgarria da; medio ezberdinetan, gainera. Zorionak eta segi lan horretan!".

JOKIN LABAIEN
BERTSOLARIA

"Goienak herritarrei begira egoten jarraitu behar du. Paperak indar handia du oraindik, haren zain egoten gara, baina baliabide berriak erabili behar dira, albisteari bizitasuna ematen diote-eta".

MIKEL GONZALEZ
REALEKO JOKALARIA

"Kanpoan egon ostean gustatzen zait etxera heldu eta herrian zer gertatu den jakitea. Batez ere papera jarraitzen dut, eta nigana jo duzuenean oso gustura egon izan naiz. Zorionak eta horrela segi!".

JOSU ZABALA
MU-KO ERREKTOREA

"Goiena zoriondu gura dut erakutsi duen ausardiagatik. Ondoan eredurik gabe jaioa, etengabe ari da hazten. Informazio ona eta zabala eskaintzen du, eta euskaraz. Ospatu, merezi duzue".



MARIA FAGAN
MERY MAY MUSIKARIA

"Zorionak, Goiena aurrera eramaten lagundu duzuen guztioi. Orain arte egindako lan bikainarekin jarraituz gero, seguru nago etorkizun oparoa izango duzuela!".

JAVIER MARCOS
MONDRAGONEKO ORDEZKARIA

"Norberaren identitatea mundu globalean uztartze aldera, ezinbestekoa da gertuko informazioa zuzen kudeatzea. Horretan jarrai dezala Goienak beste hamaika hamarkadatan!".

ASIER ARANGUREN
EITB-KO KAZETARIA

"*Goienkaria* etxeko leku baketsuenean irakurtzetik sarean begiratzera igaro gara. Aldaketei aurre hartzen eta egokitzen jakin izan duzue... osasuna eta lana, bada, beste hamaika urterako!".

XABIER LETONA
ARGIAKO ZUZENDARIA

"Jakin ezazue herri komunikazioaren proiektuan begi asko dituzuela begira. Punta puntan zaudete eta espero dut aurrerantzean ere berdintsu jarraituko duzuela. Zorionak!".

JOSE M. ALDEKOA
MONDRAGONEKO LEHENDAKARIA

"Informazioak eta komunikazioak geroz eta garrantzia handiagoa duten garai honetan, poz handiz ospatzen dugu Goiena proiektu kooperatiboaren 10. urteurrena. Zorionak!".

EDU MURUAMENDIARAZ
KOREOGRAFOA

"Ez da erraza herriko albisteak ematen hamar urte betetzea, baina segi horrela, egunerokotasunean, gutxienez beste horrenbeste ospatzeko. Zorionak, guztioi".

AGURNE JULDAIN
NUBI ELKARTEKO KIDEA

"10 urte hauek gehitu daitezela urtetik urtera berriak guregana heltzen jarraitzeko, hemengoak eta hangoak, onak eta txarrak, handiak eta txikiak... betiere berriak gurekin zuei eskerrak!".

REBEKA UBERA
ARALARKO BATZARKIDEA

"Zorionak eta segi aurrera! Beste 10, 20, 30... urte zoriontzekoak izan daitezen. Segi jo eta ke lanean herritarrak informatuz eta herritarrei ahotsa emanez. Hori delako zoriontzekoa benetan!".

EDURNE AZUARA
AKTOREA

"Zorionak, guztioi, 10 urte hauetan bete duzuen lanagatik, urruti iritsi zarete! Eskerrik asko, gure herrien eta herritarren berri hurbiletik azaltzeagatik".

MIREN URKIOLA
KAZETARIA

"Erreferente bihurtzea ingurukoek egiten diguten aitortza da. Norberaren nahi edo asmoen gainetik dago. 10 urtean Goienak, bailaran ez ezik, Euskal Herrian erreferente izatea lortu du".

ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA





ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE

ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA
FAGOR
banatzaile ofiziala

ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA
expert
banatzaile ofiziala

Arkauz **zure etxea** da.

GRUPO
ARKAUZ
ARETXABALETA • ARRASATE
1950•2010
60 urte

MAIDER EGÜES
KAZETARIA

"Zorionak, Goiena! Bada denbora bat Arrasatetik kanpo nabilela, baina etxean beti topatzen dut Goiena papera. Lan txukuna eta gertukoa egiten duzue; horregatik, zorion bikoitza! Segi horrela!".

ALBERTO IÑURRATEGI
MENDIZALEA

"Aurrera begira erronka handiak dituzuelako, segi lanean, herrigintzan, informazioa zabaltzen eta hedabideen aro berrietara egokitzen. Zorionak, Goienako lantalde osoari!".

MAIDER UNDA
KIROLARIA

"Etxean oso gustura irakurtzen dugu Goiena papera. Oleta auzoan Aramaioko berri izateko aukera bikaina da. Zorionak, hamargarren urteurrenean, eta diseinu berriarekin segi aurrera".

JASONE MENDIZABAL
TOPAGUNEKO ZUZENDARIA

"Komunikazioan, kulturgintzan, euskaraz bizi izateko eragite lanean, 10 urtez sortzen. Zorionak, Goienako lantalde, sustatzaile, irakurle, ikus-entzule, bezero, kolaboratzaile eta jarraitzaileei!".

MARTIN GARITANO
KAZETARIA

"Goiena hazi egin da 10 urteotan. Egin duzuen lana ezinbestekoa da, informazioari gertutasuna eman diolako. Bestalde, gure bailararen nortasuna indartzea lortu duzue. Zorionak, eta urte askotarako!".

PELLO URIZAR
EA-KO IDAZKARKI NAGUSIA

"Zorionak lehenik eta behin 10. urteurrenarengatik. Zorionak baita ere gaztelaniazko hedabideak gailentzen diren garai hauetan lekuko informazioa euskaraz normalizazio osoz ematearren".

ARKAITZ BILLAR
KAZETARIA

"Lan ikaragarria egiten ari zarete, jarraitu horrela! Kanpoan bizi naiz, eta etxera itzultzean egunean jartzeko balio dit. Edozer gauzarako nire eskua luzatzen diot lantalde osoari".

IÑAKI GALDOS
H1!-EKO PRESIDENTEA

"Zorionak lehenbiziko. Gogoratzen hastapenetaz, eta hartan jarritako helburuak bete dira. *Astelehenеko Goienkaria* ateratzeko pausoa ere egokia izan zela garbi dago, aurkakoak izan bazituen ere".

HARITZ SOLUPE
KULTURA SUSTAPEN ZUZENDARIA

"10 urte bete baditu, aurretik egindako lan onaren ondorio da. Goienak gure kultura, hizkuntza eta herri garapenarekin ardura duen komunikabide eredua finkatu du. Bide horretan nire babesa".

ANDONI GARTZIA
GARAIAKO ZUZENDARIA

"Euskara garatzeko beti alboan izan dugu Goiena, guk ere baditugulako euskara garatzeko ekimen txikiak. Berrikuntzak eta teknologiak ere euskaraz hitz egiten baitu".

HELBURU 1
9 HERRI
10 URTE
11 EGINKIZUN

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

MIREIA GABILONDO
AKTOREA

"Aurrera jarraitu! Oso lan polita egiten duzue, eta pozgarria da ikustea gogoz eta maitasunez egiten duzuen lan horren emaitza. Zorionak, Goiena, eta animu asko!"

RUPER ORDORIKA
MUSIKARIA

"Tokian tokiko barriak zehatz emunda eta euskeraz, hori da munduko bazter honetan, dohainik, zuen bitartez jasoten doguna: Zorionak Goienako lagunok! Urte askotarako!"

OIHAN VEGA
KAZETARIA

"Nire ibilbide profesionalean hasierako etxea izan zen GOITB; profesional on asko atera da handik eta telebista lokalen artean Goienakoa onenetakoa dela erakusten du horrek. Zorionak!".

JESUS MARI LAZKANO
MARGOLARIA

"Etxean esaten zidaten ezin dela bi lekutan aldi berean egon. Goienak herritik kanpo gaudenok herrian kokatzen gaitu. Zubi iraunkorra, distantziak hausten dituena. Zorionak, Goiena!".

JON SARASUA
KULTURGILEA

"Zorionak, tokiko hedabideak garrantzitsuak baitira euskara komunitatearen norabidean. Azpi-euskalkiari lekua eman eta hedabide-hizkera ganoraz lantzea da 2. hamarraldiko lanetako bat".

MARKEL IRIZAR
TXIRRINDULARIA

"Besteak beste, ibarreko kohesioa indartzeko, Debagoieneko herriek elkarren berri izateko balio izan du Goienak. Egindako lana eskertzekoa da eta beste urte pilo baten lanean jarraitzea opa nahi dizuet".

JUANJO ALVAREZ
UNED-EKO ZUZENDARI OHIA

"Komunikazio alorrean, gaur egun, meritua badu 10 urte betetzeak. Enpresa eta profesional ikuspegitik asmatu egin du Goienak, hain beharrezkoa den informazio lokala eta profesionaltasuna uztartuz".



MIKEL LASKURAIN
AKTOREA

"Bailara elkartu duzue eta nire moduan kanpoan bizi garenoi gure herritik gertuago egotea sentiarazi gaituzue. Zorionak, Goiena, orain arte egindakoagatik, eta urte askotarako!".

ASIER ALTUNA, 'KIXI'
ZINEMAGILEA

"Herritik kanpo bizi garenondako pozgarria da beti herrian gertatutakoak jasotzea, eta horixe da Goienaren balioetako bat, gertutasuna. Gehienbat, Interneti esker jarraitzen dut Goiena aspaldian".

JOKIN ETXANIZ
ASPEKO KIROL ZUZENDARIA

"Goienako lantalde osoa zoriondu nahi dut, 10 urte betetzearren, eta urte askoan lan txukuna egiten jarraitzea opa nahi dizuet. Gertuko informazioa jaso ahal izateko lan bikaina egin duzue orain arte".

BPlana!*
BIDAIAK OPARITU.
ESPERIENTZIAK OPARITU.
24,90€-tik aurrera
SORTA BERRIA! 24 kaxa
Aholku hoberenak zure Barcelo hurbilenean:
BERGARA: Ibargarai, 8 behea | Tel. 943 76 08 43
ARRASATE: Magdalena, 27 behea | Tel. 943 79 70 11
Barceló BIDAIAK
BAL 005 MM

Komunitatea komunikatzen

Unai Iturriagaren hitzak Arkaitz Biainek musikatu ostean eta ibarreko hainbat musikariren laguntzaz jaio da *Komunika* abestia; kantuarekin *lip dub* bat grabatu dute Goienako langileek, urteurrena dela-eta

Ain_1 taldeko Iraitz Agirre, grabazioaren unean.


Aitor Uriarte oñatiarrak ere ha


Amaia Arriaran, Arrasateko Shot! estudioan grabatzen. ARGAZKILARIA: IBAN ARANTZABAL





GOIENA | ARRASATE

Komunika, komunikatzea. Komunika, komunitatea. Halaxe dio Goiena komunikazio taldeak 10. urteurrenerako sortu duen *Komunika* abestiaren leloak. Lelo horrek ezin hobeto definitzen du Goienak jaiotzez duen lehen helburua, eta, zer hobeto, taldeak hamarkada bete duela aitzakia hartuta, oinarrizko helburu hori aldarrikatzen jarraitzeko.

Komunikazioak igorlea eta hartzailea behar ditu, ezinbestean. Bada, errealitatearen eta hartzailearen arteko zubi izaten jarraitu gura du Goienak Debagoienean. Debagoiendarrek osatzen dute Goienaren komunitatea eta debagoiendarra eragile aktiboa izan dadila gura du Goienak. Hori ezin hobeto islatzen da kantuan: *Zu entzun nahi zaitugu, ez zaitez isildu. Zutaz ari bagara, gutaz ari gara.*

Etxean egina, etxerako

Abestiaren ekoizpen prozesuan, nola ez, musikari debagoiendarrak izan dira protagonista nagusiak. Hitzak Unai Iturriaga bertsolari durangarrarenak badira ere, Arkaitz Biain musikari arrasatearrak hartu du hitzok musikatzeko ardura. Horrez gain, hainbat musikarik sartu dituzte ahotsak, abestia borobiltzeko asmoz: Iraitz Agirre Ain_1 taldeko abeslaria, Amaia Arriaran aktore eta abeslari bergararra, Maria Fagan –edo Mery May, halaxe ezagunagoa da– bakarlaria, Iñigo Ibarrondo Sharon Stoner taldeko abeslaria eta Aitor Uriarte Latzen taldearekin ospetsu egin eta egun Une taldean diharduen musikari oñatiarra.

Kantuan ondo islatzen denez, debagoiendarra eragile aktiboa izatea gura du Goienak

Horiez gain, Rip taldeko Yul Bolinagak eta Anger taldeko Beñat Untzuetak ere kolaboratu dute; euren gitarren arrastoa entzun daiteke *Komunika* abestian.

Arrasateko Shot! estudioan grabatu da abestia, eta grabazioa, nahasketak eta ekoizpena Iñaki Bengoak egin ditu.

Abestitik ikus-entzunezkora

Kantuari zukua ondo atera dio Goienak. Izan ere, abestiarekin *lip dub* bat grabatu dute langileek, urteurrena ospatu eta Goienak jaiotzez duen helburua gogorarazteko: komunitateari komunikatzea.

Ukabi informatika

Enpresa kudeaketa aplikazioak
•
Era guztietako webguneen diseinua
•
Etxerako eta enpresetarako salmenta

Domingo Irala z/g
(Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 76 51 95

Eskaintza esklusiboa

Prezio hauekin, edonork izan dezake eskuko ordenagailua!

Acer Aspire 5734Z eramangarria

- Teknologia: Intel Pentium Dual Core T4500
- RAM: 4 GB
- Pantaila: 15,6 hazbete.
- Disko gogorra: 320 GB
- Integratutako webcama: Bai
- Sistema eragilea: Windows 7 Home Premium
- Txartel irakurlea
- Wi-Fi
- DVD±RW

... eta ehunka produktu eta eskaintza aurkituko dituzu gurean.

LKS



www.grupolks.com

Mondragon Unibertsitateko ENPRESAGINTZA Fakultatea eta MIK Gestio arloko Ikerketa Zentruaren eraikuntza berria Oñatin

rtu du parte.

Maria Fagan, edo *Mery May,* eta haren ahots gozoa.

Iñigo Ibarrondok kantuaren bigarren zatian kolaboratzen du.

Iñaki Bengoa eta Iñigo Ibarrondo, grabazioa egiaztatzen. |

Martetar bati ongietorria, festa giroan

Goienaren 10 urteak betikotzeko asmoz eta *Komunika* abestia oinarri hartuta, *lip dub* bat grabatu dute Goienako langileek: martetar bat lurreratu da Santa Barbara parkean eta Goienako kazetariak albistearen bila doaz. Hala, ikus-entzunezkoak martetarra lurreratu denetik Goiena Telebistako platora heldu arteko ibilbidea erakusten du. Jai giroan, noski, eta bidean harrapatzen dituenen ongietorria jasoz.

Lip dub-a ikusgai dago *www.goiena.net* webgune berrituan.

Bernat Alberdi grabatzen, martetarra agurtu dutenak atzean dituela.

Jon Berezibar, zuzendari lanetan.

Monika Montero, aurkezlea.

Miren Arregi, martetarra.

Martetarrak Goiena Telebistako platoan amaitu zuen, Goienako langileekin. | ARGAZKILARIAK: IBAN ARANTZABAL ETA XABIER URTZELAI

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13



Euskera aurrera, Elgeta aurrera
10 tirakada euskera elkartiei eta Goienari. Zorionak!

ELGETAKO UDALA

"Japoniera ikasi egin daiteke, gakoa da hizkiak zatika ulertzen ikastea"

Jon Goikolea hizkuntzalari arrasatearrak japoniera ikasteko gidaliburua atera du, euskaraz

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Euskal Herriak eta Japoniak elkarrengandik ikasteko asko dutela uste du Jon Goikolea hizkuntzalari arrasatearrak. Elkartrukeak bi komunitateei "onura handiak" ekarriko dizkiela deritzo: "Japoniaren eta Euskal Herriaren arteko harremanak estutu egingo dira laster; ez da ahaztu behar Japonia potentzia ekonomikoa dela. Beraz, elkar ezagutzeak merezi du. Elkarren arteko harremanak sendotuz asko ikas dezakegu", dio. Eta euskaldunok japoniarrengandik edaten has gaitezen japoniera ikasten hastea "ezinbestekoa" da, haren ustez. Baina nola ikasi japoniera?

Bada, Goikoleak horretan lagun diezagukeen gidaliburua atera berri du: *Japoniar ideogramak*. Azalean honakoa dio Goikoleak: euskaldunondako japoniera ikasteko modurik errazena da liburua. Domekan aurkezteko dute liburua, aste bukaeran Bilbon egingo den Nihon Jaia –nazioarteko japoniar jaialdia da– aprobetxatuz. Datorren astetik aurrera egongo da salgai Elkar dendetan, 25 eurotan.



Chieko Hata eta Jon Goikolea, GoiHata itzulpen eta aholkularitza enpresak Arrasaten duen egoitzan. | JOKIN BEREZIARTUA

Ideograma eta piktogramak

Goikolea oinarritu da Jos R. De Roo abade flandiarrak japoniar hizkiak sailkatzeko asmatu zuen metodoan. Japonian bizi izan zen bederatzi urteetan De Rooren ikasle izan zen Goikolea.

Japonian ideograma edo piktogrametan oinarritzen dira idatziz adierazteko. Ideograma ideia baten oinarritutako irudia da eta piktograma, aldiz, irudi baten oinarritutako hizki bat. Horietan oinarritzen da, aldi berean, kanji literatura: guretako zirriborro ulertezinak diren hizkiak dira, baina Goikoleak dioenez, hizkiok ikasi egin daitezke: "Hasieran dena zirriborro bat dela dirudi, baina hizkien zati ezberdinak aztertzen hasten zarenean, konturatzen zara zentzua dutela. Irudi bidezko literatura hutsa dela ohartzen zara, eta hizkuntzarekin eta irudiekin nola jolasten duten ikusten duzu. Zatiak behin eta berriz errepikatzen dira eta horrek esangura bat du, logika bat jarraitzen dute". Zatiok ondo interpretatzen ikastean dago gakoa, haren ustez: "Liburuaren hasieran datoz kanji literaturaren gaineko argibideak eta hasierako atala menperatzen duenean, irakurleari askoz errazagoa egingo zaio aurrerago etorriko zaizkion argibideak ulertzeko."

ESANAK

"Japoniera ikasi ahal izateko libururik ez dago euskaraz"

JON GOIKOLEA | LIBURUAREN EGILEA

Azken bi urteotako emaitza

Ez da Jon Goikoleak eta Chieko Hatak euskara eta japoniera hurbiltzeko egin duten lehen saiakera. 2007an guztion eskura jarri zuten Interneten 20.000 hitz baino gehiago biltzen dituen euskarazko eta japonierazko berben itzultzailea. Bada, *Japoniar ideogramak* liburua azken bi urteotako lanaren emaitza da: "Euskaraz ez dago japoniera ikasteko libururik eta, nik dakidanez, ezta frantsesez eta alemanez ere".



IBILGAILU *Kuruma*. Goiko irudia da beheko kanji edo japonierazko hizkiaren jatorria (irudia goitik begiratu). Kaxa barruko pertsona zein garraiolariak marra batekin irudikatzen dira, eta dena erdiko ardatzak lotzen du.



ASTUNA *Omoi*. Garraiatu beharreko pertsona pisutsua edo astuna denean garraiolari gehiago beharko dira; lau, esaterako. Bi aurrean eta bi atzean, beraz. Lau garraiolari irudikatuz ondoko hizkia lortzen dugu.

'Olentzero & Co!' musikaleko beste emanaldi bat antolatu dute

Goiena Klubeko bazkideek sarrera 5 euro merkeago izango dute: 10 eurotan

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Sarreren salmentak izandako arrakasta dela eta, bi beharrean *Olentzero & Co!* musikalaren hiru emanaldi egingo dituzte Arrasaten abenduaren 11n eta 12an. Oihan Vega ikuskizuneko zuzendariaren hitzetan, "uste baino askoz ere lehenago hasi dira sarrerak agortzen. Guretako benetako ezustekoa izan da publikoaren harrera eta harrituta eta pozik gaude aldi berean. Horrek are gehiago motibatu gaitu, eta orain guri dagokigu publikoa aho zabalik uztea, hori baita gure helburua".

Olentzero & Co! musikala abenduaren 11n eta 12an, zapatuan eta domekan, estreinatuko da Arrasateko Amaia antzokian. Bi emanaldiak 17:00etan izango dira. Gehitu duten emanaldia zapatuan izango da, 19:30ean. Sarrerak sarrerak salgai daude *www.generaltickets.com* webgunean. Helduen sarrerak 18 eurotan salduko dira eta haurrenak 15 eurotan.

Goiena Kluba eta Eroski

Era berean, Goiena Klubeko bazkideek 5 euroko deskontua izango dute sarrera erosterakoan: 10 euroko prezioan izango dute. Horrez gain, Arrasateko Eroski supermerkatuak, Musakolan, sustapen kanpaina jarriko du martxan datorren astean, eta han jostailu bat erosten dutenek ere aukera izango dute *Olentzero & Co!* ikuskizunerako sarrera 5 euroko deskontuarekin eskuratzeko.

Oiher Arevalillo eta Karlos Etxaniz, ikuskizuneko protagonistak. | EDU MENDIBIL

The Wedding Present taldeak gaztelekuan joko du bihar. | THE WEDDING PRESENT

Musika, artea eta zinema bihar, Kutxaren Kultur zirkuituari esker

JOKIN BEREZIARTUA | OÑATI

Kutxaren Kultur zirkuituaren eskutik, musika, artea eta zinema izango dira protagonista bihar Oñatin. Hiru kontzertu izango dira gaztelekuan, 20:00etan hasi eta 22:45ak arte. Hiru talde, beraz, eta indie eta rock alternatiboarekin gozatzeko hiru proposamen: Piztiak, Gora Gora Kids eta The Wedding Present taldeek joko dute. Hirurek antzeko estiloa lantzen duten arren, talde bakoitza proposamen ezberdina da; nor baino nor interesgarriagoa.

Musikaz gain, zinema ere izango da kultura etxean: Kultur Expresso ekimeneko film laburrak eta Kimuak egitasmoko lan batzuk ikusi ahalko dira; guztira, zortzi film labur.

Azkenik, euskal gazte sortzaile batzuen arteaz gozatzeko aukera izango da plazan; zuzenean eta egun osoan.

KONTZERTUEN ORDUTEGIA

20:00-20:50 Piztiak (Euskal Herria).

21:00-21:50 Gora Gora Kids (Euskal Herria).

22:15-22:45 The Wedding Present (Britainia Handia).

Euskal Herriko kontzertu bakarra eskainiko du Kase.o Jazz Magnetism taldeak Elgetan

Azaroaren 20koa Errabal jaialdi ibiltariko azken kontzertua izango da

LANDER MUÑAGORRI | ELGETA

Violadores del Verso hip-hop talde entzutetsua denboraldi baterako isildu egin da, baina taldeko abeslari Kase.o-k, ordea, kantuan jarraitzen du. Hala egingo du, gainera, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian eskainiko duen proposamen berrian. Kase.o Jazz Magnetism izenpean, rap doinuak jazzarekin nahastuko ditu kantari zaragozarrak. Emanaldia hurrengo zapatuan izango da, hilaren 20an, 22:30ean. Jazza oinarritzat hartuko du eskaintza berrian, baina hip-hop moduan definitzen duela adierazi digute antolatzaileek.

Euskal Herriko raparen jarraitzaileek, gainera, aukera bakarra izango dute Violadores del Verso taldeko abeslaria proiektu berri horretan ikusteko. Izan ere, Euskal Herrian emanaldi bakarra eskainiko dute. "Zuzeneko disko bat ateratzeko asmoa daukate Kase.o Jazz Magnetism taldekoek, eta grabazioa egin aurretik martxa hartu nahian dabiltza. Horregatik, hiri handi eta agertoki handiak zapaltzen hasi aurretik areto txikiagoetan eman nahi dituzte kontzertuak", azaldu digu Ubane Uzinek, Gaztelupeko Hotsak zigiluko kideak eta kontzertua antolatzearen arduradunetako batek. Elgetako aretoa aproposa zela iruditu zaie Kase.o Jazz Magnetism taldekoei eta bertan izango dira diskoa grabatu aurreko martxa hartzen.

Violadores del Verso taldeko Kase.o izango da Espaloian. | VIOLADORES DEL VERSO

"Violadores del Verso taldearen kontzertuak urrunetik ikusten dira. Espaloian, ordea, agertokia gertu dago, eta Kase.o bertatik bertara ikusi ahal izango dute zaleek", azaltzen du Uzinek.

Kontzerturako sarrerak salgai daude *www.kulturalive.com* webgunean, 15 euroren truke.

Errabal jaialdi ibiltaria

Kase.o Jazz Magnetism taldearena Errabal jaialdi ibiltariaren barruan eskainiko den azken kontzertua izango da, gainera. Debabarrenean eskaini dira orain arteko emanaldi guztiak; Dediego Brothers-ek Soraluzen eta Red House-ek, berriz, Eibarren eskaini dituzte kontzertuak.

Oraingo honetan, Elgetara etorriko dira, "Debabarrenean eta Debagoienean dagoen aretorik egokiena delako era honetako kontzertu bat eskaintzeko", Uzinek adierazi digunez.

Saunier Duval

GUIPUZCOA
Sematec
LAGUNTZA TEKNIKORAKO ZERBITZU OFIZIAL BAIMENDUA

San Lorentzo 21
20570 Bergara
Tel.: 943 76 06 61
www.sematekguip.com
bergara@sematekguip.com

BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA

Ane Irazabal | Kazetaria

"Palestinarren egoera aurrez aurre ikusteak sekulako inpotentzia sorrarazten du"

Ane Irazabal, lantokian.

ANE IRAZABAL

MAIALEN GONZALEZ | BERGARA

Arkeologia eta kazetaritza betidanik izan ditu gustuko Ane Irazabalek (Arrasate, 1984). Historiako ikasketak egin eta Ikus -entzunezko Komunikazioa ikasi zuen Eskoriatzan. Karrera amaierako proiektua Ingalaterran egin eta uda amaieran, Palestinara lanera joateko aukera eskaini zioten. Urria ezkero dago han.

Nolatan Palestina?

Kasualitatez. Uda amaieran, ezagun baten bitartez, Belenen dagoen International Middle East Media Center berri-agentziaren berri izan nuen eta haientzat lan egitea proposatu zidaten. Aukera polita iruditu zitzaidan, Palestinako gatazkak betidanik interesatu bainau. Beraz, zenbait pertsonarekin kontsultatu eta urrian, jada, hemen nengoen lanean.

Zein da zure lana?

Berri-agentziaren webgunerako albisteak idazten ditut, beti ingelesez. Batzuetan, albisteak beste agentzia batzuetatik hartzen ditugu eta bestetan, albistea dagoen tokira joaten gara. Era berean, eguneko albiste nagusiak batzen dituen irrati erreportajea aurkezten dut, batzuetan. Bestalde, Gabonetan Belenen egingo den kultura jaialdi baten antolakuntzan dihardut.

Zaila izan da bertara ohitzea?

Errealitate zeharo desberdina eta batzuetan gogorra izan arren, ez zait askorik kostatu. Benetan gustatzen zaidan lana egiten ari naiz, eta hori lagungarria da oso. Bestalde, palestinarrak oso abegitsuak dira eta beti daude laguntzeko prest. Hizkuntza da, agian, daukadan oztopo bakarra, baina arabiera ikasten hasi naiz eta espero dut laster pixka bat komunikatzeko gai izatea!

Kazetari moduan bertan lan egin gurako zenuke?

Nire bizitzako etapa gisa hartzen dut. Oso gustura nago, baina ez da erraza Palestinan kazetari izatea: batetik, oso mediatizaturik dagoelako; eta, bestetik, ikusten dudanak uste baino gehiago hunkitzen nauelako.

Esperientzia aberasgarria izango da, baina herrimina ere sentituko duzu...

Oraindik ez dut herrimina sentitzeko astirik izan, hilabete besterik ez baitaramat hemen. Gainera, Skype eta halako plataforma berrien bidez oso presente ditut maite ditudan pertsonak.

Kazetari gisa ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Komunikazioarekin erlazionatutako alor asko gustatzen zaizkit, batez ere produkzioari lotutakoak. Ez dut nire burua kazetaritza hutsera mugatzen, esparru ezberdinak probatzea gustatzen zait -eta.

Palestinako esperientzia, txanponaren bi aldeak.

Politena da guztiz desberdina den kultura batean murgildu naizela eta gauza berrien aurrean harritzeko gaitasuna berreskuratu dudala; gogorrena, berriz, zalantza barik, palestinarrek pairatzen duten egoera aurrez aurre ikustea. Izugarrizko inpotentzia sentitzen da.

Hango egoerak komunikabideetan saltzen digutenarekin badu zerikusirik?

Oro har, ez du zerikusirik. Izan ere, mendebaldeko hedabide gehienek sionismoaren aldeko jarrera dute eta ez zaie interesatzen palestinarrek sufritzen duten *apartheid*-aren inguruan informatzea. Israelen estrategia Palestina guztiz isolatzea da, eta, bitartean, lurrak kolonien bidez bereganatzea. Zorionez, ordea, isolamendu hori gainditzeko palestinar asko daude lanean eta besteok ahal dugun heinean laguntzen dugu.

Kanpoan izandako bizipenek norberarengan eragina ei dute...

Nahi eta nahi ez! Ez da lehen aldia Euskal Herritik kanpo nagoena, baina Palestinan beste toki batzuetan baino intentsitate handiagoarekin bizi dut dena. Profesionalki asko ari naiz ikasten, baina, agian, garrantzitsuagoa pertsonalki bizitzen ari naizena da. Bueltatzen naizenean, saiatuko naiz, nola edo hala, lokarri hori ez mozten.

Eta orain, zein asmo duzu?

Oraingoz, bisatua amaitu arte geldituko naiz eta gero, gerokoak. Nahiago dut planik ez egin!

MARRA AZKARREZ

Kazetaritzako arlo gustukoenak: Nazioartea, kultura, tokikoa...

Zaletasunak: Zinema, yoga eta hitz egitea!

Ahaztuko ez duzun bidaia bat: Venezuelara.

Liburu bat: *Fango*, Niccolo Ammanitirena.

Bisitatzeko leku bat: India.

Bizi izateko leku bat: Euskal Herria, ziur aski.

Musika talde bat: Massive Attack eta Ain_]!

Pelikula bat: *Into the Wild*.

Kazetari gisa lan egiteko leku bat: Edonon daude albiste interesgarriak.

Gustuko esaldi bat: 'No news, good news!'.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Erdialdean 65 metro koadroko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berriztu berria. 20:00etatik aurrera deitu. 603 79 60 95

Arrasate. 47 metro koadroko etxebizitza salgai Erguinen. Egoera ezin hobean. Berokuntzarekin. Jantzita. Bizi izatera sartzeko moduan. 148.000 euro. 649 70 33 83

Arrasate. San Josepe. 47 m koadro, 2 logela, komuna, sukaldea, egongela, trastelekua. Igogailua. Ekialdera ematen du. Etxabea da eta erreformak behar ditu. Kontaktua: etxerakomodukoa@gmail.com.

Oñati. Etxebizitza salgai Bakardadeko Ama kalean. Sukaldea, egongela, bi logela eta komun bat. 264.000 euro. Garaje itxia aukeran, 35 metro koadrokoa, argi eta ur instalazioarekin. 66.000 €. 659 72 06 64.

Oñati. Santa Marina plaza inguruan 60 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi logela handi, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. 60 metro koadroko ganbara, duplexa egiteko aukerarekin. Guztira: 120 metro. Balkoi handia eta oso eguzkitsua. 235.000 euro. 685 75 59 25

103. ERRENTAN EMAN

Borda Anboton. Anbotoko magalean asteburuetarako borda ematen da errentan. 14:30etik aurrera deitu. 620 10 52 63

Arrasate. Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 639 96 01 21

Eskoriatza. Hiru logela, bi komun. Jantzia. Berokuntza eta igogailuarekin. Prezio interesgarria. 687 78 86 98

La Mongie. Etxebizitza ematen da errentan. Denboraldi osorako edo asteburuetarako. 2 edo 4 pertsonarentzako. Pistatik gertu. 606 39 70 81

Luz Saint-Sauveur. 55 metro koadroko duplexa ematen da errentan Luz erdigunean. Neguko denboraldi osorako. 6 pertsonentzako. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 665 70 04 87 edo 671 07 12 48

Oñati. Lau logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 663 69 31 16.

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia ematen da errentan erdigunean. 24 metro koadro (8,40x2,85). Roneoko etxeetan. 616 15 63 73

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Kruz Gallastegi kalean. Bigarren solairuan, 25. zenbakia. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Estherrengatik galdetu. 665 70 66 73

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan San Juan Kale inguruan. Berdin da itxia izan ala ez. 627 62 12 55.

301. SALDU

Bergara. 180 (90+90) Metro koadroko lokala salgai Labegaraietan. Bista ikusgarria. Goiko pisua bulegotarako egokitua. Prezioa: 130.000 euro. 627 53 78 61 edo 627 53 78 62

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara. Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizez. 615 76 94 58

Arrasate. Baserriko lanak egiteko eta pertsona heldu bat zaintzeko pertsona/bikote bat behar da Arrasaten. Baserrian bertan bizi izateko baldintzarekin. 635 20 77 91

BERGARA
Taberna salgai erdigunean.
676 22 33 18.

402. ESKAERAK

Arrasate. Neska euskalduna gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. 659 81 59 15

Arrasate. Emakume euskalduna gertu plantxa egiteko edo etxea garbitzeko, orduka, arratsaldez. 699 54 17 27

Arrasate. Umeak zainduko nituzke. Eskolara bila joateko aukera ere bai. Aisialdi titulua daukat. 661 35 49 28

Arrasate. Asteburu eta jaigunetan lan egiteko gertu: garbitasun lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko. 682 31 97 37

Arrasate. Neska euskalduna gertu arratsaldeetan umeak zaintzeko. 615 76 19 82

Arrasate eta inguruko herrietan neska gertu zerbitzari lanetan jarduteko. Esperientziaduna. 680 53 97 54

Bergara. Haurrak zaintzeko gertu nago, orduka zein egun osorako. Esperientzia handia daukat. 686 11 24 66

Bergara. Emakume gaztea haurrak zaintzeko gertu. Ordutegi aldetik arazorik ez. Deitu 673 22 38 00 telefonora.

Bergara. Neska gertu 08:00etatik 10:00etara etxeko lanak egiteko. 943 76 28 12.

Bergara. Emakume arduratsua gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Deitu 671 44 81 51 telefonora

Bergara. Neska euskalduna gertu 17:00etatik aurrera ume edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Esperientziaduna. 699 00 99 08

Debagoiena. Neska gertu garbiketan, sukalde laguntzaile zein nagusi eta umeak zaintzen jarduteko. 630 20 12 03 edo 638 10 28 85

Debagoiena. Ile-apaintzaile edo makillatzaile lanetan jardungo nuke. Baita nagusiak zaintzen ere. 666 21 88 95

Debagoiena. Frantses eskolak emango dizkidan norbait behar dut. 617 93 83 39

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzen, nagusiei laguntzen edo orduka garbiketa lanetan jarduteko. Deitu eguerdietan, 16:00ak arte, 943 71 53 74 zenbakietara edo gauetan. 695 73 87 95 zenbakira.

Debagoiena. Mutila gertu garbiketa edo bestelako laneran jarduteko. 689 88 80 23

Debagoiena. Esperientziadun emakumea gertu asteburuetan sukaldari jarduteko. Garbiketan ere arituko nintzateke. 619 78 63 41.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.
Egubakoitzean + Astelehenean: 20,5 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

Debagoiena. Neska esperientziaduna gertu zerbitzari edo garbiketa lanetan jarduteko. 679 04 42 68

Debagoiena. Paperak dituen emakumea gertu etxeak garbitzeko, sukaldari laguntzaile edo garbitzaile gisa lan egiteko. 645 69 36 51

Debagoiena. Emakumea gertu orduka lan egiteko garbiketan, nagusiak zaintzen edota etxeko lanak egiten. Deitu 606 74 16 15 telefonora.

Debagoiena. Mutila gertu asteburuetan edozelako lanak egiteko. 654 98 69 14

Debagoiena. Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Gauez ere bai. Autoa daukat. 622 05 21 74

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak egiteko, garbiketa lanetarako, laguntzaile jardureko eta nagusi edo umeak zaintzeko. Legezko paperak dauzkat. Deitu 648 01 40 94 edo 943 08 20 79 telefonora

Debagoiena. Edozein lanetarako gertu nengoke. Ordutegi malgua. Beatriz. 610 99 70 46.

Debagoiena. Mutil gaztea askotariko lanak egiteko gertu. 654 98 69 14

Debagoiena. Neska gertu garbiketa lanak egin edo etxean bizi izaten zein bestela nagusiak zaintzeko. 610 60 62 29

Debagoiena. Emakumea gertu goizetan nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Deitu 626 78 22 95 zenbakira.

Debagoiena. Gazte boliviarra lan egiteko gertu. B gidabaimena dauka. 606 78 35 94

Debagoiena. Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 671 15 96 97

Debagoiena. Esperientziadun emakume gazte batek hainbat lan egingo lituzke: etxeko lanak, etxeak garbitu, sukaldari laguntzaile, zerbitzari. Deitu 663 46 93 60 telefonora.

Debagoiena. Bertako neska esperientziaduna gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

Debagoiena. Bertako neska esperientziaduna gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. 637 18 07 23

Debagoiena. Sukalde eta komunak berriztatzen ditut, prezio onean. 663 72 37 44

Debagoiena. Emakumea gertu nagusi eta umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Luisa. 638 89 98 60

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edo zerbitzari zein sukalde laguntzaile jardungo nuke..646 07 79 60 edo 943 77 01 31

Eskoriatza. Neska euskalduna gertu goizez etxeko lanak egiteko. 616 68 02 18

403. BESTELAKOAK

Debagoiena. Lokal, baserri eta denetariko egoitzak garbitzeko prest gaude. Deitu 675 70 00 02 edo 665 70 10 57 telefono zenbakira

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Arrasate. Bigarren batxiler artistikoko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. 628 77 58 28

Bergara. Filosofiako irakasle baten bila nabil. 618 79 47 48

Italierako eskolak emango dizkidan norbaiten bila nabil. 685 73 06 80

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:
- Masterreka 92 m². 237.399 €.
- Masterreka. 88 m². Igogailuarekin.
- Artekale 40 m². Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m². Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Mekolalde 110 m². 90.000 €.
- Osintxu. 70 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m². Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m². Prezio ona.
- Matxiategi 65 m². Igogailuarekin.
- Ibarra 47 m². 146.888 €.
- Bolu 96 m². Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761 €.
- Aranerreka 80 m². 189.319 €.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

Antzuola:
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

Elgeta:
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita.**
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805** ?tik **aurrera.**

Soraluze:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Arrizuri, 90 m². Terrazarekin. Oso ondo.

SORALUZE
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

ANTZUOLA
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

Kontabilitate eta ekonometria eskolak jasoko nituzke Arrasaten edo inguruan. 626 24 82 36

6. MOTORRA

601. SALDU

VW Transporter furgoneta salgai. 1,9 turbo diesela. 6 plaza. 2000ko abenduan matrikulatua. Udaleko zerga 2011ko ekainera arte ordainduta. IAT (ITV) otsailera arte. 180.000 km. 6.590 €. 678 60 42 02

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Persiar katakumeak salgai. Irailaren 9an jaiotakoak. Zuriak. Oso maitekorrak dira eta pentsua jaten hasi dira jada. Bi ar eta eme bat. Ikusteko aukera. 943 79 96 55 edo

703. EMAN

Cocker ingelesa ematen da Arrasaten, ezin dugulako zaindu. Emea, beltza, txerto eta mikrotxiparekin. Lau urte dauzka. Maitagarria da, eta txakur ona. Ondo zainduko duen norbaiti bakarrik emango diogu. 943 79 82 43 edo 943 79 97 17

704. BESTELAKOAK

Arratoi txakurra, "Kanel". Uberan desagertu egin da. Lepokoa laranja, aurreko ezker anka okerra. 617 57 25 43 edo 697 721 836.

8. DENETARIK

801. SALDU

Altzariak. Dekorazio aldaketagatik, bi plazako sofa-ohea, Ikeako mahaia eta 19 hazbeteko Philips telebista DVD integratuarekin salgai. Gazteendako egokia. Oso merke eta egoera onean. 17:30etatik aurrera deitu. Oñatin. 619 81 70 72

Home Cinema salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89

Karabana salgai. Adria Unica D-391-DK. Ondo zainduta. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 85 74 43

Klarinetea. salgai. Deitu 617 80 87 85 zenbakira.

Karabana salgai. Caravelair Bahia 460. 4 pertsonarentzat. Bi ohe handi. 1986koa. Matrikula frantsesa. Abantze eta guzti. Prezio onean. 606 53 53 52

Ordenagailua. Mahaiko ordenagailua salgai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943 79 60 89

Surf taula saltzen dut. Mini-Malibu (7,3) taula berria da, BIC markakoa. 270 eurotan. (Grip+killak+leash+nylonezko funda) Arrazoia: beste bat erosi nahi dut. 605 73 07 77

Umea eramateko motxila. Baby Börjn etxekoa. Beltza eta gorria. Bizkarrarendako errefortzuarekin. Berria. 75 euro. 607 06 22 20

802. EROSI

Patinetea eroski nuke. Bergaran, bigarren eskuko patinetea erosi nuke. Deitu 639 034 358 zenbakira.

803. EMAN

Arrainontzi borobila ematen da opari, koloretako bi arrainekin, Debagoienean. Deitu 671 84 15 63 telefonora

'Pyrenaica' aldizkariko zortzi ale ematen ditut. 658 71 44 37 kendu negrita

806. GALDU

Aretxabaleta. Sudadera galdu zuen umeak Durana kalean, urriaren 23an. Gorria da eta DC markakoa. 695 72 84 75

Aretxabaleta. Patinetea galdu zuen umeak Hirusta inguruan, irailean. Zuria eta morea da. 675 70 82 36

Aterkia galdu nuen domekan Bergaran, Simon Arrieta, Juan XXIII.a plaza eta Ariznoa tabernan artean. Zuria eta beltza da. Callate la Boca markakoa da. 659 76 08 81 edo 646 48 05 39

Autoko giltza. Oñatiko Herri Egunean Ford markako autoko giltza galdu nuen. Giltza bakarra. Aurrealdean kamioi baten argazkia zuen giltzatakoak eta atzealdean Transportes Ayerbe. Norbaitek aurkitu badu, hau da nire telefonoa: 607 47 31 00

Betaurrekoak Aretxabaletan. Graduatutako betaurrekoak galdu nituen irailaren 28an, arratsaldez, Aretxabaletako Araba ibilbidean. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez. Sarituko da. 943 53 26 16

Erlojua. Emakumezkoendako erloju bat galdu nuen urriaren 9an Eskoriatzatik Aretxabaletako bidean. Balio sentimentala du, eta sarituko da. 943 71 46 59 edo 600 23 21 11

Kirol jertsea galdu dut Aretxabaletan. Umearena da, Rip Curl etxekoa, urdin kolorekoa. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez: 639 99 33 34

Mendiko motxila galdu nuen urriaren 9an Garibaiko autobus geltoki inguruan. Norbaitek aurkitu badu, dei diezadala, mesedez. 677 48 39 17

Oñati. Erroxaixo Bixamon goizean umearen oinetako bat galdu nuen, urdina. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. 695 75 93 77

Ume oinetakua Oñatin. Erroxaimoko bixamonian ume oinetako bat galdu neben, urdina da belkrozko bi tirakin. Aurkitu baduzu deitu, mesedez. 695 75 93 77

Liburuak. Joan den ostiralean, azaroak 5, Arrasateko Udal Liburutegiko poltsa bat galdu nuen Herriko Plazan edo inguruetan. Poltsa barruan bi ipuin eta umeendako bi DVD zeuden (liburutegikoak). Aurkitu baduzu, deitu, mesedez, telefono honetara. Eskerrik asko. Deitu 619 87 57 48 telefonora.

Jaka beltza galdu nuen azaroaren 20an Arrasateko Ekaitz, Haizea edo Gure Leku tabernan. Gitarra formako orratz gorri bat du ezkerreko poltsikoan. Deitu 667 95 73 16 zenbakira.

807. AURKITU

Aretxabaleta. Ume baten patinetea aurkitu dute. Deitu goizez. 943 79 86 21

Larruzko txaketa. Larruzko txaketa beltz bat aurkitu nuen larunbat gauean Bergaran, Simon Arrietako aldapan. Deitu 660 686 841 telefonora.

Zira bat aurkitu nuen urriaren 7an trenbidean. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 663 04 35 05

808. BESTELAKOAK

Autoa konpartitu. 08:00etarako Gasteizen egoteko, autoa edo gastuak konpartitzen dira. Bueltarako aukera ere badago. 635 71 73 58

ASTEA GOIENAN

GOIENA

Behobia-Donostia 'Harmailatik' saioan

Behobia-Donostia lasterketa eta bereziki debagoiendarren parte-hartzea aztertuko dute Xabi Urtzelai kazetariak gidatutako saioan. Gainera, Sustrai Aloña Mendi-MU saskibaloi derbia ere izango da dute hizpide.

'Harmailatik'
Astelehena, 20:45.

GOIENA

Gurasoen banatzea hizpide tertulian

Larraitz Zeberiok gidatuta, gurasoak banatzean seme-alabekiko duten jarreraren inguruan mintzatuko dira Enara Agirre psikoterapeuta antzuolarra eta Juankar Olaeta Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeko zuzendaria.

'Magazinea tertulia'
Eguaztena, 20:45.

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 12
13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Ur eta lur
15:45 Lizardiko Bertsolari gazteen txapelketa
16:15 Urrakiko igoera
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Iragana gogoratuz
18:15 Ipupomamua
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Gipuzkoa kultura
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Danbaka
23:15 Goiena Magazinea

ZAPATUA, 13
08:00 Marrazki bizidunak
10:00 Ipupomamua
10:30 28.Klip
11:00 Goiena 10 urte
12:45 Onein
13:15 Kantari
13:50 Marrazki bizidunak
15:45 Goiena Magazinea
16:45 Haurrekin jolasean
17:00 Kiroleroak
17:30 Tertulia
18:30 Tolosako abesbatza lehiaketa
19:30 Berbetan
20:00 Goiena Magazinea
21:00 Danbaka
22:10 Iragana gogoratuz
22:50 Trikitixa jaialdia
23:20 Goiena 10 urte

DOMEKA, 14
08:00 Haurrekin jolasean
08:15 Ipupomamua
08:45 Marrazki bizidunak
10:45 Kantari
11:15 Lizardiko Bertsolari gazteen txapelketa
11:45 Iragana gogoratuz
12:15 Nire Herria
12:45 Ur eta lur
13:15 Tertulia
14:15 Marrazki bizidunak
15:45 Ipupomamua
16:15 Tolosako abesbatza lehiaketa
17:15 Esatea libre
18:15 Marrazki bizidunak
20:15 Ikusmira
20:45 Goiena Magazinea
21:45 Goiena 10 urte
23:30:00 Danbaka

ASTELEHENA, 15
13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Berbetan
14:45 Berriak
15:15 Urrakiko igoera
15:45 Ikusmira
16:15 28.Klip
16:45 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:45 Klik
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Harmailatik
21:30 Goiena Magazinea
22:30 Harmailatik
23:15 Gipuzkoa kultura
23:45 Goiena Magazinea

MARTITZENA, 16
13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Harmailatik
16:00 Kiroleroak
16:30 Haurrekin jolasean
16:45 Berriak
17:15 Marrazki bizidunak
17:45 Nire Herria
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Danbaka
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Iragana gogoratuz
23:30 Goiena Magazinea

EGUAZTENA, 17
13:15 Marrazki bizidunak
13:35 Kantari
14:00 Harmailatik
14:45 Berriak
15:10 Iragana gogoratuz
15:45 Onein
16:15 28.Klip
16:45 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:35 Harmailatik
18:20 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Tertulia
21:45 Goiena Magazinea
22:45 Tertulia
23:45 Goiena Magazinea

EGUENA, 18
13:15 Marrazki bizidunak
13:45 Kantari
14:15 Onein
14:45 Berriak
15:15 Tertulia
15:45 Gipuzkoa kultura
16:15 Ikusmira
16:45 Berriak
17:10 Marrazki bizidunak
17:45 Onein
18:15 Marrazki bizidunak
18:45 Berriak
19:15 Kantari
19:45 Goiena Magazinea
20:45 Danbaka
21:15 Goiena Magazinea
22:15 Gipuzkoa kultura
22:45 Nire Herria
23:15 Goiena Magazinea

ARRASATE IRRATIA

'La Gran Vía' zarzuelarako sarrerak

Arrasateko Amaia antzokian azaroaren 20an, 21ean, 26an eta 27an eskainiko den zarzuelarako sarrerak zozketatuko ditugu Arrasate Irratian. Parte hartzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi *irratia@goiena.com* helbidera.

Markesina 'inteligentea', Arrasate Irratian

Arrasate Kristaldegiak egina, markesina *inteligentea* aste honetan jarriko dute martxan. Ideiaren sortzaileek horren berri emango digute Arrasate Irratian. Astelehenean, goizeko hamarretan, *Igo autobusera* saioan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Zapatua, 13	ESPAÑOL	Araba Etor. 14	943 79 18 65
Domeka, 14	RUIZ PEREZ	Nafarroa Etor. 1	943 79 14 09
Astelehena, 15	ETXEBERRIA	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Martitzena, 16	AZKOAGA	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Eguaztena, 17	AZKOAGA	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Eguena, 18	FERNANDEZ	Maisu Aranberri, 1	943 79 22 26
Egubakoitza, 19	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
BERGARA			
Zapatua, 13	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 14	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 15	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 16	MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 17	URRUTIKOETXEA	Oxirondo Plaza, 4	943 76 11 74
Eguena, 18	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Egubakoitza, 19	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
OÑATI			
Zapatua, 13	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Domeka, 14	BARRENETXEA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Astelehena, 15	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 16	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 17	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 18	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Egubakoitza, 19	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
ARETXABALETA			
Zapatua, 13	JUAN FRAILE	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 14	JUAN FRAILE	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Astelehena, 15	AGIRRE	Gorosarri Pl. (Esk.)	943 71 48 28
Martitzena, 16	AGIRRE	Gorosarri Pl. (Esk.)	943 71 48 28
Eguaztena, 17	AGIRRE	Gorosarri Pl. (Esk.)	943 71 48 28
Eguena, 18	AGIRRE	Gorosarri Pl. (Esk.)	943 71 48 28
Egubakoitza, 19	AGIRRE	Gorosarri Pl. (Esk.)	943 71 48 28

Farmazien eskuko telefonoetarako 2010 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

EGURALDIA ASTE BUKAERAN

DEBAGOIENA

Max. 18º
Max. 09º

ZAPATUA, 13
Aldaketa gutxi. Hego-mendebaleko haizea ibiliko da eta eguzkiak tenperatura nahiko atseginak izaten lagunduko du.

Max. 15º
Max. 10º

DOMEKA, 14
Aldaketa espero da. Tenperaturak beher egingo du eta, eguzki izpiak ikusi ahal izango diren arren, egun euritsua izango da.

EUSKAL HERRIA

URTEURRENA

M. Angeles De la Granja Ugarte

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 14an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Carlos Gomez Gonzalez de San Pedro

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 14an, 12:30ean,
Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Iker eta Ana

Iker Zabalo arrasatearra eta Ana Maldonado txiletarra azaroan 6an ezkondu ziren Talcan (Txile), Moca hotelean. Zorionak, familiakoen partetik!

Irene eta Julian

Osintxuko Irene Astigarraga eta Julian Abio 1960ko azaroaren 26an ezkondu ziren Osintxuko elizan. Azaroaren 28an ospatuko dute. Elkarrekin urte asko igaro ditzazuela! Zorionak, etxekoen partetik!

Iñaki eta Ane

Iñaki Azkarate eta Ane Barruso bergararrak ezkondu zirela 25 urte bete ziren azaroaren 2an. Urriaren 31n familiartekoekin ospatu zituzten zilarrezko ezteiak San Marko Gotorlekuko jantokian. Bihar, bestetik, lagun koadrilarekin ospatuko dute urtemuga. Zorionak, bikote, eta elkarrekin egin ditzazuela beste horrenbeste urte, gutxienez.

HILDAKOAK

Felix Salamanca Garikano. Arrasaten, azaroaren 4an. 44 urte.

Flora Oruna Bengoa. Arrasaten, azaroaren 5ean. 85 urte.

Felisa Aranburu Etxeberria. Aretxabaletan, azaroaren 8an. 89 urte.

Jesusa Zubigarai Azkune. Bergaran, azaroaren 9an. 96 urte.

Aintzane Marcó Gantxegi. Bergaran, azaroaren 9an. 85 urte.

Gregorio Zabala Abasolo. Eskoriatzan, azaroaren 6an. 87 urte.

ESKER ONA

Jesusa Zubigarai Azkune

Luziano Basarrateren alarguna

Dima 1914-02-09 / Bergara 2010-11-09

Joan jaku Jesusa...
Makina bat fregau, koltxoi joste, eskilara
eta etxe garbiketa egindako Jesusa, langile umila.
Jaungoikoak eman daixola merezitako atsedena.
Esker on bere hileta elizkizunera etorri zareten guztioi.

Bergaran, 2010eko azaroaren 12an.

ESKER ONA

Natalio Juaristi Aranburu

2010eko urriaren 29an hil zen, 97 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2010eko azaroaren 12an.

URTEURRENA

Margarita Zabaleta Larrañaga

Juanito Eginoren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 14an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Susana Larrañaga Guillen

Bigarren urteurreneko meza
domekan, azaroaren 14an, 12:30ean,
Bergarako San Pedro parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Aintzane Marcó Gantxegi

Bergara hil zen 2010 azaroaren 9an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzunoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2010eko azaroaren 12an.

URTEURRENA

Joxepa Kortabarria Lete

Lehen urteurreneko meza
domekan, azaroaren 14an, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian ospatuko da.

Elizkizunera joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Susana Larrañaga Guillen

Bi urte hontan hainbeste
poztasun eta apuru,
zeruan ondo zarela
pentsatuz pasau dittugu.

Betirako zurekin gare,
bai bihotz eta bai buru,
ikusten ez zaittugun arren,
gertu sentitzen zaittugu.

Zure kuadrilakuak
Bergaran, 2010eko azaroaren 12an.

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net*

OÑATI Kutxaren Kultur programa bihar ailegatuko da
Kutxaren eskutik, honako ekintzak izango dira: Piztiak, Gora Gora Kids eta The Wedding Present taldeen kontzertuak gaztelekuan (20:00-22:45); Kultur Arte erakusketa plazan (11:00-20:00); eta Kultur Expresso lehiaketako eta Kimuak sortako film laburrak (19:00).
Bihar, zapatua, egun osoan.

THE WEDDING PRESENT


AINHOA RESANO

BERGARA Igor Elortzak eta Unai Iturriagak idatzitako 'Errautsak' antzezlana egingo du Le Petit Theatre de Pain taldeak
Hodei hil egin da. Gaztaroko lagunak hiletarako bilduko dira. Hodeiren azken agurra garai bateko festa basati bihurtuko da; egiak eta gezurrak azaleratuko dituen gaua.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean; sarrera, 5 euro.

NON-ZER

AZAROAK 12
AZAROAK 18

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

MUSIKA

BERGARA 'Piano bat bertsotan' emanaldia egingo dute Osintxun
Osintxuko Gaztañatan kultura egitarauaren barruan, *Piano bat bertsotan* delako emanaldia egingo dute Ainhoa Antsak, Jagoba Astiazaranek eta Beñat Gaztelumendik. Entzuleek erabakiko dute zein abesti joko duten. Kutxak lagundutako emanaldia da.
Gaur, egubakoitza, Txuringon, 22:30ean. Sarrera doakoa da.

ESKORIATZA Donostiako Surfin Kaos taldearen kontzertua
Surfin Kaos taldeak kontzertua egingo du. Koldo Soretek (ahotsa eta gitarra), David Gil *Gilito*-k (baxua) eta Ibon Etxebestek (bateria) sortu zuten Surfin Kaos 2002. urtean. Beste talde batzuetan ibilitakoak ziren aurretik: Soretek Utikan (hard-rock), Euripean Sua (pop-rock), Lau Itzal (rock) eta Mugatik (hardcore) taldeetan parte hartu zuen; Etxebestek Mugatik, Kolore Biziak (punk-rock) eta Gurutze Beltzak (hardcore) taldeetan; eta *Gilito*-k Gurutza Beltzak eta Kolore Biziaken. 2003an grabatutako maketa aurkezteko 75etik gora kontzertu eskaini zituzten, baita Brasilen bira txiki bat egin ere. Bi disko kaleratu dituzte orduz geroztik: *Bizzionbizzi* (Oihuka, 2005) eta *Tryphyllon* (Gaztelupeko Hotsak, 2007).
Bihar, zapatua, Inkernu tabernan, 22:30ean.

OÑATI Gaztetxoendako disko festa izango da gaztelekuan
Gaztelekuko azaroko berritasun nagusia gaztetxoei zuzendutako disko festa da. Topalekua dantzaleku bihurtuko da, eta, erantzun ona jasotzen badu, hilean behin egingo dute. Oñatiko Sound Project disko-jartzaile taldeak ipiniko du musika.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 19:00etan.

BERGARA Bi kontzertu eta Mojito Gaua Nahikari tabernan
Honako kontzertuak antolatu ditu Nahikari tabernak 25. urteurrena ospatzeko: gaur, egubakoitza, gauean, Txokorock –hainbat lagunek rock-and-roll musika joko dute–; eta bihar, zapatua, La-Tox taldearen doinu elektronikoak. La-Toxen kontzertuaren ostean, Mojito Gaua izango da.
Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua.

ARRASATE RIPeko Porturi eta Karlosi omenaldia
Bi urtean behin egiten duten moduan, RIP taldeko Porturen eta Karlosen omenezko kontzertua antolatu dute hainbat lagunek. Honako taldeek parte hartuko dute: Gorroto (Aramaio, punka), Malos Tiempos (Donostia, punk-rock), Carrocerias (Arrasate-Gasteiz; La Xeta Paxote eta RIPeko taldekideekin) eta Piztu Punk (Arrasate-Gasteiz; Obligaciones eta RIPeko taldekideekin).
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

ARRASATE Capsula taldearen kontzertua, Kooltur Ostegunean
Kooltur Ostegunen barruan, Argentinan sortutako Capsula taldeak kontzertua egingo du. 1970eko hamarkadako rocka egiten dute. Sarrera 5 euro da.
Eguenean, hilak 18, gaztetxean, 22:00etan.

IKUSI ETA ENTZUN

OÑATI, ESKORIATZA Ameriketako indigenek egindako filmak ikusgai
Zinema Sozialaren Emanaldiak egiten dabiltza asteotan, eta Latinoamerikako indigenen filmak ematen dabiltza. Bada, honako emanaldiak izango dira datozen egunotan: gaur, egubakoitza, Oñatiko kultura etxean, *El segundo desembarco* delako filma emango dute, eta Ameriketako buruzagi indigena bat egongo da han; eta hilaren 16an, martitzena, *El velo de Berta*, Eskoriatzako Ibarraundin.
Bi emanaldiak 19:00etan hasiko dira.

ARETXABALETA Indiaren eta Indonesiaren gaineko diapositibak
Murrukixoren Mendi Astearen barruan, diaporama emanaldiak egingo dituzte: hilaren 15ean, astelehena, Ana Mari Iñurrategik Indiaren gainekoa egingo du; eta 16an, martitzena, Uxoa Etxebarriak Indonesiaren gainekoa.
Arkupeko Zaraia aretoan; biak, 19:00etan.

IKASTAROAK

ARRASATE Masaje ikastaro bat hasiko da oraingo aste bukaeran
Hasiberriendako masaje ikastaroa emango du Jose Luis Abuinek Arrasateko Yoga Elkartean. Oraingo aste bukaeran hasi nahi dute; beraz, lehenbailehen izena ematea komeni da. Hainbat teknika eta masaje mota erakutsiko ditu irakasleak.
Izenematea: Jose Luis Abuini deitu (943 77 01 33 / 639 02 47 14).

ARRASATE Emakumearen parte-hartze politikoa berbagai
Emakume Txokoak antolatuta, *Emakumeak eta parte-hartze politikoa* izeneko jardunaldiak emango dituzte azaroaren 26an eta 27an, eta izena eman daiteke azaroaren 16ra arte. Arantza Urkaregik emango du.
Hilaren 16ra arte eman daiteke izena Emakume Txokoan (*emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net* / 943 79 41 39).

ARRASATE Yoga ikastaroan izena emateko aukera dago
Yoga ikastaroak ematen dituzte. Hiru aukera daude: astelehen eta eguaztenetan (09:30-11:00) edo bi ordutegitan martitzen eta eguenetan (14:30-16:00 edo 19:00-20:30). Harremanetarako, deitu honako telefonoetara: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).
Bañez Doktorea 1 (Txindoki dorrea).
Txindoki dorrean dira ikastaroak.

OÑATI Natura Biziz tailerra egingo dute Arantzazun abenduaren 18an
Naturak sentiarazten digun ongizatea ulertzeko, ezagutzeko, sentiarazteko eta areagotzeko, Natura Biziz tailerrak antolatu ditu Kutxaren Iraunkortasun Sailak. Tailerretako bat Arantzazun, abenduaren 18an egingo dute. Zortzi orduko tailerra izango da, eta 30 euro da matrikula.
Izenematea, honako webgunean: *www.kutxasocial.net*.

ANTZERKIA

ARRASATE 'Kili Kontuak' delako ume eta gurasoendako antzezlana
Sexologia Zerbitzuak umeekin sexualitate gaiak lantzeko *Kili Kontuak* ipuinak aurkeztu ditu,

BONOFOTOA

Garmendia Ardoak
ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak.
943 76 98 51

GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA*
ZOTZ EGINGO DUGU, GALDERA ZUZEN ERANTZUN DUZUENON ARTEAN:
* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Lerchago kriantza: botila bat.
ERANTZUNA:
IZEN-DEITURAK:
HERRIA: TELEFONOA:
Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzatara

Zer ekitaldi antolatu zuen joan den astean Txatxilipurdi elkarteak gurasoentzat?
Argazkia eta galdera: Jose Felix Diaz de Tuesta
Zorionak aurreko zenbakiko irabazleari:
Arrasateko Josu Telleria.
Erantzun zuzena:
Kiroldegia.

VIOLADORES DEL VERSO

ELGETA Violadores del Versoko Kase.O musikariak Jazz Magnetism proiektu berriaren emanaldia egingo du azaroaren 20an

Violadores del Verso hip-hop taldetik *Kase.O Jazz Magnetism* proiektua datorkigu: hip-hopean eta jazzean oinarritutako ikuskizuna. Euskal Herriko emanaldi bakarra izango da.

Espaloian, 22:30ean; sarrerak salgai daude bertan eta *www.kulturalive.com* webgunean..

eta horietan oinarritutako antzezlana egingo dute Jon Zubiaga eta Sonia Villamor aktoreek. 4-7 urte arteko umeendako eta haien gurasoendako da.

Etzi, domeka, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean.

ARRASATE Los Modernos taldeak 'Fo' antzezlana egingo du

Argentinako Los Modernos antzerki taldeak *Fo* delako lana antzeztuko du. Denondako umorea egiten dute; errealismoz eta esanguraz jositako umorea. Sarrera 10 euro da.

Etzi, domeka, Amaia antzokian, 19:30ean.

JAIAK

ARAMAIO San Martin jaia ospatuko dute gaur aramaioarrek

San Martin eguneko jaia antolatu dute Aramaioko Trikitixa Elkarteko kideek. Lehenengo, kalejira egingo dute (17:30); gero, buzkantzak, txorizoa eta ardoa banatuko dituzte (18:00); bukatzeko, San Martin errifak: Athleticen, Realaren eta Juan Martinez de Irujoren kamisetak.

Gaur, egubakoitza, udaletxeko arkupeetan.

LEINTZ GATZAGA 18. eskulangintza feria etzi San Milixanetan

18. eskulangintza feria egingo dute 15 artisauk; horrez gain, ira-meta egingo dute lau herritarrek, eta gatzaren inguruko antzinako usadioak eta lan egiteko moduak erakutsiko dituzte gatz museoan. Udalak dei egiten du kanpotik doazenek autobusa hartzeko Eskoriatzan.

Etzi, domeka, Gatzagan, 10:00etan hasita.

ANTZUOLA Independentzia Eguna ospatuko dute herriko gazteek

Antzuolak independentzia lortu zuenekoa ospatuko dute gazteek. Jaia salda beroarekin eta tortilla lehiaketarekin hasiko dute, gaztetxean (11:30); bazkaria pilotalekuan; bertso afaria gaztetxean (20:30) eta kontzertuak (22:00).

Bihar, zapatua, 11:30ean hasita

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

ESKAINTZA

Astebururo, pertsonako 10 baino gutxiagoren truke, hau guztia eskeintzen dizugu:

- Planetariumeko saioa, 360°tako kupulan proiektatuta
- 170 modulu interaktibo baino gehiago
- Errusiar mendiaren simulagailua
- Esperimentuak zuzenean
- Haurrentzako jarduerak (Planetarium TxikiA, eskulanak...)
- Zientzia ikuskizunak
- Ingurumena eta energiari buruzko gunea (GAIA)
- Bisita erosoa izan dadin, beste zerbitzu batzuk: doako parkin zabala, pic-nic gune itxia, haur parkea, naturgunea, autobus geltokia (28, 31 eta 35 zenbakiak)

Informazio gehiago: *www.miramon.org* edota 943 01 24 78

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

Ordutegia
Astelehenetan itxita.
Asterartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

ZINEMA

ARRASATE

AMAIA ANTZOKIA

El americano
Zapatua: 20:00.
The karate kid
Zapatua: 17:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

Robin Hood
Domeka: 19:30.
Vicky bikingoa
Domeka: 17:00.
Aaltra
Eguaztena: 20:30.

GAZTETXEA

Waking life
Domeka: 18:00.

OÑATI

KULTUR ETXEA

Come, reza, ama
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Astro boy
Zapatua eta domeka: 17:00.

ARETXABALETA

ARKUPE

Come, reza, ama
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.
Shrek
Domeka: 17:00.
500 días juntos
Eguena: 19:30.

EIBAR

COLISEO ANTZOKIA

Imparable
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30..
Campanilla y el gran rescate
Zapatua eta domeka: 17:00.

COLISEO 1

Enterrado (Buried)
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 2

Carancho
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ

GURIDI

Jackass 3 (3D)
Egubakoitza eta domeka: 16:30.
Imparable
18:15, 20:10 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
The town, ciudad de ladrones
17:30, 20:00 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
La tropa de trapo en el país donde siempre brilla el sol
16:30 (egubakoitzetik domekara).
Agnosia
18:30, 20:30 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
Los ojos de Julia
17:30, 20:00 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
Caza a la espía
20:30, 22:30 (egubakoitza), 16:30, 18:30, 20:30 (zapatua eta domeka), 17:30, 20:00 (astelehenetik eguenera).
Tamara Drewe
17:30, 20:00 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
Gru, mi villano favorito
16:30, 18:30 (egubakoitzetik domekara).
Salidos de cuentas
20:15 (egubakoitzetik domekara), 22:30 (egubakoitza eta zapatua), 17:30 (astelehenetik eguenera).

FLORIDA GURIDI

Midas erregearen altxorra
16:45 (zapatua eta domeka).
Copia certificada
18:15, 20:15 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
Izarren argia
17:30, 20:00 (egubakoitzetik domekara), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
La mosquitera
17:30 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
Los seductores
20:00.
Bon appetit
17:30, 20:00 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
En el camino
18:00, 20:15 (egubakoitzetik domekara), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
Aita
18:00, 20:15 (egubakoitzetik domekara), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
Cruzando el límite
18:00, 20:15 (egubakoitzetik domekara), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).

YELMO GORBEIA

Los otros dos
15:50 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:10, 22:20, 00:30.
Imparable
16:10 (zapatua eta domeka), 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.
Cruzando el límite
16:15 (zapatua eta domeka), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.
Jackass 3 (3D)
20:40, 22:40, 00:40.
Gru, mi villano favorito (3D)
16:40 (zapatua eta domeka), 18:40.
Ga'hoole (3D)
16:00 (zapatua), 18:00 (eguena izan ezik), 20:00.
Avatar (3D)
22:00, 23:30 (zapatua).
Don Pasquale (opera)
19:00 (zapatua).
Bon Jovi kontzertuan (HD)
21:00 (eguena).
Origen
16:15 (zapatua eta domeka), 19:00, 21:45, 00:30.
Rumores y mentiras
16:25 (zapatua eta domeka), 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.
Gru, mi villano favorito
15:40 (zapatua eta domeka), 17:40, 19:40.
El americano
21:40, 23:50.
La red social
15:30 (zapatua eta domeka), 17:40, 20:00, 22:20, 00:40.
The town, ciudad de ladrones
18:05, 20:20, 22:35, 00:50.
Los ojos de Julia
15:45 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
Salidos de cuentas
18:30, 20:30, 22:30, 00:30.
Caza a la espía
15:30 (zapatua eta domeka), 17:30, 19:40, 21:50, 00:00.
Agnosia
15:45 (zapatua eta domeka), 17:45, 19:45.
Paranormal activity 2
21:45, 23:45.
Izarren argia
16:10 (zapatua eta domeka).
El aprendiz de brujo
16:25 (zapatua eta domeka).

Azaroaren 12tik 18ra. Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

ABACO BOULEVARD

Los otros dos
15:55, 18:10, 20:25, 22:40, 01:00.
Imparable
16:20, 18:20, 20:25, 22:35, 00:45.
Cruzando el límite
16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.
Jackass 3 (3D)
18:05, 20:05, 22:10, 00:30.
Gru, mi villano favorito
16:15, 18:15, 20:20.
Ga'hoole (3D)
16:00.
Campanilla y el gran rescate
16:10, 18:00.
Scott Pilgrim contra el mundo
15:55, 18:05, 20:15, 22:30.
Bon appetit
16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.
Rumores y mentiras
16:10.
La red social
15:45, 18:05.
The town, ciudad de ladrones
18:00, 20:20, 22:40.
Los ojos de Julia
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
Salidos de cuentas
16:15, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.
Caza a la espía
20:25, 22:35, 00:50.
Agnosia
20:00, 22:05.
Paranormal activity 2
22:25.

Azaroaren 12tik 17ra. Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

ELGETA

ESPALOIA

Home, ¿dulce hogar?
Eguaztena: 21:30.

ARAMAIO

KULTUR ETXEA

Millennium 3
Egubakoitza: 22:15.
Alvin y las ardillas 2
Domeka: 17:00.

KRITIKA

COPIA CERTIFICADA ★★☆☆☆

Zuzendaria: Abbas Kiarostami.
Herrialdea: Frantzia-Italia-Iran.
Urtea: 2010.
Aktoreak: Juliette Binoche, William Shimell, Jean-Claude Carrière.
Iraupena: 106 minutu.

Sailkapen zaileko film artistikoa

Ikusle eta, batez ere, kritiko askotxok Abbas Kiarostami maisutzat hartzen dute. Beste batzuek, aldiz, egiten dituen filmak aspergarriak direla diote. Hau dela eta, gogoz joan nintzen zuzendariaren azken lana ikustera. Normalean film bat bukatzen denean horri buruzko iritzi argi bat daukagu: gustatu zaigun ala ez, baina noizbehinka izaten dira kontrako sentsazioak sortarazten dituzten lanak. Hauxe da *Copia Certificada*-ren kasua.

Izan ere, filmak baditu eszena eta momentu onak, baina orokorrean ez dakigu zerbait bidean galdu dugun ala arte-lan itxuraren azpian ematen duen baino gutxiago dagoen.

Frantzia, Italia eta Iranen arteko ekoizpena hau Italiako Toskanan filmatuta dago. Eta kontatzen zaigun istorioak bikote baten harreman sentimentalak azaltzen dizkigu. Bikotekideen artean joko bat sortuko da, baita zuzendariaren eta ikuslearen artean ere.

Batez ere, bikotekideen arteko elkarrizketen lekuko izango gara, ez dira gauzak gehiegi zehazten, eta horrela filmaren lehen zatian ematen du bikotekideek ez dutela elkar ezagutzen, eta bigarren zatian ematen du bikotekideak senar-emazteak direla. Zehatz-mehatz ez dakigu zein den egia: senar-emazteak dira ezezagun itxura eginez edo ezezagunak senar-emazteak diren itxurak egiten. Datu askorik ez daukagunez, ikusle bakoitzak itxi beharko du istorioa. Istorioan hitz asko egiten da arte munduari buruz eta originalaren eta kopiaren arteko harremanei buruz. Horiei, ikusleen begiradak ematen die benetako balioa, eta filmari ere ikusle bakoitzak bere zentzua ematea proposatzen da.

Copia certificada-n aktoreen lana bikaina da, zuzendariak oso ondo erabiltzen ditu lehen planoak, horiek garrantzi handia dute, eta aktoreek etekin handia ateratzen diote gertuko plano luzeei: ederki aditzera ematen dute pertsonaien sentimenduak.

ANTONIO ZABALA

TIRA-BIRAKA

goiena

2010-11-12

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Ehun urteren ostean, tinko

- Oñatiko 'Juanitosa' denda ezagunak ehun urte beteko ditu laster
- Lau belaunaldik eutsi diote oraingoz negozioari

ARRITXU BARRUSO | OÑATI

Bittor Arregi eta Nizeta Candaudap senar-emazteek 1911n Arregi denda ireki zutenean ez zuten pentsatu ere egingo ehun urte geroago familiak tinko eutsiko zionik negozioari, ezta ere *Juanitosa* izenak horrenbesteko oihartzuna lortuko zuenik herrian, familia oso bat izendatzera arte.

Juanitosa moduan da ezaguna Oñatiko Kale Barriko denda. Izen berezia du eta Maribi Arregik kontatu digu izenaren zergatia: "Denda hau nire aitaita-amamek ireki zuten, baina negozioa aurretik zetorren. Nire birramonak, Josefa Antonia Garikanok, denda bat izan zuen 1875etik 1880ra orain bota berri duten Urrutxu etxean. Josefa Juanitoren alarguna zen, eta, hala... Juanitorena... Juanitosena… hortik dator gure dendaren izena: *Juanitosa*". Maribik harrotasunez esaten du dendaren izena, dendarekin batera familia oso baten izen bilakatu da-eta: "Nik, aurkezten naizenean, beti esaten dut Maribi *Juanitosa* naizela, titulu *nobiliario* baten modukoa da [barre]. Arregi asko daude Oñatin, baina *Juanitosa* geu bakarrik gara".

Argazkian Pedro eta Maribi Arregi anai-arrebak, eta Arrate Markiegi. | AMAIA TXINTXURRETA

Lau belaunaldi

Merkatariek askotan esaten dute belaunaldien arteko errelebua lortzea zaila dela, baina kasu honetan ez da horrelakorik gertatu. Datorren udazkenean *Juanitosa*-k ehun urte beteko ditu, belaunaldiz belaunaldi, betiere familiakoen esku: "Guk beti esaten dugu gure barruan daramagun zerbait dela. Orain boladan dago *merkatari* hitza erabiltzea; gu ez gara merkatariak, gu dendariak gara, *tenderak*, eta horixe da egiten dakiguna. Oraingoz lau belaunaldi egon gara dendan".

1911ko udazkenean, eta Gabonei begira, jostailu denda moduan ireki zituen ateak *Juanitosa*-k. Azken urteetan, baina, dekorazioarako gauzak, etxeko tresnak eta bidaietarako maletak saltzen dituzte.

Ospakizunak

Ehun urte zifra potoloa da eta *Junitosa* familiak behar bezala ospatu nahi du urtemuga. Horretarako, familia guztia elkartuko dute bazkari on bat egiteko. 50 pertsonatik gora elkartuko dira. Familiak horren lotuta jarraitzen badu, beste ehun ere beteko dituzte. Zorionak, *Juanitosa*!

AZKEN HITZA

MIKEL IRIZAR

Hamar urteko gurdia

Ostegunean ospatu genuen Arrasateko Amaia antzokian GOIENA kooperatibaren lehen hamarkada. Atzera begirakoan lorpen asko nabari dira, baina handiena seguruenik izango da komunikazio taldearen sorrera bera, bederatzi herri -eta beste hainbeste udal eta euskara elkarte- ados jarrita, bakoitzak berea gurdi komunean kargatu eta denok batera gurdi berari bultza egiteko. Tartean nintzelako erantsi dezaket bateratze prozesu guztian ez genuela bozketa bakar bat ere behar izan, adostasuna eraikitzen hain bihurtu ginen trebe, bidea egin ahala.

Sendo jaio zenak hala dirau. Eta hamar urteak betetzean, sendo demonio eta oso heldu agertu da GOIENA. Horrelakoetan ohikoak diren birdiseinu eta gaztetze lanez aparte urrats estrategikoak iragarri ditu, hala nola egoitza bateratu propioa, Debagoienaz gaindi aritzeko asmoa, edota Unibertsitatearekin uztartzekoa.

Sortze garaian ahalegina egin genuen GOIENAren eredua hedatzeko, euskal tribuaren biziraupenerako tresna baliotsua zela sinetsita. Bidean aurrera, gurdiari bigarren kolpea emateko ordua iritsi da. Ea ba, denok batera... ieup!